



Sagastilerri

URRUZUJNO literatur lehiaketa



1998



PROSA

MIREN SALABERRIA

MADDI GARMENDIA

UNAI VILLENA

IDOIA ARRUTI

AINARA GOROSTIZU

KRISTINA GONZÁLEZ

IDOIA ZABALA

DANIEL FERREIRO

IRAITZ AGIRRE

IRATXE ESNAOLA


MAITE URRUTIA

irakaskuntza ertainetako

URRUZUNO

literatur lehiaketa 1998

LAN SARITUEN BILDUMA



HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 1998

FITXA CIP

Urruzuno Literatur Lehiaketa (13.a. 1998)

Irakaskuntza ertainetako Urruzuno Lehiaketa 1998 : lan sarituen bilduma. — 1. argit. — Vitoria-Gasteiz : Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia, 1998
or. ; cm. — (Sagastiberri)
ISBN 84-457-1306-X

1. Euskal literatura-XX. mendea-Lehiaketak. I. Euskadi. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. II. Izenburua. III. Bilduma
891.69"19"(064.3)

Argitaraldia:	1. ^a 1998ko iraila
Ale-kopurua:	2.600
©	Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioa Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila
Internet:	www.euskadi.net
Azala:	Jesus Iturriza
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Wellingtongo dukea, 2 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Particular de Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbo
Inprimategia:	Gráficas Santamaría, S.A. Bekolarra, 4 - 01010 Vitoria-Gasteiz
ISBN:	84-457-1306-X
Lege-gordailua:	VI - 354-98

AURKIBIDEA

Hitzaurrea 7

Emakume idazleak. *Arantza Urretabizkaiaren* aitzin solasa 11

Prosa: A maila

Aneren kaiera	<i>Miren Salaberria Eguzkiza</i>	19
Sei puntako izarra	<i>Maddi Garmendia Irizar</i>	33
Odola	<i>Unai Villena Camarero</i>	45
Txantxangorriaren kantua.....	<i>Maddi Garmendia Irizar</i>	53
Ametsen bakardadean.....	<i>Idoia Arruti Errazkin</i>	63
Londresko bluesik ederrena.....	<i>Ainara Gorostizu Mujika</i>	69
Errugabea	<i>Kristina González García</i>	77
Anbare grisa	<i>Idoia Zabala Ormazabal</i>	85

Prosa: B maila

Zakurra.....	<i>Daniel Ferreiro Villaluenga</i> ...	105
Ohore galdua.....	<i>Iraitz Agirre Aranguren</i>	115
Gau hotza eta lainoa	<i>Iratxe Esnaola Aldanondo</i>	127
Noraezean	<i>Maite Urrutia Urteaga</i>	135

Poesia: A maila

Heriotzak ez zekiena	<i>Jorge Gil Munarriz</i>	143
Poetaren bidea, amaierarik gabeko kalea... ..	<i>Monika Estévez Fernández</i>	153
Eternitatearen memorian.....	<i>Miren Salaberria Eguzkiza</i>	167
Amaraun anonimoetan	<i>Jon Benito Aranberri</i>	177
Gauaren ilunduran	<i>Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena</i>	187
Gatibuari kantua.....	<i>Egoitz Tolosa Eizagirre</i>	195

Poesia: B maila

Amaren heriotza	<i>Olatz De Miguel Arnaiz</i>	205
Ilunbeko neska txikia eta Hegoak .	<i>Nerea Makazaga Eraña</i>	211
Beltz	<i>Urki Bilbao Barruetabeña</i>	217
Dakitenek jakingo balute	<i>Xabier Paia Ruiz</i>	227

Urruzunotarrak 1986-1998		233
---------------------------------------	--	-----

HITZAURREA

Urruzuno literatur lehiaketak hamahiru urte egin ditu. Gazteek idatzitako literaturaren erakusgarri oparoa, urtea joan eta urtea etorri. Idazleek beraiek dute meritu nagusia, baina ezin da oso atzean utzi hainbat eta hainbat euskara eta literatura irakasle saiaturena.

Emaitzak epaitzerakoan, testua bera eta besterik ezer ez du aurrean epaimahaikoak. Irabazleak nor diren jakin ondoren, ordea, hasten dira azaleratzen idazle gazteon ezaugarriak. Idazle lanari ekiteko erabakira jatorri eta ibilbide oso desberdinetatik iritsiak denak ere. Emaitzetan ere aniztasun handia, ondorio gisa.

Aurtengo epaimahaia honako hauek osatu dute:

Juan Kruz Igerabide
Joxemari Iturralde
Joxe Mari Satrustegi
Arantxa Urretabizkaia
Patxi Zubizarreta

Hona aurtengo parte-hartze datuak: 396 lan jaso dira. A mailan 139 prosan eta 40 poesian; B mailan 162 hitz lauz eta 46 olerkian.

Lehiaketak dituen 20 sariak bosnaka banatzen dira, bi arlo eta mailatan. Bai hitz lauzkoen arloko eta bai olerkien arloko *gazteenen* sailean bosgarren saria eman gabe uztea erabaki du epaimahaiak. Gainera, Pasaia-Lezo lizeoko Miren Salaberriak eta Beasaingo Alkartasuna lizeoko Maddi Garmendiak sari bakarra ez, baizik bina irabazi dituzte. Aurkibidean arlo eta saileko multzotik aparte agertzen direnek aipamena jaso dute.

Lanak epaimahaiak emandako lehentasun ordenan agertzen dira liburu honetan.

Hona irabazle bakoitzari dagokion saria:

- Irailean 10 egun inguruko bidaia Hungaria aldera.
- Bidai poltsa norbere gastuetarako: 40.000 pezeta.
- Oroigarria. Iraileko sari banaketan ematen zaie.
- Lanak *Sagastiberri* sail honetan argitaratzea.

Liburua eskola denetara eta parte hartzaile guztien etxera bidaltzen da.

Egindako ahaleginen ezagutza koxkor bat egin nahirik, bi ikastetxeri egiten zaie, urtero, aipamena: aurtan Beasaingo Txindoki institutuari eta Lapuebla de Labarkako Assa ikastolari. Aipamen horrek irabazleekin batera bidaian joateko eskubidea ematen dio ikastetxe horietako irakasle banari.

Liburuaren azkenean *Urruzunotarren zerrenda* jarri dugu. 1986tik 1998ra bitartean irabazle izan diren guztiak jasotzen ditu, abizenen araberrako alfabeto ordenan. Lanen izenburuez gain, zein urtetako liburuan eta zein orrialdetan argitaratu ziren azaltzen du, lanak errazago bilatu eta erosoago erabiltzeko.

Zorionik beroenak sarituoi. Esker mila parte hartzaile guztioi, epaimahaikooi eta, bereziki, ondoko aitzin solasa apailatu duen Arantxa Urretabizkaiari.

Sagastiberriko igaliok atseginez hartu eta gehiagoren gose utziko al dituzu, irakurle.

Euskara Zerbitzua

EMAKUME IDAZLEAK

Arantxa Urretabizkaiaren
aitzin solasa

Gure artean, bizitzak aurrera egiten duenean ere tarteka behintzat idazten jarraitzen duenari, literatur lehiaketaren batean epaimahaikide izatea tokatuko zaio. Hori xe gertatu zait niri eta gertatuko zaie, uste baino lehen, gaur liburu honetan ipuin sarituak argitaratzen dituztenei eta are sarituak izan ez direnei.

Jakina denez, literatur lehiaketa gehienetan epaileak itsuan egiten du lan, egilea nor den jakin gabe. Modu horretan ikasi nuen nik, argitaratutako liburuetan baino gehiago, zein den, idazteko garaian, gizon eta emakumeon arteko diferentzia, horrelakorik dagoenetan.

Lehenengo eta behin, batzuetan ez dago antzematerik egilea gizon edo emakume den eta ez bakarrik idazleak bere burua mozorrotu nahi izan duelako. Pertsona batek denaren arabera idazten du eta den hori bizi izan duena da, baina baita ere irakurri duena edo bizi nahi lukeena. Osagai guzti horien nahasketa da idazkia eta askotan irakurleak ezin asma dezake zer nagusitu zaion idazleari, bizitakoa edo literaturaren bidez bizi nahi lukeena.

Besteetan, mozorro eta guzti, igarri daiteke egilearen sexua, agian mendeari hain gutxi gelditzen zaion hone-

tan sortu ginenean suertatu zitzaigun sexuak asko (gehiegi?) baldintzatzan gaituelako.

Egingo nuke Urruzuno literatur lehiaketan neskek maioria zabala osatzen dutela, baina hori horrela izan dela frogatu ahal izateko lan guztien egilea nor den jakin beharko genuke. Bitartean, gauza bakarra dakigu, ugarriago direla neskak sarituen artean, epaimahaian alde-rantziz gertatzen bada ere.

Adituen esanetan gauza bera gertatzen da irakurleen artean, emakumeok gizonezkoek baino literatura gehiago irakurtzen dugula. Hala ere, gure literaturaren alorrean emakume idazleak minoria eskasa gara eta, gainera, proportzioak oso piskanaka egin du gora azken belaunaldietan.

Zergatik? Urtetan buelta asko eman ondoren ez naiz galdera erabat erantzuteko gauza. Arazo garrantzitsuetan, hamaika zergati aurkituarren, zuzena eta zehatza izaten saiatzen bazara, beti irudituko zaizu alderdi gehiago aztertu behar zenukeela, ez duzula zergatia aski ulertzen, sustrairen bat falta zaizula.

Baina iraganetik orainaldira igaroten bagara, badirudi ez direla baikor izateko arrazoiak falta. Urruzuno sarian neskak maioria badira eta, gainera, askotan irabazle, bategen pentsa dezake kontua konponbidean dagoela, datorren mendea hasi bezain laster parekatu egingo direla liburuak argitaratzen dituzten gizon eta emakumeak. Gazteei esker, noski, helduok ez baitugu erremediorik.

Hala bedi, baina kontuak ez dira hain errazak. Berdinketa gerta dadin, lehiaketa honetan parte hartu duten emakumeek idazten jarraitu behar lukete eta orain arteko

esperientziak erakusten digu asko direla gaztetan idazteko edo irakurtzeko zaletasuna izanik gerora literatura baztertu egiten dutenak. Eta asko horien artean ugariago dira emakumeak, seguraski bidearen latzak horretara bultzatzen dituelako.

Ez da erraza minoria izatea, baina ez eta ere beti maioriaren babesean dabilenak uste bezain zaila. Jarraitu, bada, idazten eta idatzitakoa argitaratzen saiatzen. Ez dakit gainontzekoak, baina gure letretako emakume gutxiok zuen premian gara.

PROSA. A maila

BBBko 3. kurtsoa, UBI,
LHko 2. gradua eta
IEEko 2. zikloa

Aneren kaiera

Miren Salaberria Eguzkiza
Pasaia-Lezo lizeoa
Pasai Donibane

1985eko urriaren 2an

Gaur goizean bertan ekarri dit aitonak koaderno hau. Polita da oso, azalean marrazki ugari ditu eta orrietan marra zuzenak dauzka ondo idazteko, zeren oraindik ez dut ikasi ondo idazten. Ez pentsa, ez da batere samurra ondo idaztea, esaterako, *k* hizkia egitea asko kostatzen zait eta gainera, okertua ateratzen zait beti. Dena den, aitonak dio neska azkarra naizela eta koaderno honetan praktikatu, berak bezain azkar eta dotore idatziko dudala denbora gutxian. Baina *k* hizkiarekin ezezik, numeroekin ere arazoak ditut, *8a* ez dut behar bezala egiten, bi borobil ipintzen ditut bata bestearen gainean modu traketsean eta noski, lagunek barre egiten didate beraiei ondo ateratzen zaielako, baina aitonak esan dit koaderno honen atzeko aldeko orriren batean *8a* ondo egiten erakutsiko didala eta ez naizela gehiago azkena izango batuketak bukatzen.

Numeroak trakets eginda, zaila baita klasean lehena izatea. Eta nik lehena izan nahi dut. Goian, eguneko data ipini dit aitonak, idazten dudan bakoitzean nik ere halaxe egin dezadan, era horretan nire sekretuen gordeleku izan

daitezen orriok. Bertan, nire sekreturik handienak, inor-
txok ere jakin gabe idatzi ditzakedala esan dit, baina
gero nik esan diot, baietz, idatziko ditudala, hori bai, argi
geratu dadila praktikatzeko eta klasean, hizkirik polite-
narekin azkarren idazteko dela. Aitona eta nire artean ez
baita sekreturik. Beno, sekreturik bada, baina elkarrekin
konpartitzen ditugu. Gurasoak hil zirenetik bizi naiz ai-
tonarekin. Jakintsua da oso eta munduan gehien maite
dudan pertsona da. Pintorea da aitona, oso ona gainera.
Gaztea zenean, emakumeak pintatzen zituen, baina azke-
naldian umeak pintatzea gustatzen zaio. Nire erretraturik
ere badu. Esan zidanez, nire marrazkia zen gela osoko
onena, Aurkenerena baino hobea, nahiz eta andereñoak
berari “marrazkia oso polita da” eta niri “polita da” soi-
lik esan. Beno, kalera noa Leirerekin. Bihar arte.

1985eko urriaren 3an

Egia esan, gaur ez daukat idazteko batere gogorik,
baina ni, etsitzen ez duten horietakoa naizenez, hemen-
txe nago letrarik politena lortu eta abiada bizian idazten
ikasteko asmoz. Gaur goizean autobusak ihes egin dit
eta eskolara iritsi naizenerako, klasea hasita zegoen.
Bada gauza da, gaur taldetan jarri gaituela andereñoak
arrainei buruzko lan bat egiteko, eta ni berandu iritsi
naizenez, ez dut aukeratzetik izan eta ez nau taldean
Leirerekin jarri. Asko haserretu naiz; izan ere, Leire da
nire lagunik minena baina bera askotan, Naiararekin
ibiltzen da eta hark ere, Leire eta bera lagunik minenak
direla dio eta Leireren lagunik onena ez naizela ni, bai-
zik bera. Horregatik, Leireren taldean jarri da eta nik
ere, talde horretan egon nahi nuela esan diot andereñoa-
ri, baina hark ezetz, talde hartan jende gehiegi pilatuko

zela eta beste taldera joateko esan dit. Gelako inozo guztiekin jarri nau. Bada ala! Ez dut kolpe santurik jo. Zer uste du andereño horrek ba?

Gero, beste lan bat jarri digu etxerako. Andereñoak esan digu etxeko liburuetan begiratzeko zein diren arrainen ezaugarriak eta txukun-txukun ipintzeko boligrafoz orri zurian. Hainbeste poztu naiz, non boligrafoa erosi dudan etxerako bidean. Lehen aldia da boligrafoz idatziko dudala. Etxera iristerakoan, ea libururik badugun itaundu diot aitonari eta hark esan dit ezetz; orduan nik hori ezinezkoa dela esan diot, etxe guztietan daudelako liburuak andereñoaren hitzetan eta aitonak erantzun dit guztietan ezetz, gurean ez dela bat bera ere. Nik orduan, guk libururik zergatik ez dugun galdegin diot eta berak esan dit ez dela beharrezkoa etxea liburuz josia edukitzea.

Gaur egun, handiuste askoren etxean egoten naizenean, apaletako apaingarriak ikusi (hauen artean liburuak) eta tristetu egiten naiz. Ezen gizakiaren ongizatea, kontsumismoarekin loturik dago eta nik, beraiek bezain zorionsua izan naitekeela frogatzen dut, teknologiak ekarri duen aberastasun materialik gabe. Zertarako dauzka jendeak armairuak arropaz gainezka? Zertarako hiru telebista? Zertarako bi auto? Ahal dezaketen baino bizi-tza maila altuagoa edukitzeko, usu oporrak ere zatika ordaindu eta izugarritzko miseria morala izaki. Horrexegatik ez daukagu guk batere libururik. Ez ditugu behar. Azkeneko zati hau aitonak diktatu dit hitzez hitz, ni dexente liatzen bainintzen gauzekin. Aitona, etxean libururik eduki ez arren, jakintsua da oso eta horregatik hitz egiten du hain ondo. Gero esan dit, neure etxerako lana behar bezala egin dezadan, liburutegira lagunduko nauela, bera

ere hantxe egoten omen da irakurtzen. Uf! Ez nuen uste gaur hainbeste idatziko nuenik! Berandutu egin zait, afaltzeko ordua gainera datorkit. Pena da, gaurkoan ezin-go dut Leirerekin kalera irten, ea ez dion Naiarak ere jolaserako deitzen. Agur!

1985eko urriaren 4an

Andereñoak nire lana onena dela esan dit eta Iker asko haserretu da hori entzutean. Normalean bere lanak izaten baitira onenak eta ez dago ohituta besteren batek gauzak berak baino hobeto egitera. Has dadila ohitzen bada! Gero, andereñoak, lanaren atzeko aldean bibliografia jartzeko zeinek esan didan galdegin dit, eta baita esan ere horrenbeste liburu etxean edukitzea zortea galanta dela. Nik ezetz, guk etxean libururik ez dugula, aitonak beharrezkoak ez direla esaten baitu eta andereñoak, ea zer gizon den nire aitona, liburuak beharrezkotzat jotzen ez dituen, ea hori den modua ni bezalako neskatxo bat hezitzeko, eta nik esan diot aitona bera baino askoz jakintsuagoa dela; gertatzen dena, bera ez dagoela ados kontsumismoarekin eta beraz, liburutegira joaten dela, eta andereñoak nire aitonarekin hitz egin nahi duela esan dit. Nire aitona hain zuhurra bada, ziurrenik ez omen dugu etxean bizitza normal bat eramateko adina erosotasun izango.

Dena den, nik badakit aitonak arrazoia duela. Gainera, etxean dena kontatutakoan barrez hasi da, nire andereñoak isteriko (ez dakit nola idazten den) hutsa behar duela izan, eta lasai egoteko, joango dela berarekin hitz egitera, eta nik galdetu diot zergatik jarri den horrela, eta aitonak ziurrenik menopausiok edo ez dakit zerk jota

egongo dela esan dit, eta baita bere bizitza osoan orgasmo bat eduki gabea izango dela ere. Zer ote da orgasmoa? Aitonari galdegitea ahaztu zait; beno, bihar galdetuko diot, zeren orain pintatzen ari da eta ez zaio batere gustatzen pintatzen ari denean inork molestaterik. Orain, kalera joango naiz hau amaitutakoan, gaurkoan Leirerekin ez, gaurkoan goiko kaleko iturrira joango naiz, ur freskoa botilan hartzera, aitonak esaten baitu kanilakoa baino hobea dela eta, bide batez, ea Jon ikusten dudan, zeren gaur, astelehena izanik, ez da ikastolara agertu eta noski, hiru egun daramatzat Jon ikusi gabe.

1985eko urriaren 5ean

Gaur Jon ikastolara etorri da. Gaixo egon dela esan dit. Atzo aipatzea ahaztu zitzaidan, baina Jon nire nobioa da, duela aste betetik. Gelako indartsuena da, Aiert baino indartsuagoa ere bai, duela gutxi borrokatu egin baitziren eta Jonek, kolpe pare bat baino ez zituen hartu eta Aiertek berriz, sudurra odoletan eta dena zeukan. Hoberena da Jon. Naiarari ere Jon gustatzen zaio, baina Naiara tontoa da eta Jonek ez du nahi bere senargaia izan.

Etxera iritsitakoan, aitona pintatzen hastekoa zen. Ni etxera ailegatzea ondo baino hobeto omen datorkio, koadro honetan ere, (beste bietan bezala) bere mussa izango naiz eta, berogailua martxan jarri ostean, biluzteko esan dit. Gero, lurrean alfonbra bat jarri eta etzan egin naiz oso modu artistikoan, besoak era teatralean jarri eta begirada balkoitik kanpo finkatuz. Gaurkoan, aspertu ere egin naiz, aizue. Hasieran, arbolako hostoak kontatzen jarri naiz, eta 125 hogeitalditan kontatu ostean, errepide-tik igarotzen ziren kotxe gorrien kontaktetan jardun dut.

Horrekin ere asper-asper eginda negoenean, kotxe zuriekin hasi... eta aitona altxatu da derrepentean pertsiana istera. Nik, ea zergatik asaldatu den horrenbeste galdegin diot, eta argiaren efektuaz edo ez dakit zertaz hitz egin dit. “Lasai Ane, zu ez ikaratu, ez da eta ezer pasatzen, maitia”. Zeren noski, ni ikaratu egin naiz aitona hain asaldatuta ikusita.

Ordu bete inguru igaro dut lurrian etzanda eta bukaeraren aitonak esan dit nahi izanez gero deskantsatu dezake dala. Koadroa begiratzera joan naiz; oraindik asko falta zaio bukatzeko, baina beno! Aitonak, pintoreen mussak oso garrantzitsuak izatera heltzen direla esan dit zenbaitzuetan. Gero, bere magalean esertzeko esan dit, askotan egiten du hori eta halakoetan, larrua laztandu eta kilimak egiten dizkit gorputz osoan. Gero, jolasean hasten gara; jolasa oso polita da, aintzina Greziako zibilizazioan umetxoekin jolasten zuten bezala. Lehenengo, berak galtzak jaitsi ditu, kantzontziloak gero eta bere zakil lodikotea laztanduko ote diodan galdegin dit. Baietz erantzun diot, nik aitona gustora edukitzeko edozer egiten baitut. Nik ere badakit berak edozer egingo lukeela nigitik. Aitonari ohi bezala zakila loditzen joan zaio, eta aurki bota du hazi txuria. Aitonak, gogorrago igurzteko eskatu dit, eta hasperenka hasi da, zakila handi-handi zuela. Estuago besarkatu nau, eta mahai gainean jarrita, alua laztandu dit eskuaz. Barrezka hasi naiz; aitona ere bai, bai baitaki kilimak egiten dizkidala.

Aitonari, lagunekin kalera jaitsi baino lehen, isiltasuneko gure paktua mantentzen jarraituko dudala agindu diot. Berak esaten dit honelako jolasak guk soilik egiten ditugula eta edonori zeozer esanez gero, ez genituzkeela gehiago egingo eta gure arteko sekretua direla. Horiek

ere, hementxe, koadernoan apuntatzeko. Orain, kalera noa, Leireri aitonak erosi dizkidan zapata berriak erakustera; izan ere, berak horrelakoxeak nahi ditu, baina bere amak ez dizkio erosi.

1985eko urriaren 6an

Leire zeharo haserretuta dabil nirekin. Ez zaio gustatu nik bere gustuko zapatak erostea. Baina oraindik nire lagunik minena izaten jarraituko du, ez da? Ez zen nirekin betiko haserretuko ez? Dena den, ez dut ulertzen zergatik haserretu den horrela. Badaezpada ere, ez ditut ikastolara zapata berriak eramango, ze orduan Leirek, inbidioso hutsa naizelako susmoa zabalduko du eta orduan akabo! Gela guztiak gorrotatu egingo nau eta Edurneren moduan gelako tontoa izango naiz eta nik ez dut horrelakorik nahi. Edurne gelako tontoena da, inork ez dio kasurik egiten eta kalera jolasera joateko ez diogu deitzen. Lehengoan, inork berarekin bikotea egin nahi ez zuelako, negarrez irten zen, ume txikiak bezala. Tontoa da Edurne.

Eguerdian bizilaguna etorri da, aitonak zeozer egin behar zuela eta, bazkaria ematera. Nik orduan, ikastolan gertatutakoa kontatu diot, eta berak, “A zer txorakeriak, nahiago nuke nik ere zure kezkek eduki”, esan dit. Bada nik nahiago nuke ez eduki. Gainera, ez dit irtenbiderik eman. Aitonak, hemen egon balitz, ziur gauzak nola egin esango zidala. Aitona, ez baita menopusok jotako bizilagun txolin hauen gisakoa. Bera, argia da oso eta asko maite nau.

Arratsaldean iritsi da aitona. Nekaturik zirudien, dutxa bat hartzera zihoala esan dit, ea berarekin joango nintzen.

Nik baietz, dutxatuko nintzela berarekin, eta arropak erantzi ondoren, berarekin bainatu naiz. Aitonak, xaboia gorputz osoan barna pasatu dit, alutik ere bai. Baina nik, gaur ez neukan jolaserako gogorik. Jantzi eta kalera irten nahi nuela esan diot. Pena eman dit triste aurpegia jarri duenean, baina nik gaur nahiago nuen jolasera irten.

Leirerengana joan naiz. Jadanik ez dago haserretuta, amak erosi baitzikio berari ere zapata urdin laxodunak. Bere etxera joan gara eta, meriendatu ostean, medikueta-
ra jolastu, Leireri ez baitzaizkio panpinak gustatzen. Nekatu ere, azkar nekatu gara; izan ere, ez geneukan gaixotasunik, beraz, ezin ezer sendatu. Orduan, telebista ikustera joan gara. Pelikula bat botatzen ari ziren, kotxi-
no samarra, non andre bati, aluko ile guztiak eta bular handi batzuk ikusten zitzaizkion. Gizonak prakak jantzi-
ta zezkan. Elkar musukatzen ari ziren. “Ane, zuk ba al duzu ilerik aluan?” galdegin dit Leirek. Ezetz, nik ez dudala esan diot, horrek, handien gauza behar duela izan inondik ere. Gero, ea inoiz mutil bat musukatu dudan, eta nik baietz, Jon musukatu dudala, baina masailan, ahoan ez. Berak orduan, “Eta guk elkar horrela musukatuko bagenu?” Baietz nik, baina hori bai, mingaina Leireren ahoan sartzeak nazka apur bat eman dit. Bioi ere ez zaigu musua gustatu, nazkagarria iruditu zaigu. “Handiei hau gustatzea ere...” Esan dit Leirek. Arrazoia du. Agian, biak neskak ginelako izan da. Bihar Joni musu bat ematen saiatuko naiz ahoan. Beno, jadanik berandutu zait, eta eskua neka-neka egina daukat, beraz, agur!

1985eko urriaren 7an

Zein ondo, gaur larunbata da eta ez dut eskolara joan beharrik izan. Aitona etorri da ni iratzartzera eta, bide

batez, nirekin sartu da ohean. Kuleroak kendu eta mihiaz alua miazkatu dit, bai baitaki horrek kilimak egiten dizkidala. Berak, ea nik berdina egingo ote diodan galdegin dit, eta zergatik ez, nik ere miazkatuko diodala zakila berak nahi badu. Bada halaxe geundela, aitonak zakila gogor-gogor, hazia isuri du nire ahoan. Buaj!! Nazkagarria izan da. Ohetik altxa eta garbitzera joan naiz segituan. Aitonak lasai egoteko, ez dela ezer izan esan dit. Telebista ikusten egon gara gero. Erdi tximu antzekoak atera dira, “Suaren bila” deitzen omen da pelikula. Nik aitona-ri galdegin diot ea zein ergel mota ziren horiek, ze sua egitea ez baita inongo misterioa. Aitonak esan dit ezetz, haiek ez zirela ergelak. Gertatzen dena, garai haietan, oraindik ez zekitelera sua nola egiten zen, eta fenomeno dibinotzat omen zuten. Gaur egun ere horixe bera gertatzen omen da, beren jatorria ezagutzen ez dugun gauzei errespetu handia diegula esan dit, eta akaso, hemendik urte pilo batera, etorkizuneko gizakiek ere, gutaz barre egingo dutela esan dit. Pentsatzen jarrita, ziurrenik arrazoia du. Aitona kristorena baita.

Hamabiak inguruan, kalera irten naiz koaderno eta guzti. Aitonak esan dit inguruan ikusten dudana idazteko, oso polita geratzen dela. Lehenik, goiko kaleko iturrira, Jon ikusteko esperantzaz edo... Eta hantxe topatu dut kalean, bakar-bakarrik baloiarekin jolasean. Beragana hurbildu naiz eta nire koaderno asko gustatu zaiola esan du. Jakinminagatik edo, piska bat hitz egin ondoren, zakila erakutsiko ote didan galdetu diot. Berak, horretarako, nik lehenik alua erakutsi behar diodala esan dit, eta nik baietz, erakutsiko diodala. Izkina batera joan gara, eta lehenik nik alua erakutsi ondoren, galtzak jaitsi eta bere zakil txikia erakutsi dit. Nik hartu eta igurtzi

egin nahi izan diot, ea hazirik botatzen zuen ikusteko, aitonarenak bezala, baina piska bat igurtzi ondoren, Joni ez zaio gustatu, galtzak jantzi eta etxera aldegin du lasterka. Orain ez dut Jonen nobia izan nahi. Zakila oso txikia du eta ez du ezertarako balio. Gainera koldar hutsa da. Nik uste nuen, gelako indartsuena izanda, utziko zidala zakila igurtzen, baina ez da hala izan. Ala! Gainera, koadernoahate ahaztu zaio eta diarioa paper zaharkitu haueetan jarraitu behar izan dut eta ezin izan dut inguruan ikusi dudana idatzi. Berdin dio, beste egunen batean izango da.

1985eko urriaren 10ean

Atzo ez nuen deus ere idatzi. Ez neukan gogorik, baina gaur, gogorik ez izan arren, idatzi egin behar nuela agindu diot neure buruari. Ikastolan, andereñoak batuketak eta kenketak jarri dizkigu eta ni izan naiz lehena amaitzen eta klaro, gela osoa inbidiak jota, ba ala! “Que se fastidien!” Lehenago nitaz barrezka aritzeagatik gertatzen zaie. Izan ere, orain ni naiz 8ak hoberen egiten dituenena. Jonen ama ikastolan ikusi dut. Andereñoarekin hitz egitera joan da. Ba ez dakit zergatik, zeren Jon ikasle ona eta saiatua da. Etxera iristerakoan, aitona ikusi dut, eta zera esan dit, nire koadroa amaitua dagoela, eta ea ikustera joan nahi nuen. Oso polita da koadroa, oraindaino egin duen onenetarikoa bere hitzetan. Hori bai, gorde egin behar duela esan dit, hau ez duela egongelako koadroekin batera jarriko, inportantea baita oso koadro hau eta ez omen du inork ikustea merezi.

Ilunabarrean, norbaitek atea jo du bortizki. Aitona atea irekitzera joan da, eta bi polizia sartu dira. “Rafael Bengoetxea?” galdegin dute. Segidan, agindu bat, edo

zeozer horrelakoa zutela esan eta aitona eraman dute. “Aitona, zertara etorri dira?” galdegin diot. Ez dit erantzun. Ba nik ez dut ezer ulertu, aitona ez da asesinoa eta poliziak, asesinoak bilatzen ditu. Bietako batek nire koadernoak zeukan; orain, pentsatzen jarrita, seguruenik ez dira poliziak, lapurrak baizik, zeren nik koadernoak Joni eman nion eta gizon honek, ziur kendu egin diola. Nik koadernoak emateko esan diot, eta hark ezetz, berarekin joan behar dudala eta koadernoak berak behar duela. Bietako batek egongelara begiratu du, koadroa zegoen lekura eta, koadroa ikusita, birao itsusi bat bota dio aitonari. Noski, lapurrak tontoak dira eta ez dute, seguruenik, arteaz deus ere jakingo. Gero, aitona eraman egin dute eta orain ni, emakume ezezagun baten etxean nago. Hona ekarri naute, egia esan ez dakit zergatik. Deklaratu edo horrelako zeozer egin behar omen dut, baina zer da hori? Eta ni? Zergatik ez nago aitonarekin? Nora eraman dute? Ez dut ulertzen. Zer egin behar dut etxe ezezagun honetan nik bakarrik? Ez zait ezer gertatuko, ez da? Eta aitona, zergatik eraman dute? Ez zaio ezer txarrik gertatuko, ez da?

1997ko urriaren 15ean

Kartzelatik nator, aitona bisitatzen izan naiz eta lehen aldiz, aurrez aurre egon gara. Ez da mesfidantzazko begiradarik egon, ez eta hitzik ere, baina bai hitzen beharrik gabe dena adierazten zuten begien isiltasunean, malko bakarria masailean behera, agur hotz eta malenkoniatsuarekin nahasirik. Urte hauen guztien ostean orriok berrirakurtzean, gehien mintzen nauena ez da nirekin egin zuena, barruan kateaturik, aitona gorrotatzea lortu ez dudala behin eta berriro oihukatzen didan ahotsa baizik.

Sei puntako izarra

Maddi Garmendia Irizar
Alkartasuna lizeoa
Beasain

– Franz, maitea. Gaurko hartu dizut txanda Levi doktoarearen kontsultarako.

– Baina...

– Ez dago bainarik, Franz. Zuk ere badakizu eta inork baino hobeto jakin ere, aspaldion ez zarela bezpera gaueko afariaz oroitzeko ere gai. Onartu beharko zenuke neuronak ere zahartzen ari zaizkizula, eta sendagileren batek ikusi beharko zintuzke zer gertatzen zaizun jakin dezagun. –hau guztia arnasarik hartu gabe bota zion aurpegi-
ra emazteak Franz. Eta bera mutu geratu zen, hormetan zintzilik zeuden koadroetan pausatuz begirada. Renoir bat, Claude Moneten “Emakumea eguzkitan”. Ederrak ziren benetan eta, hainbat alditan bezala, inpresionismoaren garbitasuna miretsi zuen. Marie gogorregia izan zen gauzak honela esatean, inongo jira-birarik gabe, zuzenean. Baina Franzek ere bazekien Mariek ez zuela beste modurik gauzak esateko, ez behintzat berarekin ez-kondukta zeramatzan azken berrogeita bat urteetan.

Begietara begiratu zion momentutik jakin zuen Mariek ez zuela amore emango eta alferrikako lana egingo zuela berarekin eztabaidatzen hasiz gero; beraz, burumakur,

egongelatik alde egin zuen. Luzea egin zitzaion egongelatik sukalderrainoko bidea, amaigabea, eta bitartean bakar-dadea sentitu zuen. Barrenak jaten zizkion, bihotza ilundu, inor izango ez balitz bezala sentitu zen une haietako bakardade gordinaren konpainiarekin. Eta Franzi beldurra eman zion honek, bakarrik gelditzeak, aldamenean bere arazoak entzuteko inor ez izateak, anonimatoaren pean hiltzeak. Sukaldera heldu zenerako apur bat zorabiatzen hasia zegoen eta egurrezko armairutik edalontzi bat hartu eta urez bete zuen. Hotza zegoen, eta eztarritik behera jaisten zen esku izoztua iruditu zitzaion. Edaten jarraitu zuen edalontzia hustu arte, eta apur bat hobeto sentitu zen. Orain ez zuen lehengo bakardadearen sentimendu garratzaren zaporea ahoan. Baina hala ere Marie zuzen zegoela onartu behar izan zuen; bere gomendioari jaramon egingo zion: arratsaldean psikologoarengana joango zen, solasaldi motz bat egin eta ondoren etxera itzuli, emaztea pozik uzteko bakarrik balioko bazuen ere.

“Eguneko menua: haragi zopa eta arkumea erreta. Fruta edo izozkia aukeran. Ardoa eta ogia. Guztira \$13” irakurtzen du Franzek. Kaleko baldosak begiratzen ditu orain. Zikinak daude, autoen kea, ibiltarien oinetakoak eta haurren txikleak erantsita. Noizbehinka gorantz ere begiratzen du, eraikuntza itzel haiek non amaituko ote diren galdetuz, eta hiriko zerua ia guztiz estaltzen duten eraikuntzok, zoluko baldosak bezala, zikinak daudela ohartzen da. Ia dena zikina dela bizitza honetan pentsarazi diote gauzok, baina horretan dabilela ia aurretik eraman duen taxi horikoari “zerri zikina” oihukatzekeo grina sentitu du bat-batean.

Psikologoak emazteari bisitan joatean emandako tarjetak erakusten duen helbidearen atzean, adreilu laranja

ilunezko azala eta atean hesi antzeko burdin landuzko sarea duen eraikuntza ikaragarri handia. Ez da guztiz itsusia, hirurogeita hamargarreneko arkitektura mode-
moaren eredu garbia; leiho txiki estu ugari ditu, baina hala eta guztiz ere espetxe baten antza hartzen dio Fran-
zek. “Leku aproposa psikologo baten kontsulta jartzeko”
dio berekiko hirurogeita lau urteko gizon ile-urdinak.
Txirrina jotzeko igo behar diren marmol zurizko bi es-
kailerak astiro igo eta betaurrekoen atzetik begirada
zorrozten du, hamairugarren pisuko hizkiak irakurtzea-
rren. Topatu du bila zebilen hura eta, sakatu ondoren,
ahots metalikoz erantzuten dio bozgorailuak eta azke-
nean atea irekitzen. Bi igogailu daude. Franz eskuineko-
an sartzen da. Hamairugarren zenbakia duen botoia saka-
tu eta eskuak poltsikoetan sartzen ditu, urduri dagoen
guztietan egiten duen bezala. Orain ere ez dago lasai ale-
maniarra, izerdi hotzak eskuak bustitzen dizkio eta listu
lodia ere irensteko zailegia iruditu zaio, altzairuzko kabi-
naren atea ireki eta aurrez aurre dagoen gizon gazte ba-
tekin topatzen denean.

– Franz Schwalenberg, ez da? Sartu lasai. –eta hone-
kin batera eskua eskaintzen dio.

Pasillo estu baten amaieraraino gidatzen du gazteak,
gela argitsu bateraino eta bidean hormetan zintzilik dau-
den koadro klasikoen kopia bakoitza begiratzen du une
batez; Gernika, Van Goghen logela, Meninak. Gioconda
bere irrifar malenkoniatsuarekin. Luzea iruditu zaio pa-
sabidea, gela zabalerraino heldu diren arte. Bertan amai-
tzen da oinetakoen oihartzunak handitzen zituen egurrez-
ko zolua, gelako lurra alfonbra magenta batek estaltzen
baitu. Ertz batean fikus erraldoi batek eman dezakeen
itxura pertsonalaz, beharbada naturalaz ohartzen da. Iro-

niazko irribarre bat ezpaineratzen zaio, alfonbra sintetikoek eta plastikozko janariak menperatzen duten zibilizazioan fikusaren irudi “naturala” azaldu nahi duen psikogoarengatik. Bezeroen nerbioak lasaitzeko zehar-estrategia ere izan daitekeela irudi natural hau, apika, pentsatzen du, baina segituan aldegiten diote ideioak burutik. Miradore handiaren magalean ikus daitekeen hiri amaigabeak Franzen arreta desbideratzen du. Orain liluraturik begiratzen ditu berun koloreko laino handiak, eraikuntzen teilatuetako atikoak, baina ez inondik inora ere bere Alemania zaharreko mendi elurtuak. “Schwabenberg, Franz. Hirurogeita lau urte; ezkondua; Callington Street 142”. Ordena honetan erantzuten die sendagilearen galderei. Zertarako jakin behar ote duen ezkondua dagoen ala ez buraraten zaio Franzi, baina orain bi urte egindako urdaileko ebaketaren ondoren, sendagileen galdera bitxiei erantzun egin behar zaiela ikasi zuen; nahiz eta sarritan, ia beti, gaixotasunarekin zerikusi izpirik ere izan ez.

– Ea bada, esaidazu, zerk bultzatu zaitu hona etortzera? Zure kezkek azaltzeko gogoak? –begietara zuzen-zuzen begiratzen dio aitonari. Eskuak magalean pausatu ditu eskuineko hanka ezkerrekoaren gainean ezarri ondoren.

– Ezerk ere ez. Guztia emaztearen nahia egiteagatik da. Badakizu nolakoak diren emakumeak –dio ahots sendoz– beti besteez arduratzen, baina ez beren buruaz.

– Beraz, zu ez zatoz hona zeure gogoz? –harriturik begiratzen dio Franzi, inoiz inork horrelakorik esan ez balio bezala.

– Ez, jauna.

– Beno, hala ere, ordua aurretik hartuta zenuenez eta berdin-berdin kobratuko dizudanez –asperen luze bat egiten du eta ondoren arnasa berriro hartu– nahi izanez gero zerbait konta diezadakezu zeure haurtzaroaz, edo gaztaroaz beharbada. Edo bestela –berriro begietara begiratzuz, urduriago jartzen du Franz– taxi bati deitu eta etxera joan zaitezke.

Hau esan ondoren, altxatu eta sasilarruzko dibanaren inguruan dabil psikologoa, noizbehinka burua jaso eta sabaiko lanpara merkeetan pausatuz begirada. Eta bitartean Franzek etzanda jarraitzen du, deseroso, ezezagun bati bere bizitza kontatzeagatik ere ordaindu egin behar-ko duelako. Azkenean onartzen du, ez du gaztearen begirada hotza berriz beregan sentitu nahi, beldurtu egiten du, zergatik ez dakien arren. Dagoen bezala egonda bere sekretuak kontatzeak izutu ere egiten duelako apika, oroitzapenak burura ekartzen saiatzen da. “Gaztaro-koak?” galdetzen du ahots mehez, eta Levik buruarekin baietz adierazten dio, poliki-poliki gora eta behera mugitzen duenean.

Hogeita zazpi urte, Bigarren Mundu Gerrak eztanda egiten du eta bera, mahoiezko traje berde iluna soinean eta metralleta astuna eskuan, oinez doa Wuzburgeko kale elurtuetan barrena. Azaro amaierako hotz gordinak berriro ere aurpegian jotzen duela nabari dezake, eta ilaran beste berrogeita bederatzi soldadurekin sinkronizatuta, gaueko eraso kupidagabeeteko batean topatzen du bere burua.

– Gaztaroa –errepikatzen du Franzek, baina oraingoan ahots negartia irten zaio eztarri barrenetik. Kanpora ateratzeko zorian dauden anpuluak nabari ditzake begie-

tan, baina hauek ez dira bere masaila lodikoteetan irris-tatzera iritsiko. Zeren Franzek ondo baino hobeto ikasi baitzuen aspaldian bere burua kontrolatzen, egoera edozein izanda ere.

Burura etorri zaion eszena deskribatzen dio aurrean duenari, baina orain ohartu da ez dakiela honen izena ere, baina “Behin ikusteko zertarako jakin nahi diat izena?” pentsatzen du. Eta modu pausatuan, hitz bakoitza esatea gehiegizko lana izango balitz bezala hitz egiten hasten da; astiro, oso astiro.

“Gaztea nintzen, baina oraindik ondo oroit naiteke gerraren gogorkeriaz. Aarenbok kapitaina genuen buru. Hamairugarren eskuadroian nengoen orduan”. Asko kostatzen zaio mintzatzea, eta arnasa sakon hartuz jarraitzen du hizketan “Ankerra zen. Bai, horixe da hitza, ankerra. Aarenbokek hiltzea zuen gogoko, etsaiak edo beste edozein; odola, odola behar zuen egunero aurrera jarraitzeko. Horregatik iritsi zen jeneral izatera. Ez zuen inor hiltzeko eskrupulorik, eta guk ere hori ikas genezan nahi zuen. Eta aitortu behar dut, batzuetan nik ere eskrupulorik gabe sakatzen nuen gatilloa, tirokatzen nuen gorputza nola okertzen zen ikustean... Disfrutatuz.” Begiak ixten ditu. Min eman dio hau aitortu beharrak, aspaldi ahaztutzat jo zituen sentimenduak azaleratu beharrak; izan zen bezalakoa izan zela onartu beharrak mintzen du Franz. Bitartean, psikologoak alde batetik bestera paseatzen jarraitzen du, eskuak bizkarrean gurutzatuta, hormetara begira. Badirudi alemaniarraren sentimenduak berak ere nabaritu nahi dituela. “Askotan ikusten genuen kapitaina gaueko ordu txikietan itzultzen kanpamendura, eskuak eta galoiak ere odolez tindatuak zituela, ezpainetan ondo asetu arte afaldu duenak eraman ohi duen irrifar zabala-

rekin. Ese bikoitzaren izenpean odol gehiegi isuri zuen errugabeen gorputzetatik, gozamenean gozatu ere. Ni ez ninduen oso gogoko. Bi hilabete bakarrik pasa nituen bere agindupean, –isilune motz bat–... gas gelara bidali ninduen. Hasieran idazkari lanak egiten nituen, telefonoari erantzun eta hori guztia, baina plantilla gutxitu egin behar izan zutenean, exekuzioen buru jarri ninduten. Eta nik, eta nik... –ez zaizkio hitzak irteten, baina bihotzarekin ari da mintzatzen, ez mihiarekin– eta nik eragiten nion gasaren palankari judutarren aurka. Hilero dutxatzen genituen kontzentrazio zelaietan, gaixo zeude-nak edota gosez hil ez zirenak behintzat. Egoera negar-garria izaten zuten, hezur hutsetan azala eskeletoari itsa-tsirik, begiak betzuloetatik irten beharrean begiratzen ziguten. Biluzik, ur hotzeko txorrotaz bustitzen genuen haietako bakoitza, banaka-banaka, hogeiak. Baina aldian behin koronelaren deiak jasotzen genituen, nolako naz-kagarriak ziren judutarrak, mundua zikindu besterik egi-ten ez zutenez, bertan akabatzeko eskatuz. Eta guk, an-tzerako geletan sartarazten genituen, biluztu eta baldosa zurien aurka jartzen ziren bizkar emanetz, ur txorrota noiz irtengo itxaroten. Baina ez zen ur txorrotik aterako. Palankari eragiten nionean gasa ateratzen zen sabaitik eta... O, Jainkoa! –une batez begiak estaltzen ditu eskue-kin, berriro eszenok ikusten arituko bailitzan “Aurrera, jarraitu, arren” batekin istorioa amai dezan gonbidatzen du gazteak eta baso bat ur eskaintzen. Franzek esku dar-dartiekin heldu eta trago batez husten du.

“Kristal lodiz estalitako leihatila txikitxo batetik be-giratzen genien, eta guztia bost minutu baino lehen amaitzen zen. Eztulak, oihuak, malkoak. Baina ezin nion palankari jaregin, ezin nion! Minez, baina bizitzeko go-

goz okertzen ziren gorputz mehar haiek, behin eta berriro; indarrak agortu arte mugitzen ziren. Orduan, lurrera erori eta bertan hartzen zuten azken hatsa”. Franzen bihotza zama astun batez libratu da eta arinago mugitzen zaio bularraren ezker aldean. Eskuetako izerdi hotza algodoizko galtza urdin ilunetan lehortzen du. “Zerraldoak banaka-banaka ateratzen genituen gelatik. Eskumutur eta txorkatiletatik helduta, kanpoan zeuden kamioietan pilatu, zakuak bezala, zaborra bailitzan”. Asperen luze bat egiten du, eskuineko eskua buruko ile urdin bakanen artetik pasa eta lurrari so egiten dio. “Hogeita zortzi urte bete eta aste pare bat beranduago, apirilaren hamarrean, Estatu Batuetarantz zetorren garraio untzi batean sartu nintzen emaztearekin, guztia atzean uzteko desioaz, itxaropenaz”. Isilune luze bat jabetzen da gelaz eta bien arnasotsak entzun daitezke soilik. Segundoak honela di-raute azkenik ahots ozen, seguruak, isiltasuna hausten duen arte.

– Ondo, Schwalenberg jauna. Hobeto sentitzen al zara orain? –buruarekin baiezkoa erantzuten du, mantso-ki, Franzek– Inoiz inori kontatu al diozu? –oraingoan ere buruarekin, baina ezezkoa adierazten du etzanda dagoen lekutik. Psikologoa dibanaren alboan dagoen egurrezko aulki batean esertzen da mugimendu azkar neurtuz, eta berriro ere hainbat alditan bezala Franz urduritzen duen begirada sakonaz egiten dio so alemaniarrari. – Zer pentsatzen duzu orain judutarrez?

Galdera airean geratzen da une batez, bietariko inork egin ez balu bezala, urruneko haize finak ekarri izan balu bezala “Ez dut ezer aldeko ez kontrako orain, jauna. Duela urte asko aldegin nuen handik, berriro inoiz ez itzultzeko asmotan, egin genuen sarraskitik aldentzeko.

Gaur egun ez dut sentitzen ezer beren aurka, erruki sakon bat baizik, egin genuena egin genuelako”.

– Ulertzen dut –psikologoak alkandora zuriaren lehen hiru botoiak askatzen ditu eta bularraldean eskua sarturik duela, zerbaiten bila dabil. Topatu du azkenean, eta emeki-emeki Franzek ikus dezakeen moduan kanporatzen du zilarrezko katetxo bat, zintzilik sei puntako izar bat duela, zilarrezkoa hau ere. Franzek une labur batez begiratzeko dio izarrari, eta ondoren psikologoari “Zer arraiotarako atera duzu hau?” galdetzen dion begirada zuzentzen dio.

– Ikusten duzu, Schwalenberg jauna, ni neu ere judutarra naiz, gure aita zena bezala. Ba al dakizu gauza bat, Schwalenberg jauna? –gorrotoa ikus daiteke begi beltz haietan, eta Franzengana hurbiltzen da poliki-poliki– Gure aita zena ere Wurzburgen egon zen, gas gela batean akabatu zenuten arte.

Odola

Unai Villena Camarero
B. Ezenarro institutua
Elgoibar

Egongela txiki batean emakumea seme jaioberriari bularra ematen ari zaio. Bere adats argi eta luzeak bien aurpegiak eta umetxoaren gorputz osoa estaltzen baditu ere, erstasun distirak barreiatzen ditu egongela osoan. Besaulki txiki baten gainean dago eserita; altxatu egin da eta neskatxa bat dela laga du agerian. Demagun Maider deitzen dela, 16 urte izan ditzake, 17 apika, eta ederra da oso, baina triste dago, eta ez aspaldian guztiek puta bat dela esaten dutelako, puta bihurtu duen 40 urteko gizon hori berarekin ez dagoelako baizik. Eta bakarrik sentitzen da, bakardaderik miserableenean, bakarrik.

Seme jaioberriaren aita aspaldidanik ez du ikusi, familiakideak aspaldiagotik. Haurdun gelditu eta umea edukitzeko erabakia hartu zuenean, etxetik alde egin beharrean aurkitu zuen bere burua, 40 urteko negozio-gizonak lortu zion pisu triste honetara joaz. Maitasuna jolas gisa hasi bazen ere, haurdunaldiak zapuztu zion guztia, bere amets, asmo eta grinak deuseztu. Orain apenas duen lekurik bere bakardadeak etxeko egongela txikian.

Jendeak dioena sinestera iritsia da, izan ere, bere bitzitan dena da txiki, zentzugabe eta iheskor, zabaltsu eta

ilun... Leiho estutik printza dardartiek argiz hornitzen dute egongela, baina neska, lau paretez kanpo datorren edozerekin kontaktua saihesten saiatzen den eran, muzin egiten die argi tantei. Begi urdinen irisak, gris biltzen dira, bakardade itsasoan nabigatzeari ekinez, eta lehen begiratuan ematen duen gaztetasun itxura hori desager-tuz doa bere ahidura imintzioari erreparatzean.

Azkenaldian bakarrik dago ia beti, Patxi (hala deitzen da bere maitea) ezkondata dagoelako eta umeaz erdi ze-netik berarekin ahaztuta dagoela dirudielako. Berak hori ulertu eta errespetatzen du, ez dizkio izarrak eta ilargia eskatzen. Ez, maitasun apur bat besterik ez du exijitzen; sentimenduak, arima eta izate osoa gizon horri eman iza-nagatik, berak ere, trukean bere bihotz zati bat eskain diezaion edota, besterik ez bada, denbora apur bat opari-tu diezaion: denbora apur bat oparitu. Deituko balio siki-ra... Egunak telefono ondoan ematen ditu, dei bat noiz jasoko zain, baina ez deirik eta ez ezer, isiltasun lohi eta astuna baino ez gehienetan, bere arnasots etsiak eta gose den umearen negarrak noizbehinka.

RRRRIIIIIIINNGGG!

Telefonoaren hotsak zirrara sentiarazi dio neskatxari, eta bigarren aldiz errepika dadin itxaron gabe, jauzi batez utzi du besaulkia. Ez da konturatu jauziaren eraginez ume ahula bota duenik, ez eta telefonoa hartu baino apur bat lehenago beronen soinua itzali denik ere. “Nor da?” gal-detzeaz bat hedatu da gelan kolpe hotzaren hotsa. Ez du inork erantzun. Lur jota, telefonoa eskegi dio ziurrenik deitzean erratu den ezezagunaren deiari. Hasierako erre-akzioa ez da ezer izan umea lurrean, kazkezurra hautsirik, odola dariola ikustean izan duenarekin konparatuz.

– “Odola!!!!” – burmuin nahastuak oihukatzea ahalbidetu dion hitz bakarra. Negarrez hasi da.

* * *

Gaurkoan goiz oheratu dira Patxi eta emaztea. Ohi bezala, berehala loak hartu du Patxi eta emaztea gogoak kafetxo batean bustitzera abiatu da sukaldera. Gaur ere ez dute larrurik joko, aspaldidanik ohitura bihurtzen ari den moduan. Emakumeak sukaldeko argia pizteaz bat, hozkailuko ate distiratsuan bere gorputzaren isla bihurritua ikusi du, izuturik. Aulki batean eseri eta, kafegailua piztu ondoren itxoiten ari dela, eskuan duen kristalezko basoari behin eta berriz bira eta bira, pentsakor dago.

Bere aurpegi beti inkonformistan kexuzko keinua marraztu da. Bularretara begirada zuzenduz, titi gotor eta guriak ia agerian uzten dizkion satenezko kamisoiaren tira bat jaitsi du, titiburu bat agerian utzi arte. “Ez nago batere gaizki” esan dio bere buruari eta gizon askok desiatzen dutela otu zaio. Ileapaintzaileak bularretakoa bistan lagatzen dion blusaren tarteetatik bularrak begiradaz laztandu dizkionekoa eta zapata saltzaileak oinetakoak erantzten laguntzean gonapetik hankatartera begiratu dionekoa gogoraratu zaizkio. Horregatik, ez du bere senarraren diru gehiagorik xahutuko beste “lifting” bat egiten, gehiagoren beharrik ez duela deliberatu baitu, eder askoa dagoelako. Ileapaintzailea homosexuala eta zapataria hipermetropea direla jakin ez arren, gizon guztiek desio dutela uste duelako. Jakin dakiena da bere oheki-deak aspalditik ez diola kasu zipitzik egiten. Harrigarria iruditzen zaio, behar sexualak besteren batekin asetzen dituen susmoak hartzen hasia da: bilera amaigabeak, as-

teburuetan ere lanez lepo ibiltzea... Gaztetako pasarte sutsuak gomutatzeari ekitean, grina berezi batek alaitu dizkio begiak. Zerbait egin beharko du senarraren arreta galdua berreskuratuko badu.

Tupustean kafegailua itzali eta armairu batean ezkutatzen duen brandy botilaz erdibete du basoa. Zurrut batez hustu du, bere barneko beroa arindu ordez, gehiago bizituko diola badakielako; kafeak iziotu ezin ditzakeen zentzuak esnarazten baititu brandy gozoak. Berak ere, momentu honetan Patxi esnaraziko luke eta barnean daraman su hori eskainiko lioke, har dezala erregutu, behingoz berriro bere bihur dezan, barnetik kiskaltzen duen sentimendua itzal diezaion. Oraingoan goraino bete du basoa, dzangada urduri batez hustuz; begiak indarrez itxi eta garraztasun keinua egin du. Ondoren, botila bere lekuan gordetzea, sukaldetik irtetea eta argia itzaltzea, dena bat izan da. Pasabidean kamisoia erantzi eta lurrera erortzen laga du satenezko janzki labainkorra, kuleroak soilik soinean dituela, logelarantz abiatu da pausoa erabat azkartuz, ia korrika. Mugimenduak haragi guztiak dantzarazten dizkio, bularrak, ipurdia eta izter koipeitsuak batez ere...

...isilpeka sartu da gelan emakumezkoa eta harriduraz bete, gaurkoan Patxi ez delako zurrungaka ari. Logela handiaren erdi-erdian nabaritzen den ohean goranzka dagoen gizona ikus dezake hari so dagoen emakume erneak. Hala gelditu da, eszena miretsiz, zer eta nola egin dezakeen asmatuz, pozik, pasio zaharrak berpizteko gertu...

...Patxiren ametsetan lauso artean marrazten da bere fantasia sexualak gauzatu dituen 16 urteko neskatxa. Haurdun gelditu eta umea edukitzea erabaki zuenetik, ez

dute apenas elkar ikusi. Beraien artean antigoalean suzko pasio zena gaur sugar indarge bildu den arren, askotan egiten du berarekin amets. Biluzik ageri zaio eta guztiz eskaini: ditiak leunki igurtzi ondoren, bortizki miazkatzzen dizkio erritmo biziz, alura ere badaramatza bere eskuak neskak zakila bere ahora bideratu aurretik. Plazerzko hasperen itoak besterik ez dira entzuten...

...gelan ere gizonaren hasperenak hedatuz doaz. Tenteturiko zakilak izara bultzatuz sorturiko konkorra ageria da gelako paisaia harmoniatsu lauan. Hasperenek emakumea bere gomuta alaietatik aldendu dute, izarako konkorra ikustean honen harridura areagotuz. “Barrabas halakoa, puta zikin horietariko batekin pentsatzen arituko da oraingoan ere” –pentsatu du, jakinminez eszena adiadi jarraitzen duela...

...gizonaren ametsa aurrera doala, bere hasperenak ere ugarituz doaz. Neskatzak ahoan darabil oraindik bere zakila eta behin eta berriz miazkatzen dio: behetik goraino, poliki, zentimetro guzti-guztiak, zakilburuan mingainaz espiralak marraztu eta azkenik osorik irensteko, jostalari, umeez udan izozkiak milikatzen dituzten eran, baina intentzioz, gozamenez, lizunkeriaz. Izara artean, irudimenak sorturiko zoramenean itota, gizonak eguzkitara dagoen izozkia bailitzan urtzen ari dela nabari dezake; neskaren kontaktuak sorturiko umeltasun beroaz urtzen, neskari darion gaztetasun usainez... Itsumustuan, ia adiezin gertatu den izen bat ahoskatu du...

...emakumeak erne-erne ikusi du guztia, baina ezin izan du izena deszifratu...

...berriz ere, oraingoan entzungarri: “Maidar! Maidar!” ...

...emakumezkoak hasierako susmoa baieztatu du: “puta zikin horietako batekin pentsatzen ari da!” Odola jelatu zaio zainetan, irrikak gorroto bildu dira, amorruek barnean eztanda egin eta birritan pentsatu gabe, gizonaren gorputz biluzia biltzen duen izara zakarki jaso eta horzka egin dio zakil tentean, zakur amorratuak legez. Horzkada hain izan da bortitza, ezen gizonaren zakilburua ahoan gelditu zaio zoraturiko emakumeari. Musutik odola dariola, ehun eta mintz ikustezinak ohe gainean, tanta likitsuen eran ihaurritzen ditu...

...hasperenak bat-batean amaitu dira. Emakumea zertxobait goibeldu da horrenbeste odol ikustean, baina ez du barretxoa ezpainetatik aldendu...

...gizonak, berriz, begiak ireki dituenean, berriro itxi behar izan ditu indarraren indarrez, kordea galtzen ari dela nabaritzuz. “ODOLA!!!” – garrasi eginez, ziplo erori da ohe bigunaren gainera.

Txantxangorriaren kantua

Maddi Garmendia Irizar
Alkartasuna lizeoa
Beasain

Elizako atea poliki-poliki irekitzen da eta eguerdiko eguzki indartsuaren izpiek barreneko iluntasuna mozten dute, aiztoak bailiran. Alderik alde zabalik badago ere, ez da inor ageri; azkenik, pauso makalez hurbiltzen den irudi luzanga bat ikustatzera iristen da apaiza. Barnera sartzen da. Burutik hanketaraino iristen zaion abitua darama soinean eta, une horretantxe, serora bat dela ohar-tzen da.

Bekokitik tantanka irristatzen doakion izerdia lehortzen du eskuaz, begirada zorrozteko asmotan; jakinmina asetu nahi du. Kontrargitan ikusten du ordea, eta pulpitudetik zaila zaio urrunean dagoen pertsona ezagutzea. “Amen” batekin amaitzen ditu eguerdiko otoitzak eta gaztainondo ilunezko eskailerak jaisten ditu arin, sotanaren beheko zatia esku artean duela estropezu egin ez dezan. Hogeita hamairu botoietatik goiko bostak irekita daramatza, eztarri izerditsua agerian utziz. Abuztuko egun sargoriari zor dio aurpegiko kolore gorri bizia, nahiz eta eliza nahiko leku freskoa den. Bero izugarria ematen dio soinean daraman gona beltzak.

– Egun on Jainkoak –esaten dio bisitariari.

– Egun berorri, apaiz jauna –erantzuten dio emakume ahots batek.

Bat-batean konturatzen da zeinen ezaguna zaion ahotsa. Arnasa lehen baino estuago hartzen du orain, eta oker dagoela pentsatu nahi du, ezin izan daitekeela Sor Teresa. Baina bihotzaren taupaden erritmoa bizkortzen ari zaiola ohartzen da, ezetz, zuzen dabilela, buruak beste zerbait pentsatu nahi baldin badu ere.

– Zeri zor diot gaurko bisita? –galdetzen du ozen, eta era berean galdera ez egin izana desiatzen du bizikiro. Erantzuna badakien arren, galdetzera behartuta sentitzen du bere burua. Moja ia ez da atetik mugitu ere egin.

– Zera... –ahots mehea irteten zaio eztarritik... begira, apaiz jauna, konfesatu nahiko nuke –hau esan ondoren lasaitasuna nabari zaio gorputzean. Jada ez da pulpitotik ikusten zuen estatua beltz mugikaitza, orain arnasa hartzen duela nabari zaio, bizi dela alegia.

Apaizaren bihotzak eztarritik kanpora irteteko adinako saltoa ematen dio bular barnean. Ez zuen besterik espero, bazekien gaur ez bazen bihar edo etzi etorriko zela konfesatzera. Aireak birikak guztiz bete arte itxaroten du hizketan jarraitu aurretik. Sustoak sortu dion karkaxa garbitzen du eztul txiki bat eginez.

– Ongi.

Ez zaio ezer gehiago bururatzen. Blokeatuta dauzka gainerako ideia guztiak eta buruan emakumearen aurpegia besterik ez du ikusten. Amabirjina bat dirudi, irudi intimo honetan. Mojak bere pausoak konfesategira zuzentzen ditu, ez sartu denean baino abiadura handiagoan.

Buramakur ibiltzen da, amona zahar baten gisa, hogeita hiru urte besterik ez dituen arren.

Konfesategira joan aurretik, sotanaren botoiak goraino ixten ditu. Kostata egiten du; izan ere eskuak izerdiz blai eginda ditu eta plastikozko botoi beltzak behin eta berriro irristatzen zaizkio zuloan sartu aurretik. Bostak lotu dituenan konfesategiko atea irekitzen du dardarka. Ez du barnera sartu nahi, baina bere betebeharra da. Ez dauka irtenbiderik.

Dagoeneko aldamenean belauniko dago emakumea, itxaroten. Errosario bat dauka zintzilik esku artean. Hasi aurretik “Gurutze Santuaren” bat egiten du. Isiltasun luze baten ondoren:

– On Luis... –hasten da– On Luis, bekatu egin dut.

On Luisek badaki horren berri besteak bezain ondo, baina mutu jarraitzen du.

– Jainkoaren hitza apurtu dut eta bekatu egin dut... gizon batekin –ia negarrez dago– badakit gaizki jokatu dudala, eta okerrena da...

– Zer da okerrena, Sor Teresa? –beldurra nabari zaio ahotsean.

– ...okerrena da, bada, zera... Bada, haurdun nagoela, jauna –azken hitz hau amaitu aurretik anpulu gaziak irristatzen zaizkio masailetan behera. Negar zotinka hasten da, airea faltako balitzaio bezala.

Ez dauka bekatu norekin egin duen galdetu beharrik. Teresak bezain ondo gogoratzen du maiatzeko gau ilun hura, lasto artean zirrika, jolasean. Ez zuen hotzik egiten, ez, eta egiten bazuen ere, ez zen ohartu. Buruan dau-

ka emakumearen irudi biluzia berearekin nahasten, bien itzalek bat egiten zutela ilargi betearen argitan.

Ez da hotsik entzuten eliza osoan, negar eztulak eta apaizaren arnasa beste ezer. Burutik hanketaraino zeharkatzen duen hotzikara nabari du eta urdaila korapilo gogor eta handi bat bihurtu zaio; eztarria lehor-lehorra dauka. Ez du entzun duena sinetsi nahi.

– Haurdun? –esaten du ozenki; buruan bueltaka dabilkion gauza bakarra da. “Haurdun, haurdun, haurdun...” errepikatzen dio barreneko norbaitek. Jainkoa izan daitezkeela pentsatze hutsak ileak tente jartzen dizkio.

– Bai, On Luis, haurdun.

Zulotxoan artetik anderearen aurpegia bi eskuen artean ezkututzen dela ikusten du; lotsa izugarria sentitzen du. Apaiz batek emakume bat haurdun uztea nahikoa litzateke edonor lotsarazteko, baina moja izateak oraindik ere gehiago larritzen du kontua. Buruko ile gorri kizkurra kopetari itsasten zaio izerdiaren izerdiz.

– Eta zer egiteko asmoa duzu, Sor Teresa? –”Teresita kuttuna” esaten zion gau hartan, besoarekin gerria inguratzen zion bitartean, “Ene Teresita kuttuna”. Baina une honetan “Teresita kuttuna” deitu ziola pentsatze soilak zorabio antzeko zerbait eragiten dio.

– Ez dakit, jauna. Horregatik natorkizu konfesatzera, eta bide batez aholku bila. Apika, gu biok –eten bat egiten du arnasa hartzeko– ...gu biok batera bizitzen jar gitezkeela pentsatua nuen.

– Gu biok batera bizitzen jarri? Non, herrian? Erotu egin al zara, Teresa?

Negarrak oraindik ere ozenago bihurtarazi ditu irtenaldi honek. On Luisek hasperen luze bat egin beharrean topatzen du bere burua.

– Maite ninduzula uste nuen. Hala esan zenidan gau hartan behintzat. –errosarioa horren estu korapilatuta jarraitzen du, ezen anderearen behatzek arrosa koloretik baino dexente hurbilago daude orain urdin-moretik.

– Bai, baina... –ez zuen halakorik espero apaizak.

– Gezurra zen, beraz? –mozten dio ia oihuka. On Luisek ahaztuta zituen hitz hauek. Konpromiso hutsa ziren, ez besterik, eta eskemak guztiz nahastu dizkiote.

– Ez, ez... Ez zen gezurra, baina...

– Baina?

Isilune laburra.

– ...baina ezin dut zurekin bizitzera aldegin, Teresa.

Gainetik zama astun bat kendu izan balu bezalako asketasuna sentitzen du bihotzean. Isilean negarrez jarraitzen duela nabaritzen du, baina berak ezin du ezer egin, ezin du serora haurdun batekin aldegin. Bere bokazioari gogor eutsi behar dio. Desafioz mintzo zaio oraingoan.

– Zer egin behar dugu?

– Nola “dugu”? Mesedez, Teresa, ez itzazu nahastu gauzak. Nik ezin zaitut lagundu, zure arazoa da, eta ez gu biona.

– Haurra biona da, ordea –esaten du albotik. Malkoak amaitu dira, musua mila lerrotan banatu ondoren. Begirada jaso eta zuzenean so egiten dio apaizari– Ez al zaitu

lotsatzen Jainkoaren fruitua ukatzeak? Azken finean, Adan eta Eba buztinezkoak egin bazituen ere, gainerakook ez gara modu horretan etorri mundura.

– Ez, hori badakit.

– Beraz, zer egitea proposatzen duzu?

– Komentutik joan zintezke –orain On Luis dago burumakur.

Dagoen lekuan jarraitzen du segundo batzuetan eta, azkenik, “Amen” esanez zutitzen da Teresa. “Gurutze Santuaren” egin eta atera zuzentzen ditu pausoak. Atzean uzten du ohorea galarazi dion apaiz ilegorria.

* * *

Herri txikia da La Renueva. Fiat urdin zaharra plaza-
ren ertz batean aparkatuta uzten duen bitartean, hamar
urte luzetan ia aldatu barik jarraitzen duela somatzen du;
beti bezain bero, beti bezain isila da.

Atzeko eserlekuan utzi duen poltsan sartzen ditu au-
toko giltzak eta karteraren bila hasten da. Aurkitu due-
nean, hainbat argazkiren artetik bat ateratzen du. Haur
ilegorri bat dago, irrifartsu, futboleko baloi bat eskuan
duela. Bere atzean, gizon bizardun altu bat, eta honen al-
boan bera, Teresa.

Ezkon-bidaian Canariasen egindako argazkia da. Beti
eramaten du karteran, polita iruditzen zaio, hirurak bel-
tzaranak eta pozik daudelako, eta gainera familia bat
duela erakusten diolako. Familia bat.

Komentutik aldegin ondoren Zaragozara joan zen,
irakasle. Abituak plastikozko poltsa batean sartu eta za-

karrontzira bota zituen. “Fedea? Ez, aspaldi galdu nuen nik Elizarekiko fedea.” esaten du ordudanik. Paco haurra eduki eta bost hilabetera ezagutu zuen. Elkarrekin ibili eta, hiru urte beranduago, ezkontzea erabaki zuten. Daviden ile gorri-gorria da La Renuevako bizitzara lotzen duen gauza bakarra, On Luisen kolore berekoa. On Luis...

Monastegia ikusten du udaletxearen atzean. Beti bezain handia eta zaharra dirudi, harearrizko horma itzelekin. Monastegian bertan haurtzaindegi bat ireki behar zutela irakurri zuen aldizkari batean orain dela zenbait urte, baina ez zuen berri honetaz ezer gehiago entzun. Bisita egiteko asmoz, autotik irteten da. Takoien oihartzuna besterik ez da entzuten plaza osoan. Herria mortu bilakatu da nonbait.

Hogeiren bat metro ibili ondoren, monastegiko paretan ageri den kartela arretaz irakurtzen du; haurtzaindegi bakarrik ikusi nahi du, ez beste ezer. Jakinmina areagotzen zaiola sentitzen du, arnasa estutzen zaion erritmo berean. Blusa zuriaren kuelloa ondo ipini eta aurrean daukan atea indarka zabaltzen du. Eskuinetara eta, pasilloaren amaieran, ezkerretara jotzen du, “Jolasgela” jartzten duen atea ireki aurretik. Zalantza izpi batez eusten dio heldulekuari, baina azkenik barrura satzen da.

Hamabosten bat haur ikusten ditu bere aurrean; puzzleekin, baloiekin; taldeka nahiz bakarka ari dira jolasean. Begiratu hutsez bere beldur guztiak egia bihurtu direla konturatzen da eta, atari danbateko bat emanaz, osterera ere bere kotxerantz jotzen du.

Haur gehienak ilegorriak ziren. “Alu alena! Alu alena!” murmurikatzen du, “Beraz, ez nintzen bakarra

izan, ez da On Luis?” Anpulu lodikoteak begietatik behera irristatzen zaizkiola heltzen da Fiateraino. Sarrailan giltza dardartia sartu eta gidariaren eserlekuan esertzen denean, bizitzaren zapore garratza dauka ahoan. Apaizaren arima betiko sutan erretzea erregutzen dio Jesukristori, inoiz gurariak bete ez badizkio ere. Apika, Satanasen hazia erne ez ote duen galdetzen dio Teresak bere buruari kotxea martxan jartzen duen bitartean.

Ametsen bakardadean

Idoia Arruti Errazkin
Lasarteko institutua
Lasarte-Oria

Gauza ororen gaineratik itsasoaren joan-etorri leunak entzuten ziren, olatuak lehertzen. Haizeak hondar ale txikiak, finak, arinak aineratzen zituen. Ilargiak bere ezkutalekutik behatzen zuen dena, eguzkiaren islaren faltan. Izarren distira nabarmena zen; zerua irribarre txiki alaitzen zuten, milaka irribarre txiki munduari bizia ematen, unibertsoari bihotza.

Hartatik asetzen nintzen hura bezalako gauetan; hartatik eta haizeak jira eta buelta, joan-etorrietan zerabil-tzan hondar aleek nire aurpegiaren biluzia jotzen zuten sortzen zitzaidan zirrara berezitik; ez nuen beste ezeren beharrik izaten hura bezalako gauetan; lasai, bakarrik, pentsakor, ameslari egon nahi izaten nuenetan. Gauza ugari zetozkidan burura. Denak uxatzen nituen, ordea, haizearen joan-etorrietan aurpegian jotzen zidaten hondar ale finekin, itsasoaren lo-kantu goxoarekin, izarren biziarekin, olatuen lehertzearekin. Lasaitasunez betetzen zitzaidan bihotza, zuri-zuri geratzen burua, zeharo hilda gorputza, entzumenak bakarrik jarraitzen zidan entzuten, entzuten eta alaitzen, alaitzen eta lasaitzen, lasaitzen eta bakea ematen, bakea eta bizia ematen. Bizia ematen; momentu horretan hila nengoen eta entzumenak

berpizten ninduen, entzumenak eta nire azpian, azalean somatzen nituen hondar aleek, hondar ale eta maskor zatiek.

Nire atzealdean zenbait zuhaitz zeuden, eta noizean behin haizeak zerabiltzan hondar aleak hostoen kontra jotzen somatzen nituen, eta hostoak hostoen kontra, eta adarrak adarren kontra.

Bat-batean, korrika egiteko gogoia sartu zitzaidan, beharra sentitu nuen; berehala, zutitu eta urertzean nintzen, oinak bustiak, hondartzaren mutur baterantz korrika. Ez nintzen nekatzen, benetan berpiztu nintzela zirudien, bitziza berri bat nuen, inork uka ez zekidakeen bizi-poz berri bat. Hondarrak hankak biltzen zizkidan, uraren freskotasunez bustiak zeuden aleak oinpean itsasten zitzizkidan, oinak sentiarazten.

Halako batean, ez bai eta ez ez, geratu egin nintzen eta hondarretan etzan, luze bezain zabal, izarren distirari so, haizearen freskotasuna usainduz, hausnartuz. Oroimenaren irteerarik gabeko labirintoan barrena gal zedin utzi nion neure buruari, garai bateko gertakarien ahanzturaren bide luze eta bihurrietan zehar galdutakoak berreskura zitzan.

Denboraren zentzua ere, gogoeten modura, norabiderik gabe nabari nuen.

Zeru izartuan jarri nuen arreta; gainbehera zetorkidala zirudien, bereganatu egin nahi ninduen, olatuen joan-etorriekin bere egiten ninduen itsasoarekin lehia-kidetzan. Haize urruma gozoak atera ninduen neure baitatik, hausnarketen paradisuatik, edo oroitzapenen infernutik.

Zutitu eta itsasoko ur freskoetan sartu nintzen; uraren gaziak osoki inguratu ninduen, itsasoak oro egin zuen bere; hondar aleak, haizea, izarrak, oroitzapenak... ni.

Esnatu eta begiak zabaldu ditudanean, goiko sabaitik zintzilik ikusi dut hain ezaguna zaidan lanpara. Bista jaitsiz, aurrean daukadan paretan, Parisen marraztu zidaten erretratua. Oroitzapen ugari ekartzen dizkit begira geratzen natzaion guztietan, baina gaurkoan ez dira betiko oroitzapen malenkoniatsuak izan; oroitzapen saminak zetozkidan gaur erretratuari begiratzean. Begirada eskuin aldera zuzendu dudanean, balkoia ikusi dut, alde batean zegoen gortinak bidea utzirik, begirada etxe ondoko in-txaurrondo handirantz zabaldu zait, historik gabeko adar nahaspila korapilotsuan galduz. Balkoiko izotzak jotako hortentsia koloregabetuek zeruaren grisarekin bat egiten dute, eguna goibeldu asmoz. Berriz logelara itzuliz, ezkerretara zuzendu dut begirada oraingoan eta egunero-egunero ikusten dudana armairu zaharra arrotz gertatu zait. Bizitza osoko hainbat eta hainbat eskutitz, liburu, opari, oroigarri jaso eta jasotzen dituen nire armairu zaharra izan arren, ez dut ezagutu, estraineko aldiz ikusi dudala uste izan dut. Armairuaren ondoko mahaitxoari so geratu natzaio; bertako argazki batek erakarri du nire arreta, kurtso bukaerako bidaiari ateratako argazkia besterik ez dut ikusi, beste guztia begi bistatik desagertu egin zait. Han nago ni, koska baten gainera igota, hanka bat airean, eskuak astinduz, irrifartsu, eguzkiaren errainuek itsutu arren. Denboraldi ederra benetan, baina iragana; oroimenaren meatzea.

Logelaren erdian, armairu zaharraren eta balkoiaren artean, ohea dago, eta bertan ni, izara artean galduta. Momentu batez ametsetan ikusitakoa errealitate izan zi-

tekeela iruditu zait. Tapakiak alde batera astinduz, agerian utzi ditut zango luze bezain zuriak. Denbora luzez egon naiz zangoei begira, ezer egin gabe, ezer egiteko adorerik gabe, errealitatearen beldurrez. Benetan gertatutakoa amesgaizto bat izan ote zitekeen esperantzetan. Ostegun goiz hura gogoratu dut, kotxea hartu eta herritik kanpora nindoan ostegun hura. Errepide zahar bihurritu batean sartu nintzela oroitzen naiz. Bat-batean, argitasun izugarri bat ikusi nuela, ondoren esan zidaten ispilu handi baten errainuak itsutu ninduela eta istripua izan nuela. Ospitalean pasa nituen hurrengo egunak oso gogorak izan ziren. Eta orduko zauriak oraindik orbaindu gabe nabari ditut bihotzean, ezin itxirik.

Behar adina kemen bildu dudanean, zangoak mugiarazten saiatu nahi izan dut, baina ez didate erantzun, ez zaizkit mugitu. Ametsean sortu zaidan ilusio izpiaren hutsalaz ohartu naiz, eta nire zangoek ez nautela berriro ere beren gainean eutsiko onartu behar izango dudala pentsatu dut. Amorrurik biziz astindu ditut besoak, ukabilkadak eman dizkiet zangoei, buruarekin indarrez jo dut oheburua eta, nire ekintzen alferraz ohartu arren, han jarraitu dut, zertxobait lasaitu arte. Lasaitu naizenean, begiak lausotu zaizkidala ohartu naiz, ametsetan itsasoak bildu nauenean somatu dudana gazitasuna nabaritu dut masailetan behera, ur korronte amaigabeen moduan.

Eta horrela nengoela, ozen eta amorruez egin dut garra: EZ!!!

Londresko bluesik ederrena

Ainara Gorostizu Mujika
Txindoki institutua
Beasain

Londresen, beranduegi.

Aspaldiko:

Sharon, ez iezaion hire buruari ene eskutiz honen nondik norakorik galde. Orain urte asko egin behar ninan hau, bazekinat, damu naun eta hainbeste urtetako damuaren zamak ez didanez aurrera jarraitzen utzi, hire barkamenaren bila luzatzen dizkinat hitz hauek.

Hasteko, hiregan sentitu dudana beste inorengan ez dudala sentitu aitortu nahi dinat. Aro hura aldaketa garaia zunan nire bizitzan eta ez ninan ulertzen ene barruan zer ari zen gertatzen. Iraultza guztietan gertatzen den moduan, errugabeek sufritu zitiztenan. Milaka itaunek burua galarazi zidatenan eta horren ordaina hik jaso izan dun.

Konpreni nazan. Nork esan behar zionan 19 urteko gazte hari bera izango zela pasio hura biziko zuen bihotz iheskorra? Beldur nindunan, nahi ez bezala maitasunaren atzaparretara erori nindunan eta nola edo hala handik ihes egin nahi ninan, damu dinat hi mindu izana.

Gaurko nire bizimoduaren berri izango dunala uste dinat. Bazekinat nire bizitza osoko ametsa izan dela, baina ez nagon gustura. Londres hiri zaharreko kaleetan zehar ibiltzean, bertako paretetan ikus zezakenat nire aurpegia, kolore biziko mezu erakargarriekin, nire izena mundu zabalean ezagun egin dun; bazekinat, baina hala ere ez nagon gustura, barrenean bazeukanat har bat oroitzapenak memoriara dakarzkidana.

Oroitzen al dun gure begiradek lehen aldiz topo egin zuten gau hura? Orain hamburgeseria bat egin berria dinate gure lehen topagune izan zunan taberna zulo hartan. Eszenatoki txiki batean geundenan nire gitarra eta ni; nire hitzez keaz kutsaturiko airea bete nahian ari nindunan. Hi berriz, Martini kopa esku artean hunala, niri so, beste inor ez bezala. Hire edertasunaren argia izan ninan gau ilun hartako gidari. Ez geninan hitzik egin.

Hurrengo gauean elkar ikusi geninan berriz; ez ninan kantatu beharrik baina, ezin ninan hi ikusi gabe iraun, Martini bat hartzera gonbidatu nahi hindudan, oroit dinat, ezin nitinan nire hitzak elkar lotu desira nuena esateko. Hi erabat natural hengoen. Harrezkeroztik hi izan haiz nire bizigarri, nire abestien goiargi eta inspirazio.

Horrela, gauaren iluntasuneko ezkutuan elkartzen gintunan mundutik ihesi, geure munduaren bila. Ilargia zunan gure maitasunaren lekuko bakarra eta ez dun poesia ez, gure iragana dun, atzean geratu zaigun iragana, agian nire erruz, ziurrenik.

Bizitzak ondo tratatu nain, bai Sharon, bazekinat hori. Iluntasunaren magaleko blues batek honaino ekarri nain, baina nire bluesik onena aldatuko niken hire hitzen melodia instant batez entzuteagatik. Ez baitzegon hire

begirada baino poesia ederragorik, ez eta hire hasperen bat baino musika leialagorik. Baina hau guztia orain urte batzuk pentsatu behar ninan; orduan beldurtuta nengonan, hire alboan ez ninan ikusten gailurrera iristea zilegi izango nuenik, orain ulertzen dinat erabaki hura errore bat izan zela nire bizitzan.

Bidegurutzean nengonan, alde batean musika, bestean hi. Gaur ulertzen dinat bi bideek bat egin zezaketela.

Egun, oraindik ere, hainbeste urteren buruan, biok gauden argazki hura dinat gau mahaitxoan. Parisa joan ginen aldi hartan atera geninan: Paris, maitasunaren habia! Sena ibaiaren edertasuna ez zunan gure maitasunarekin konparatzeko modukoa. Hik, Sharon, hogeita hirugarren urtemugan oparitu ninan antezko jaka daraman; ederra hago benetan, azken eguna arte iraun zinan irrifarre lotsati hark betetzen din hire aurpegi ederra. Nik, orduan ez bezala, egun ile motza zeukanat, formal itxura ematen zidala errepikatzen hidan, oroitzen al dun?

Gogoan dinat, kalean hire aitarekin topo egin genuen egun hura: eskutik heldu eta hiretzat ni, laguna baino gehiago nintzela aitortu hion. Berak ez zinan ulertu; hire txorakeria bat zela errepikatu zinan, bizitzaren berri ez genekiela eta oraindik izango genuela denbora gauzak ongi hausnartu eta harremanetan hasteko. Nik, gaur behin eta berriz madarikatu arren, hire aitari arrazoi eman nionan, gaztetako txorakeria bat zela sinestarazi nahi nionan neure buruari; ezin ninan onartu, baina barrenean ninan maitasun garrak erre egiten nindinan, eta beldur nindunan. Ni ezin nindunan etxera joan eta hi nire neskalguna hintzela esan; ez, ezin ninan, agian koldar hutsa izango nindunan, ziurrenik.

Hi utzirik, nire bluesek ahotsa galdu zinaten. Ametsetan bizi nindunan. Hirekin bizi nindunan. Orduan egin nitinan abestirik ederrenak, orduan besarkatzen hindudan, inoiz sentitu ez ninan zirrara bat sentitzen ninan oinetatik gora. Hiri zor dinat gaur egun dudan guztia, sarritan ezerezaren pare izan arren guztia hire aldean.

Oroitzen al dun nire hogeita bigarren urtemuga? Londresko pizzeriarik famatuenera eramán nindunan, eta jendez gainezka zegonan guztia, eta berehala kamareroa etorri zunan, eta spaghettiak jan genizkinan biok, eta musukatu egin nindunan, jendaurrean musukatu nindunan. Nik ezin ninan hori eramán, biok perspektiba ezberdina geninan gure harremanarekiko, eta ni ez nengonan prest hik nahi huen moduan bideratzeko.

Hire berri izateko desiraren garra ez zaidan sekula itzaldu, nahiz eta Argentinara joan nintzen hartan nire makilatzailea zenaz maitemindu nintzela sinestu nahi izan. Bai, Sharon, Jennyren ile horiaren atzetik ibili nindunan txoraturik, baina orain ulertzen dinat, haren ile horia hire errepresentazio hutsa baino ez zunan, hi ikusten hindudan, ez nindunan gauza izan hari ezer adierazteko.

Makina bat gutun idatzi dizkinat azken urte haue-tan, baina postariaren eskuetara iritsi aurretik, damuturik, guztiak gorde egiten nitinan. Harrokeria zunan damuarazten ninduena, sarritan madarikatu dinat nire harrokeria, hi uztera, guztia uztera behartu ninduen harrokeria.

Konfesioetan hasi naun honetan, guztia esan gabe ez naun lasai geratuko. Aurrez eskatzen dinat barkamena. Oroitzen al dun nire gurasoen etxeko atezaina, Frede-

rick? Harekin esperientzia berriak probatu nahian ibili nindunan. Nire bizitzari beste zentzu bat eman nahi nionan, baina harreman hura gorrotagarri izatera iritsi zunan. Ezin dinat burutik kendu. Jendaurrean errespetatua sentitu nindunan, nahiz eta barrenean hutsaren pareko izan. Hark gure harremana sexuan oinarritzen zinan, eta nik ezin ninan jasan, berehala moztu ninan erlazio mada-rikatu hura.

Horrela bada, badakin zer izan den nire bizitza. Gauza ugari pairatu ditinat. Ibilian ibilian, atzean geratu dun hik ezagutu hunan melenadun gaztetxo hura. Mundua ezagutzen hasi naun, neure mundua behintzat bai. Itxura gogorrekoa omen naun ni; hala esaten huen hik ere, baina bidean malko ugari isuri ditinat. Sarritan alferrikakoak izan ditun, baina asko ikasi dinat. Hik asko irakatsi didan. Alferrikakoa dun atsekabetzea. Bura altxatuz, lotsak baztertuz eta barkamena eskatzen hasiz, atzean utziriko momentu ederrak birsortu gura ditinat. Sharon, hi sentitu nahi haut berriro, hire ile horia sorbaldan luze, hire begirada sarkorra eta aldi berean lotsatia nire barne grina piztuz, baina gehien faltan botatzen dudana hire arnas hatsa dun, hori baitun niretzat bizigarri, hik arnasten dunan aire bera arnastu nahi dinat, hi habilen bideetatik ibili nahi dinat, bion bideak bat bera izan daitezen.

Sharon, ikusten dun: ni neu aldatu egin naun. Londres, gure maitasun ezkutuaren habia ere aldatu egin dun. Nire bluesik ederrenak hirekin egin nahi ditinat hemendik aurrera, orain ez bainaun lotsa.

Horiek ditun bada nire hitzak. Hemen naukan pasio zahar haiek hire garretan kiskali nahirik. Bizitza honetan

zerbait izan nahi ninan eta banaun. Orain hire bizian zerbait izatea dun nire desira. Sharon, arren ez nazan hire hitzak barik utzi, odola bera baino beharrezkoago ditinat eta. Hire zain naukan, maitasunez

Annie

Errugabea

Kristina González García
Assa ikastola
La Puebla de Labarka

Euskal Herriko lurraldeetan finkaturik dagoen Txindoki mendiaren inguruan kokatzen da istorio harrigarri hau. Tontor honen haranean, biztanle urriko herrixka bat zegoen, eta non eta Txindokin, arrailduraz beteriko paretadun baserri zahar bat. Bertan, aitona mesfidati-serio bat bizi zen, bai, bakarrik mendien artean eta basoan barrena. Janari bila besterik ez omen zen jaisten herrira. Bisitaldi horietan inorekin hitzik ez zuen egiten; ez zuen inor agurtzen, eta inork ez zuen agurtzen bera ere. Ahoa muturretik muturrera josita balu bezala, mingaina higiezin baleukan. Honexegatik, herriko biztanle guztiek zorrotzat hartzen zuten gizona, eta mota guztietako esamesak entzuten ziren berari buruz: “Mendian bizi den gizona ez dago burutik sano”, edota “Badator baserriko bakartia”. Umeez ere ezin zioten eutsi baserritarrari errespetua galdu barik, ez eta bera bertan zegoenean ere. Baserrian soilik, zuhaitzen isiltasunaren artean, aurkitzen zuen gizagaixoak lasaitasuna, bakea, aisia.

Udazkeneko arratsalde heze-ilun batean, non haizeak zorua errazten zuen eroritako hosto lehor-zimelduak herriko kaleetatik landetara bidaliz, urruntasunean geraraziz, herriko gazteen artean ederrena zen Maialen nes-

katoa desagertu egin zen. Bazkalostean irten zen etxetik paseotxo bat ematekotan eta ez zen berriz bere bizilekua zenera bueltatu; senideek ez zituzten gehiago Maialenen oinak atalburua zeharkatzen ikusi. Desagerpen misteriot-sua benetan.

Esperantza ez zuten galdu herritarrek, neskatoa bizi-rik aurkitzea posible baitzen oraindik. Baina herri inguruetako bazter guztiak arakatu ondoren, txoko guztiak miatuz, gaztetxoaren gorpua sasiartean ezkutaturik agertu zen. Penagarria zen neskatoa egoera hartan ikustea, arimak alde eginda, begien bizitasuna amaitua, edertasunak bertan behera utzia. Histura eta ilunaldia nabariak ziren Maialenen gorpua begiztatzen zutenen aurpegietan; beti korrika ibili ohi zen neskatoa, oraingoan mugiezin zegoen; laguntza eskaintzeko prest egoten zen gaztetxoa, eskatzekotan ere ez zegoen. Maialenen gorpua harramaskaz josita zegoen. Horiek ez ziren, ordea, bere heriotzaren eragile, baizik eta bere lepo lerdin-lirainaren inguruan estutua zuen gaiztakeriaz beteriko soka. Bere zainetan zehar odola ibiltzen zelarik, bere bihotzak bizitasun osoz taupadak ematen zituela, sentimendurik gabeko pertsona batek bizitza lapurtu zion, ume gaixo bati gustuko duen jostailua kentzen dioten bezala.

Berahala hasi ziren herritarren artean hilketari buruzko esamesak, hipotesiak botaz, eta nahiz eta frogarik ez eduki, denek baserriko gizona jotzen zuten hiltzaile; “Txindokin bizi den gizona da erruduna, bakardadeak inguratuko zuen eta...”, “Baserritarrak egingo zuen, zoratuta dago eta”. Bakardadea dela, zoramena dela, baserriko gizona Maialenen hiltzaile salatu zuten, inolako arakaketarik egin barik, ziur egon gabe.

Egunsentiaren lehen izpiekin batera heldu ziren alkatea eta udaletxeko zinegotzi bat Txindokiren oinetan zegoen baserrira. Bertako lasaitasuna apurtuz, atejoka ibili ziren haritz egurrez egindako ate zabal eta pisuan, baserritarrak ireki zuen arte. Ustekabean harrapatu zuten gizona alkateak neskato baten hiltzaile joz egindako salaketek. Errua gogortasun osoz erori zen bere gainera, inolako azalpenik gabe, lehendik abisatu barik, merezi gabe.

Bost minutu besterik ez zituen izan arropa gutxi batzuk maleta zaharkitu gorri batean sartzeko eta bizkor-bizkor bere animaliei agur egiteko, egunero jana prestatzen zion suaren garra itzaltzeko, gelak argitzen zizkion eguzki izpiak leihatilak itxiz kanporatzeko eta jaio zenetik hazten ikusi zuen atea behin betiko ixteko. Gizagaixoak, maleta gorria eskuan zeramala, begirada lurrerantz bota zuen, bere gorputza herriko bi gizonei gidatzen utziz.

Baserritarraren pentsamendutik, beti askea izan zen burutik, bere bizitzako une alaienak pasa ziren; lehenengo urratsak eman zituenetik emaztea hil zitzaion arte. Momentu horretan bere bizitzaren poztasuna ere joan zen, gaua heltzen denean argitasuna amaitzen den bezalaxe, itsasoak hondartzako hare-aleak eramaten dituen moduan. Oraingoan ezingo zuen bakardadean bizi, ez eta basoak gordetzen dituen soinu bitxiak berriro entzun ere.

Herrira heldu bezain pronto, udaletxera abiatu ziren hirurak, non gela zabal batean herritar gehienak bere zain zeuden. Baserritarrak, fidakaitz, albo batera eta bestera begiratzen zuen, momentuoro mesfidati, ez baitzekien zertarako bildurik ziren han, denak bere inguruan, izaki arraroa bailitzan. Azkenik lortu zuen misterio hura

asmatzea, eta ohartu zen denen artean berak ordaindu beharreko zigorra erabakitzen ari zirela. Denak oihuka ari ziren, bakoitzak bere zigorra jakinaraziz, eta bitartean *erruduna*, ikusle. Zergatik ordaindu behar zuen berak egin ez zuen hilketa? Zer dela eta salatu zuten bere burua hiltzaile? Ezagutzen den jendearengan ere ezin da konfiantzarik izan? Halako galderak egiten zizkion baserritarrak bere buruari, eta erantzuna aurkitu ezinik; noizbait lagunak izan zirenak ere momentu hartan bizkarra ematen zioten, eta ahalik eta zigor gogorrenaren bila zebiltzan.

Azkenik, eta asko eztabaidatu ondoren, herritar guztiak ados jarri ziren zigor batean; errudunak bizitza osoan lan egin beharko zuen Maialenen familiari laguntzen, hauen landetan, euren animaliekin; noski, lanik gogorrenak egiten; mandoa bailitzan, edota okerrago, esklabo gisa.

Goiz hartan bertan hasi zen gizagaixoaren zeregina; lehenik, txerrien korta garbitu zuen; ondoren, oilategiko lastoa aldatu zuen eta berria ezarri; gero, ahuntzen txanda etorri zen segidan... inoiz ez zen bukatzen etxe hartako lana, eta bere bi hanka makal-ahul haiek ezin zioten hainbesteko esfortzuari eutsi. Besoak ere ez zituen gaztetan bezala, ez ziren hainbesteko lana egitera ausartzen, burua ere tente mantendu ezinik. Halako egoeran ezingo zuen luzaroan iraun, baina hori zen bere eginbeharra, nahiz eta argi eduki bera hiltzailea ez zena. Ez zegoen hura ukatzeko frogarik eta herritar guztiak bere kontra zeuden.

Arratsaldean, landetara joateko txanda: belarra moztu, lastoa bildu, babak landatu... lan mordoxka, eta zein

baino zein nekagarriagoa. Zorionez, porruak biltzen zegoela, gizon altu-indartsu bat hurbildu zitzaion. Gizon hura ezaguna zen baserritarrarentzat: begi urdin haiek, irribarre zabal-garbia eta aurpegiko zimeldura bereizgarriak lehenago ere ikusi izan zituen. Bai, mutil hura, bere bila joan zenetakoa zen, bai, herriko alkatea, bere pare-parean eta laguntza eskainiz. Goiz hartan askatasuna lapurtu zion gizon bera laguntzeko prest zegoen orain-goan, lanik gogorretan laguntzeko, *hiltzaile maltzurra-ri* urgazteko.

Ez zuten bi gizon haiek hitz gehiagorik trukatu. Begiradarekin komunikatzea ere oso erraza da; ez da hitzik behar zahar gizagaixo bati laguntzeko.

Handik aurrera, arratsaldero, landetan elkartzen ziren biak, lan gogor hura banatzeko eta jasangarriagoa egiteko. Baserritarrak ez zion inoiz galdetu zergatik eskaintzen zion laguntza, baina gauero, oheratzean, bere pentsamenduak bueltak ematen zizkion galderari, erantzun posible baten bila. Ahaleginak zentzugabe bihurtzen ziren, ez baitzegoen irtenbide ulergarririk. Ezin zitzaion logikarik bilatu egoera hari, gizon berberak lapurtu eta ondoren eskaini baitzion askatasuna. Baina eskertzekoa zen; egin beharreko lanak gogorrekiak ziren berarentzat, eta alkatearen laguntzaz, bere gorputzak tente jarraitzen zuen, hankek ez zioten oinez ibiltzeari uko egiten, eta bere besoek zama handiak altxatzen jarraitzen zuten.

Halako egun batean, udaletxearen gela ilun eta heze batean, alkatea aurkitu zuten bere buruaz beste eginda. Eskuinaldeko lokian bala batek egindako zulotik, odollezko ibai amaigabeak zerizkion. Askatasun osoz zeharkatzen zuen odolak bere gorputza, arropa zikinduz eta,

azkenik, lurrean istilak eginez. Bulegoko mahaian eskutitz bat aurkitu zuten; bai, alkateak idatzitakoa. Bertan ez zegoen ezer luzerik idatzita, bi esaldi besterik ez pape-rean:

Nik hil nuen Maialen.

Barkamena eskatzen dizuet denoi.

Gertaera honek herritarrak ustekabean harrapatu zituen eta, baserritarrari arratsalde hartan gertatutakoa aditzera eman ziotenean, berriz ere bere maleta gorria hartu eta baserrira abiatu zen. Haritz egurrezko atea ireki, berriz ere sua piztu eta leihatilak ere ireki egin zituen, eguzkiaren printzei sarrera emanaz. Egun hartan erabaki zuen herrira berriz ez jaistea, eta gogor eutsi zion bere promesari, inoiz ez baitute berriro ikusi herri inguruan.

Anbare grisa

Idoia Zabala Ormazabal
Pio Baroja institutua
Irun

Kataleju gizon azkarra zen. Itsasoa zen bere bizia. Txiki-txikitatik gustatu izan zitzaion portura joatea, itsasontziak nola iristen ziren ikustera. Batzuetan marinelek barkura igotzen uzten zioten portuan zutik, ahoa zabalzabal eginda, liluraturik gelditzen zen ume hari. Nola gogoratzen zen Kataleju gaztetako une haietaz. Behin kapitain batek itsasontzira igo zuen eta bertan pilotoarekin jira-biraka jolas egiten utzi zion; momentu hartan munduko haurrik zoriontsuena zela sentitu zuen.

Baina denbora pasa eta haur hura gazte bihurtu zen eta bere betiko ametsa egia bihurtu zen orduan. Txo sartu zen barku batean eta handik aurrera bere bizitza osoa itsasontzi batean pasa zuela esan daiteke.

Garai hartan baleak portu aldera gehiago hurbiltzen ziren eta azaldu bitartean zain egon ondoren, ehizatu egiten zituzten. Baina denbora haiek pasa ziren eta baleak ez ziren kai inguruan agertzen, gizakiaren beldur ziren. Baleen bila joan beharra zegoen, arraunean eta zortea lagun.

Azkenaldian Katalejuk talaian egiten zuen lan eta lan hori zela medio jarri zioten ezizen hori. Balerik azaltzen

ez zenez, ez zuen lan handirik izaten eta horregatik ia egun osoa pattarra edaten pasatzen zuen.

Bazituen Katalejuk bi iloba gazte, Mattin eta Peru; hemezortzi bat urte izango zituzten. Hauek ere marinel izan nahi zuten, baina ez ziren ordurarte itsasoratu eta batzuetan Katalejuri talaian konpainia egiten zioten. Egun batean talaian azaldu zitzaikion. Ez zen egun berezia, itsasoa bare zegoen eta aspaldian bezala ez zen balearik azaltzen kostalerroan. Urtetan baleei esker bizi izan zen Pasaia, arrantzale herria, behea jotzen hasia zen. Jendeak bale-ehiza utzi eta legatza, makailua edo beste edozein arrain harrapatzera irteten zen itsasora.

Katalejuk ez zuen ulertzen zertara etorri ziren egun hartan ilobak beregana, baina konpainia ez zen gaizki etortzen bakardadeari aurre egiteko. Hala ere, zerbait arraroa sumatu zuen bisita hartan. Bere susmoa berehala baieztatu zen, ilobetako bat hitz egiten hasi zenean. Apalluren tabernan iparraldera joateko Trumoia prestatzen ari zirela eta itsasoratu nahi omen zuten. Aspaldidanik egin zuen amets Katalejuk hitz haiek entzungo zituen egunarekin eta prestatua egongo zela pentsatzen zuen eguna iritsi zen arte. Urduri jarri zen. Ezagutzen zuen Ezinaberastu, Trumoiaren kapitaina. Zenbait tira-bira izan zituen berarekin eta ez zitzaion gustatu ilobak berarekin joan nahi izatea. Baina hori ez zen Kataleju arduratzen zuen gauza bakarra. Trumoia zeroe bila joan ohi zen, ez bale-ehizara eta zeroea harrapakin zaila zen, gogor borrokatzen zuen, aurre egiten zizun eta horzkadak botatzen zizkizun. Berak ondo ezagutzen zituen zeroeak; garai batean bera ere abentura horren bila joana zen eta hartatik oroigarri latz bat besterik ez zuen ekarri. Zeroeak hanka kendu zion halako batean eta egurrezko hanka ba-

tekin ibili beharrak berriro itsasoratzea galarazi zion. Horrek zeroeenganako gorrotoa eta aldi berean errespetu handia eragiten zion.

Ilobekin eztabaidan ari zen Tramana, Ezinaberasturen gizonetako bat, azaldu zenean. Katalejuk bazekien zertara zetorren, gehiagotan ere azaldu baitzen. Horregatik, talaia momentu batez bere iloben esku utzi zuen, ondo baitzekien ez zela balearik azalduko eta Tramanarekin batera txabolara sartu zen. Tramanak bere betiko kontua errepikatzen zuen bitartean, Katalejuk tragotxo bat hartzeko aprobe txatu zuen. Orduan konturatu zen ez zitzaiola pattrrik gelditzen. Tramanaren hitz jarioa entzun beste erremediorik ez, beraz. Hor hasi zitzaion betiko gaiarekin, itsasora zeroe bila irten behar zutela eta gordeta zituen zeroe arrantzaguneen mapak behar zituztela. Ohi bezala Katalejuk ezezko borobila eman zion eta orduan Tramana haserretu eta biraoka hasi zitzaion: “Dreabuak eramango al zaitu! Honela bizi nahi al duzu? Artatxikia, sardin zaharrak eta pattrra besterik hartu gabe? Herriaren aberastasuna txabola honetako edozein izkinatan gordeta egonik!” Katalejuk ez zuen onartzen berari horrelakorik esatea eta, amorratuta, arpoia hartu eta aurpegiaren aurrean jarri zion Tramanari, mehatxuka. Joaten ez bazen aurpegia kristo bat eginda utziko ziola. Tramanak, Katalejuren haserrea ikusirik eta arpoiaren punta zorrotza aurpegian sentitzean, lasaitzeko esan zion, diru asko zegoela jokoan. Gakoa anbare grisa zen, zeroeek maskurian sortzen zuten anbare grisa; hura lortuz gero aberats izango zirela. Dama txit prestu batek sekulako dirutza eskaini omen zien anbare grisa lortuz gero eta horretarako mapak behar zituzten.

Katalejuk ondo ezagutzen zuen Tramana eta ez zion horrelako gizon bati hain sekretu preziatua emango, bes-

te gauza batean pentsatu zuen Katalejuk; dama horri berak salduko zizkion mapak dirutza eder baten truke eta gero egin zezala damak mapekin nahi zuena. Horrela bada, Tramana ostikada batez bota zuen txabolatik kanpora eta gehiago ez azaltzeko esan zion. Gero kanpora irten eta ilobei tabernara joateko eta pattar gehiago ekartzeko eskatu zien.

* * *

Luisa Pasaiako emakumerik aberatsena zen. Kostolako Jaunarekin ezkondu zenetik, nahi izan zituen kapritxo guztiak bete ahal izan zituen. Urrezko eraztunak ikus zitezkeen beti bere eskuetan diz-diz, inguruko emakume guztien irrikarri. Jantziak beti Indiatik ekarritako zetaz eginak izaten zituen eta herrian aurki zitezkeenetatik ederrenak izan behar zuten; beste ederragoren bat ikusiz gero, soineko berri bat egiteko mandatua bidaltzen zuen.

Hala ere Luisa ez zen emakume liraina. Etxean zuen erosotasunak eta ezer ez egiteak asko loditu zuen. Gaztetako gorputz ederra urteen poderioz koipez bete zen eta aurpegia asko zahartu eta zimurrez bete zitzaion. Andre lodikote zahar hura ez zen gaztetako Luisa bera. Aberastasanak ez zion bere gorpuzkerari bakarrik eragin; oso berekoi bihurtu zen eta, nahi zuena lortzen ez bazuen, sekulako haserrealdia harrapatzen zuen. Haserretzen zen momentu haietan ez zuen inork jasaten eta azkenean berearekin ateratzen zen.

Azkenaldian Luisa oso kezkatu zebilen; bere senarra, Kostolako Jauna, malenkoniak jota zebilen, ez zuen inorekin hitz egiten. Egunak eta gauak etxe ondoko kobazulo batean pasatzen zituen, geldirik, deus egin gabe.

Luisak zenbait medikurekin hitz egin zuen senarraren arazoari buruz eta guztiek erantzun bera ematen zioten: gaixotasuna “misticitis melancolensis” zela eta horretarako sendagai bakarra anbare grisa omen zela. Baina ez zuen oso ontzat hartu medikuek esandakoa, ez eta agindu zuten sendagaia ere; fantasiakoa iruditzen zitzaion eta, beraz, sendagileek esandakoari entzungor, antzinako sendabide naturaletara jo zuen. Honen erantzuna ere berdina izan zenez, Luisak azkenean etsi eta onartu beharra izan zuen.

Mediku eta sendagile naturalen gomendioari jarraituz, inguruetakoa balezalerik hoberenei urrezko hamar mila doblako eskaini zizkien anbare grisa ekartzearen truke. Luisari ez zitzaion hainbeste diru alferrik galtzea gustatzen, bere ustez gauza haiek txorakeriak baitziren. Baina ez zuen seme-alabarik eta bere senarra leizezuloan sartuta egonda ez zuen ondorengorik izango, eta ideia hori oraindik desatseginagoa egiten zitzaionez, ez zuen beste aukerarik izan.

* * *

Ezinaberastu Apallun zegoen Tramana etorri zitzaionean. Katalejurengana bidali zuen zeroeen arrantzaguneeen mapak eskatzera, baina zekarren aurpegia ikusita, erraz esan zitekeen ez zuela lortu. Plan bat pentsatu beharra zegoen Kataleju azkarrari mapa haiek nola edo hala kentzeko.

Bat-batean tabernan bi mutiko sartu ziren, Katalejuren ilobak. Hura zen aukera bikaina: Kataleju bakarrik zegoen txabolan. Bere gizonetako lau bidali zituen talaiara, mapak ekartzera. Erreza izango zela uste zuen,

baina kontuz ibiltzeko esan zien, horzka egin zion zeroearen amorrua gordetzen baitzuen Katalejuk.

Bere gizonak lana burutzen zuten bitartean, Ezinaberastu trago bat hartzen geratu zen Tramanarekin. Horrela zeudela, Katalejuren ilobak hurbildu zitzaizkien. Txo sartu nahi omen zuten Trumoian. Barregura eman zion Ezinaberasturi eta ezetz esan zien, eskifaia osaturik zutela eta gainera ez zutela umerik nahi. Mutilek haserre aldegin zuten tabernatik.

* * *

Mattin eta Peru txabolara iritsi zirenean, Kataleju lurrean aurkitu zuten. Aulki batera jaso eta zer pasatu zitzaion galdetu zioten. Ezinaberasturen gizonak kolpe bat jo omen zioten buruan, baina berak, arpoi bat harturik, bi gizon zauritu zituela. Hala ere beste bi gizonak ezustean harrapatu eta lurrera bota zutela. Mapak lapurtu zizkioten. Erosi egin zizkioleta esango zuten beraiek, zenbait txanpon utzi baitzituzten lurrean botata.

Osabak dena kontatzen zuen bitartean pattar guztia edan zuen eta, mina kenduko zion aitzakiarekin, gehiago ekartzeko eskatu zien Mattin eta Peruri. Beraz, tabernarako bidean jarri ziren. Medikuaren etxetik pasatzen ari zirela, medikua leihora azaldu eta igotzeko esan zien. Goian Tomorroto eta Txakur-zatarra –osabak jipoitutako Ezinaberasturen bi gizonak– aurkitu zituzten, ohean etzanda eta benda banarekin buruan. Begira zeudela, medikuak Trumoiako patroiar bere bi gizonak ez zutela itsasoratzerik izango abisua pasatzeko esan zien.

Apallurako bidean Mattini ideia bat otu zitzaion eta, Ezinaberasturengana iritsi zirenean, bera hasi zen hitz

egiten: “Txakur-zatarrari eta Tomorroitori, mirariz edo, ari zaizkie zuriak sendatzen eta bihar itsasoratzeko gauza izango dira, baldin eta biharko egun osoa lotan eta atsedenean uzten bazaie.” Hasiera batean Ezinaberastuk harritu aurpegia jarri zuen, baina gero irribarre egin zuen, ez baitzuen gizon berririk kontratatu behar izango bere marinelen ordezkari joateko, eta horrek diru kopuru handia aurrezten zion.

Mattin pozik zegoen, azkenean lortuko zuen bere ametsa betetzea, itsasoratzea. Peruk ez zuen ezer ulertzen Mattinek guztia azaldu zion arte. Beraiek joango ziren Tomorroto eta Txakur-zatarraren ordezkari, ondo mozkorrotuz gero ez zen diferentzia nabarituko. Gainera, lehenengo egunean ez zuten ezer egin beharko, deskantsatu besterik ez, medikuaren gomendioei jarraiki.

Tabernan osabaren pattarra hartu eta kairantz abiatu ziren talaiara joan baino lehen. Momentu batez kaian geratu ziren, mozkorrotzeko behar zutena hartzeko, bikea eta eztopa zildaiak egiteko. Gero osabarengana joan ziren. Osaba mozkor-mozkor eginda zegoen eta bere istorietako bat kontatzen hasi zitzaien:

“Nire garaian, gazteago nintzenean, zeroe harekin borrokan galdutako hanka nolabait ere kitatzeko, kofradiak talaiari izendatu ninduen. Ez pentsa karitatez edo egiten zutenik. Talaiariaren zereginak garrantzia handikoak ziren orduan; izarretik izarra erne egon beharraz gain, arra edo emea zen igerri behar zitzaion baleari. Arra bazen, keaz iragartzen zen eta emea bazen, kanpaia joaz. Eta emea kumearekin bazetorren, orduan izarra zabalitzen zen. Arrantzaleen kofradiak kanpaia jo eta txalupa guztiak irteten ziren baletzarra harrapatzera. Arpoila-

ria brankan jartzen da. Bi arpoi lotu behar zaizkio soka berari eta bata bestearen atzetik bota. Ezinaberastu arpoilari bikaina zen, harik eta behin, eskuinaz kale egin zuelako, ezinegonean, ezkeraz bota zion arpoia soka trabatu eta balearen astinduak kolpetik atera zion besoa. Balea behar-beharrezkoa zen. Arpoilaria zaurituta egon arren, ez zegoen gelditzerik eta Ezinaberasturi kasurik egin gabe, marinelek bereari ekin zioten: balea harrapatu, lantzadaka odolustu indarrrik gabe uzteko eta kairaino eramán bertan hondartzeko.

Hortik aurrera Ezinaberastu muturtu egin zen eta, kanonigoak esango lukeen bezala, misantropo bihurtu. Kofradiak eskaintzen zion eguraldi gizonaren karguari uko egin zion. Eta jendea Ezinaberastu esaten hasi zitzaien, zeren zer datorkio ba ez arraunean, ez arpoilartzan, ezta bale txikiketan aritzerik ez duen pasaitarrari? Nik onartu nuen kargua: urritik martxora zelatan egoten nintzen, eta gainerantzeko hilabeteetan ontziek ateratzerik zuten edo ez, bajuran, bisiguan edo muxarran ibiltzea bazuten edo ez erabakitzen nuen, itsasoaren eta eguraldiaren arabera.

Ezinaberastuk alde egin zuen Pasaiatik; baina halako batean, ontzi harrigarri bat iritsi zen eta harri eta zur ikusi genuen guztiok Ezinaberastu zetorrela buru! Harekin zetozen Tramana maisua; Tomorroto, kontramaisua; Txakur-zatarra komitrea; Motza, Tolete eta itxura gaizto-ko beste zenbait marinel. Azukre kainaberaz egindako pattar gozo batez beterik zekarren Trumoia zorioneko irletatik edo Kanarietatik ekarria omen, dirudienez han egonak baitziren Ezinaberastu eta bere gizonak. Orduz gero Apulluk tabernan saltzen du. Uste dut rona deitzen diotela. Baina niri bost axola zer izen duen.”

Osabak horrela bukatu zuen bere istorioa eta ekarri berri zioten pattarrari trago bat eman zion. Mattinek orduan Trumoian itsasoratzeko zituzten planak esan zizkion eta Katalejuk ez zuen oztoporik jarri; mozkortuta zegoen eta momentu haietan ez zitzaion gaizki iruditu. Beraz, baimena eman zien esanez: “Ongi, ongi; altuak zarete zuen adinerako eta marea goizeko ordubietan da. Ongi aterako zaizue; gainera, arrazoia duzue, baleak urrundu zirenetik herria kanposantu bat da. Lehen ordu honetan labeak hasiak ziren jadanik haragiko eta azaleko koipea urtzen; oso ona zen argia egiteko, eta argizaria baino merkeago. Baleen mihiko koipea elizako erlojua labaintzeko erabiltzen zen. Balearen 250 bizarrak aizto-gileei, abanikogileei eta kortsegileei saltzen zitzaizkien. Hezurak etxeetako habe eta ategainak egiteko erabili ohi ziren; eta saihetsak jarlekuak egiteko. Haragiari dagokionez, xerratan ebaki eta gazitu egiten genuen. Hemen ez zuten zakurrek ere jaten eta beraz, frantsesei saltzen genien. Orain bat baino gehiago pozez txoratuko litzateke balenkume xerra nazkagarri bat eskuratuz gero. Zoazte, bai, zoazte abenturara. Hemen ez dago etorkizunik.”

Osabaren erantzuna entzun eta lotara joan ziren Mattin eta Peru. Hurrengo eguna gogorra izango baitzen beraiantzat, oso goiz jaiki behar zuten gainera.

Hurrengo goizean, ondo mozorrotu eta Trumoian sartu ziren Mattin eta Peru. Azkenean itsasoratu ziren. Mattin ez zen inoiz barku batean ibili eta burua bueltaka zebilkion, tripak bezalatsu. Gosaldutako artatxiki gaileta eta sardin zaharrak kalte egin zioten eta bat-batean botagura izugarria sentitu zuen. Ezin zuen gehiago eta gosari osoa, baita afariaren zati bat ere, popatik behera bota

zuen. Marinel guztiek harriturik begiraten zioten, ezin zuten sinistu Tomorroto zorabiatu egon zitekeenik, ontzi gainean jaioa zen eta! Ez zuten ulertzen, baina jasotako jipoiagaitik izango zela uste izan zuten.

Denbora pasa zen eta itsasoa gero eta okerrago zegoen. Itsasontzia gora eta behera mugitzen zen eta horrek Mattini goragalea eragiten zion. Bat-batean, haize bolada batek Mattin eta Peruren mozorroak airean eramane zituen. Orduan konturatu ziren guztiak benetan zein ziren eta asko haserretu ziren marinela. Mattin eta Peruk gorputza beldurraren beldurrez dardarka zutela entzun zuten beraien zigorra: brankan lotuta egongo ziren puska batez eta gero sentinan sartuko zituzten, ura eta gailetak bakarrik jabez.

Egunak oso poliki igarotzen zitzaizkien Peru eta Mattini sentinan sarturik. Dena ilun zegoen han barruan eta hezurak gogortu egin zitzaizkien hainbeste denbora geldi egotearekin. Baina halako egun batean, bihotza poztu egin zitzaien “Luuurrraaa begien biiiistaaaann!” entzutearekin batera.

* * *

Ezinaberastu egindakoaz harro zegoen; aurkitu zituen mapetan irudikaturik zeuden irlak. Handik gertu egongo ziren zeroak, ehizatuak izateko prest, baina lehendabizi irletara hurbilduko ziren arraunean, deskantsatu eta inguru horiek zertxobait ikertzeko. Leku itsusia iruditu zitzaion paraje hura eta ez zuen ez eta esaldi historiko bat esateko gogorik ere; anbare grisa lortu nahi zuen eta lehenbailehen etxera itzuli.

Bat-batean oihu batzuk entzun zituen: “Wapu, minungo, kabubi!!!” Atzera begiratu eta oso itxura bereziko gi-

zonak ikusi zituen; indioak ziren, baina Ezinaberastuk ez zuen bere bizitza osoan sekula indiorik ikusi eta horregatik ez zekien zer ziren. Oso gizaki arraroak iruditu zitzaizkion, batez ere beren janzteko eta hitz egiteko era.

Azalaren kolorea ilunagoa zuten, larruz egindako jantziak zeramatzen soinean eta egiten zuten hizkuntza ulertezina zen. Baina bat-batean, gizontxo txikitxo bat aurreratu zen denen artean eta euskaraz hitz egiten hasi zitzaion, EUSKARAZ!!!: “Ongi etorri, euskalduna, ni euskaldun berria izan.” Ezinaberastuk ez zuen ulertzen nola jakin zezakeen gizontxo hark euskaraz; ez zuen ordurarte pentsatu leku hartara bera baino lehenago euskaldunik joan izan zenik. Baina momentu haietan ez zitzaion inporta eta euskaraz zekiela aprobetxatuz, beste gizaki arraro haiek zer esaten zuten galdetu zion. Gizonak honela erantzun zion: “Ni Tamu buruzagia, uharteak izena Mingingo, indioak miningoak izan. Minungo, gailetak izan; kabubi, burdinezko tresna eta wapu, ur horia izan, sagarrez egindako ur horia. Guk dena kastore eta igaraba larruen truke aldatu.”

Orduan konturatu zen Ezinaberastu indio haiek zer nahi zuten; gailetak, arpoiak eta sagardoa larruen truke. Baina hori ez zitzaion interesatzen, berak zeroeak nahi zituen eta batez ere anbare grisa. Anbare grisa, zeroeak, anbarea... Horretan pentsatzen ari zela, indioak soinean zeraman koilarean fijatu zen; zeroe hortzak zituen apaingarriztat, eta hortzak lortzeko zeroea hil behar izan zuen. Gizontxo hark bazekien zeroeak non harrapatu eta gailetak, arpoiak eta sagardoa besterik ez zuen nahi. Beraz, nahi zuenaren truke zeroeak non zeuden esateko eskatu zion Ezinaberastuk indio hari. Honek atseginez erantzun zion: “Kakunpeke badian harrapatu guk, zuek eramanez.”

Baina Kowangu arriskutsua, gogor eraso eta kanoa hautsi. Kowangu zeroea izan. Kowangu ehizatzeo arriskuetsuena arpoia botatzea izan, Kowangu zauritu berriak hil egiten du.” Hori bazekien Ezinaberastuk eta hark ez zuen batere arduratzen, bi arpoilari boluntario baitzituen. Horregatik, hurrengo goizean gailetak, sagardoa eta arpoi batzuk eman zizkieten indioei eta buruzagiak Ezinaberasturi zeroeak non zeuden adierazi zion.

* * *

Mattin asperturik zegoen Perurekin batera gela itxi hartan egoten. Bazekiten lehorrera iritsi zirela, barkua ez baitzen mugitzen. Baina asteak ziren eguzkiaren argia ikusten ez zutena, ez baitzieten kanpora irteten uzten. Ez zekien Perurekin zertaz hitz egin, gai guztiak jorraturik zituzten eta momentu haietan isiltasuna zen nagusi iluntasunean. Hezurak mindurik zituen geldi egotearen ondorioz, nahiz eta gela barruan pauso gutxi batzuk eman aurrera eta atzera Peru lotan zegoen bitartean.

Bat-batean atea zabaldu zuten; janaria ekartzera etorriko zirela uste zuen Mattinek, baina gizonak ez zekarren janaririk, eskuan bi arpoi zeramatzan. Bata Mattini eman zion eta bestea Peruri. Azkar ibiltzeko esan zien, txalupa banatan sartzeko prest egoteko. Ordurako Trumoia itsaso zabalera irtenda zegoen. Mattin izutu egin zen gertatzen ari zenaz konturatu zenean. Beraiek jarriko ziren zeroeari buruz buru eta arpoia botako zioten. Berak askotan ikusi zituen arpoilariak baleak hiltzen eta osabak, behin baino gehiagotan erakutsi izan zien nola egin behar zen, baina ez zegoen oraindik prest balea bat hiltzeko eta oraindik gutxiago zeroe bat. Hala ere, ez zuen ezer egiterik, pilotorantz begiratu eta patroia mapa ba-

tzuk begiratzten ikusi zuen; marinela lanean zebiltzan barkuan bueltaka. Momentu hartan eskifaiaren parte sentitu zen eta horrek alaitasuna eta aldi berean beldurra eragiten zion. Berak betidanik nahi izan zuena egiteko mandatua eman zioten, baina oraindik ez zegoen prest, gehiago ikasi behar zuen; arpoia zein momentutan bota, non sartu zeroeari..., baina orduan ez zegoen denborarik ezertarako.

Honetan guztian pentsatzen ari zela “Balea begi bistan!” entzun zen goi aldetik eta, entzun bezain laster, patroiak “Denok txalupetara!” oihukatu zuen. Iritsi zen ordua: ez zegoen atzera jotzerik. Arpoiari ondo heldu eta txalupan sartu zen Mattin.

Zeroea aurrez aurre zuen minutu gutxitara. Geldi geratu zen, ez zekien zer egin. Peru beste txalupan ikusi zuen, honek arpoia altxa eta gogor sartu zion zeroeari. Orduan zeroea haserretu eta Peruren txalupa hankaz gora bota zuen airean, barruan zeuden gizon guztiak uretara botaz. Mattinen ordua heldu zen eta, gehiago pentsatu gabe, bigarren arpoia sartu zion zeroeari. Odola ateratzen hasi zen bizkar aldetik. Zauria sakona zen, baina txalupako beste gizonak badaezpada ere lantza batzuk bota zizkioten. Laster hilko zen animalia.

Mattinek lortu zuen, bete zen bere ametsa. Urduritasuna emozio bihurtu zen bere gorputzean; hankek dardar egiteari utzi zioten eta mundu guztiari musu bana emateko gogoia sartu zitzaion, baina lana ez zen oraindik bukatu. Zeroeari ondo heldu, uretan zeuden gizonak txalupara igo eta Trumoiarantz abiatu ziren irribarrea aurpegian zutela, garaipenaren seinale.

* * *

Ezinaberastuk momentu batez zeroea ez zutela harrapatuko pentsatu zuen txalupa bat airean ikusi zuenean. Baina zorionez, dena ondo irten zen eta orain indioen irletara itzultzea besterik ez zitzaien falta. Han zeroeari anbarea atera eta gero etxera itzuliko ziren. Zeroearen haragiaren zati bat, hezurak eta orokorrean anbarea ez zen ia guztia indioei utziko zieten, ez baitzuten guztiarekin itzultzeko asmorik. Horrela bada, anbarea lortu eta etxerako bidean jarri ziren. Bidaia luzea zuten oraindik Pasaiaraino.

* * *

Azkenaldian Pasaian, Apalluren tabernan, lapurretak egon ziren. Apallu nazkaturik zegoen. Taberna itxi eta minutu gutxitara, pertsona bat etortzen zitzaion beltzez jantzita eta eskuan eskopeta zuela. Mehatxu egiten zion, pattar botila bat emateko edo bestela tiro egingo ziola. Noski, Apalluk pattarra eman behar izaten zion eta pertsona korrika irteten zen beste inork ikusi baino lehen.

Egun batean, taberna itxi baino lehen, bertan zeuden gizonei honela esan zien Apalluk: “Hiru aldiz lapurtu dit hilabete honetan eta akabatu egin nahi dut. Gaurtik aurrera, ixterakoan, zuetako lau edo bost nirekin geratuko zarete barruan eta nik jana eta edariarekin ordainduko dizkizuet goardiak eta Edale Mozorrotua harrapatzen duenari 20 doblako emango dizkiot”.

Goardiak gau hartan bertan hasi ziren eta, esan bezala, taberna ixterakoan bost gizon gelditu ziren barruan Apallurekin batera. Hamabost minutu pasa eta atea jo zuten. Tabernan zeuden gizon guztiak ezkutatu egin ziren eta Apalluk atea ireki zuen. Beltzez jantzitako gizonak, beti bezala, eskopeta zeraman eskuan eta mehatxu-

ka hasi zitzaion Apalluri. Hau pattarraren bila joan zenean, ezkutaturik zeuden gizonak Edale Mozorrotuaren gainera salto egin zuten eta, ondo helduta zutenean, Apalluk buruko zapi beltza kendu zion lapurrari, behingoz zein zen jakiteko. Orduan bai hartu zutela ustekabea han zeuden guztiek; zapia kendu eta nor izango eta Kostolako Jauna bera. Ezin sinisturik zeuden guztiak. Nola jarriko zen bere emaztea hura kontatzen ziotenean!

* * *

Luisa etxean zegoen egin zioten soineko berria probatzen. Indiatik ekarritako zetaz egina zegoen hura ere, zituen beste guztiak bezalaxe. Mehetu egin zen bere senarrak ditxosozko malenkonia harrapatu zuenetik eta beste soinekoak handi gelditu zitzaizkion.

Berean zegoela, atera deitu zuten. Zerbitzariak Apallu izeneko tabernari bat zela esan zionean harritu egin zen, ez zuen izen hori zuen inor ezagutzen eta oraindik gutxiago tabernari bat. Bera ez zen etxetik gehiegitan iriteten eta, egiten bazuen, soineko edo bitxiren bat erosteko izaten zen. Zerbitzariari sartzen uzteko esan zion. Gizon lodikote bat azaldu zitzaion begien aurrean. Zer nahi zuen galdetu zionean, Kostolako Jaunak lapurreta egin ziola esan zion, 10 doblako eta 32 marabedi zor omen zizkion. Hasiera batean ez zion sinistu, baina gero beste gizon batzuk agertu ziren bere senarra helduta zekartela. Tabernan mehatxuka eta pattar eske zebilela harrapatu omen zuten eta gainera senarra egon ohi zen kobazuloan, harri baten azpian, pattar botila hutsak aurkitu zituzten.

Luisak sinistu egin zien bere begiz kobazuloan pattar botila hutsak ikustean eta senarrak guztia aitortu zue-

nean. Orduan Luisak tabernariari zor ziona ordaindu eta bere senarra hartu, etxeko aulki batean eserarazi eta adimen kontroleko etxeko terapia aplikatu zion, horrekin sendatuko zen esperantzarekin.

* * *

Ezinaberastuk, zenbait aste itsasoan igaro ondoren, Pasaiara anbare grisarekin iristea lortu zuen. Berehala hainbeste kostatako anbare grisa barkutik atera eta Kostolaenera eraman zuen. Bertan atea jo eta Kostolako Jau-naren emaztea azaldu zitzaion. Honek sentitzen zuela, baina jada ez zutela anbarerik behar esan zion, senarra sendatu zela amodiozko zenbait kanta entzunda eta ez zuela beste sendagairik behar.

Ezinaberastu gizagaixoak lau soretan saldu behar izan zion anbarea Ondarruko perfume-gile bati eta handik gutxira Pasaiatik alde egin zuen Azoreetarantz.

Zenbait hilabete beranduago, Azoreetan zegoela, Mariano Italiano Cristophoro Colombo izeneko gizon arraro kanpotar batek, Labradoretik hegoalderantz lurrik ba ote zegoen galdetu zion. Ezinaberastuk, harriturik, baina bere buruaz ziur, baietz esan zion, iparraldean lurrik baldin bazegoen, hegoaldean ere egongo zela eta garai batean Katalejuri lapurtu zizkion mapak saldu zizkion gizon hari 25 doblakotan, lagungarri izango zitzaizkiola esanez.

Nork aurkitu zuen benetan gaur egun ezagutzen dugun Amerika?

PROSA. B maila

BBBko 1. eta 2. kurtsoa,
LHko 1. gradua eta
IEEko 1. zikloa

Zakurra

Daniel Ferreiro Villaluenga
Txindoki institutua
Beasain

Bolta gutxiko bonbilaren kulunkadek itzal luzeak proiektatzen dituzte behinola zuriak izanda, tabakoaren keak belztutako pareten gainera. Bere argi xumearen dantza monotonoak nolabaiteko efektu hipnotizatzailea dauka gela huts honetako sabaian. Bere jabeari adi-adi begiratzen dion animalia rentzat, ordea, mugimendu horiek, beldurgarriak izan ezezik, eszena guztiari kutsu makabro bat ematen diote. Saihetsak agerian ditu, eta baten bat hautsita, ziur asko. Handik aldegin nahiko luke, baina zementuzko zoru hotzean eserita dagoen ile luzeko gazte hau da daukan familia bakarra. Nahiz eta askotan jipoitu duen.

Xiringari zuzenki begiratzen dio, nola hartzen duen, nola orratza injektatzen duen, nola izkina batera jaurtikitzen duen. Supituan begiak zuritu eta bere gorputza erlaxatzen du, plazerrak eraman dezan utziz. Bere aurpegi zurbila inoiz baino zurbilago ageri da, izerdi tantek zeharkatzen duten bitartean. Bat-bateko geldikortasun honek zakurra are gehiago ikaratzen du. Altxa eta pausoneketsuz gerturatzen zaio. Laztanki ferekatzen ditu larruzko galtza beltz zimurtuak.

Bat-batean, bularrean jasotako ukabilkada gogor batek metro batera bidaltzen du, zaunka lastimagarriak egiten dituen bitartean. Oraindik kexatuz, txoko bateko itzaletan gordetzen da herrenka eta han, etzanda eta izaturik, jabearen begirada hirakorra jasotzen du.

Begiak berriro ere aurpegi hartan jartzera ausartzen denean, ordea, ez du gorroto adierazpenik aurkitu. Dagoeneko bere aurpegiko giharreak lasaitu egin dira, begiek argien joan-etorriak begiztatzten dituzten bitartean, ezpaintedan irribarre bat izan nahi duen keinu arraro bat ageri zaio.

Supituan, Kokek bularra puztu eta karkara gorgarri bat botatzen du, karkara zoroa, ia supernaturala. Bat-batean isildu egin da, zakurrari begirakune zorrotza botaz.

“Hik, hik ere gorroto nauk. Maddik eta Jonek, gurasoek eta beste guztiek gorroto ninduten bezala. Hire begietan ikus zezakeat, txo.” Zakurrak belarriak tente jarri ditu, koprenituko balu bezala. “Begira, begira egiok esku honi, hainbeste aldiz jipoitu hauen ukabil honi. Ziur nagoz haginka egiteko desiratzen hagoela, ez da hala? Bai... ziur harrapatuko bahu izugarritzko plazerra edukiko hukeela zati-zati egiten... besteek nitaz libratzeko zeukaten desira bera... baina haiek hilda zeudek... hilda, bai, Maddi, Jon eta gurasoak; nik izorratu ditiat, txo. Urte askotan ni izorratu nauten bezala. Begira egidak, kabroi horrek halako horrek, erakutsi haginak.” Barre zoroa berriz ere. Koke teilatuari begira, begiak zuri, argiak hara eta hona, argi hipnotizatzaileak.

“Baina hik ez dakik ezer. Hi ere engainatu haut. Zerri uniformedun horiek engainatuko ditudan legez. Eta bizilagunak, eta senitartekoak. Bai, senitartekoak. Behar bada hil egingo ditiat beraiek ere. Beraiek denak”.

Zakurra gero eta urduriago. Muskuluak kontrol gabeko mugimendu azkarrean, hara eta hona daramate. Kokek ezker eskua poltsikoan murgildu eta zer edo zer ateratzen du.

“Izutua hago, bai. Etxean egon nahiko huke, baina ezin. Maddiren ferekak buru gainean sentitu nahiko hituzke, baina hura lotan zegok.” Gorpu itxurako irrifarra. Bekokia blai eginda. Behatz artetik marihuana lurrera. Kaguen Dios. Marihuana hostoa jaso. Porroa egiteko papera beste eskuan. Labantxoa hanka alboan, lurrean.

“Badakik? Hi ere gorrotatzen hinduten. Laztanak, hitz politak... maskara bat besterik ez hituan. Atzaparrak atera nahiko zizkiaten. Eta ziur egon hadi egingo luketela. Baina lasai, txo, nik egin diat egitekoa. Orain egongelako alfonbra gainean zeudek; gorputzean berun kilo batzuk sartu zizkieat.”

Porroa eginda. Ahora. Zurrutada luzea, gero kea sudur zuloetatik at. Giroa, kearen eraginez, klaustrofobikoagoa. Kokek bi aldiz eztula dagi, eztul sakon eta erlatsa.

“Hik ere nire lekuan gauza bera egingo huen... ni ere zakur bat bezala tratatzen ninditean. Zeresanik ez zegok senitartekoentzat ni madarikazio bat, Jainkoaren zigor bat besterik ez nintzela. Txikitatik izan zituan Maddi eta Jon gurasoen kuttunak. Maddi gehiago, halere. Polita huen, langilea. «Nuestra hijita favorita», deitzen ziotean bezala. Beti klaseko popularrena.” Zurratada luzea. Sirena hotsak kalean.

“Beharbada aurkitu dituzte. Osaba Joxek akaso. Frantziatik gaur zetorrela uste diat. Ba ez zian eszena

makala aurkituko...” Irribarrea. “Nuestra hija favorita.”
“Ni, ordea, alferrena, inozoena eta errebeldeena. Edozein gurasoren lotsa. La oveja negra.”

“Txikitan aitak ehizera eramaten nindian, gogoratzen al haiz? Amaren aurrean zegoenean nirekin oso ondo portatzen zuan... kabroi bat, hipokrita nazkagarri bat besterik ez zuan. Ehizera joaten ginenean, ordea, bere benetako aurpegia erakusten zidaan. Jipoiak eta beldurra. Bere beldur ninduan, bai, oso beldur... ez nian berarekin ehizera joan nahi... baina bere mehatxuek azkenean konbentzitzen ninditean. Kabroia...” Zurrutada. Bekokiko izerdia lehortzen du. “Beno, utz dezagun hori orain. Jadanik berdin zio. Hilda zegok, eta ezingo naik berriro jipoitu.”

“Badakik? Amaren ezkutuan edaten zian. Ehizera zihoanean bi botila eramaten zitian. Beti ibiltzen zuan mozkortuta. Egun batean, basoan, besteetan baino gehiago edan zian. Ni isilik, beraregandik ahalik eta urrunen mantentzen ninduan. Baina egun hartan, ez zekiat zer zorakeriak jota, amari kontatuko niola otu zitzaioan. Niregana hurbildu zuan, zuzen ibili ezinik, eta eskopetaren kainoia buruan ipini zidaan. Ez diok amari ezer esango honetaz, ez da? Ni dardarka, hitz egiteko ere ez nintzen gauza. Beldurra gorputz osoan sentitzen nuen. Berriro galdetu zidaan, oraingoan garrasika. Ezezkoa egin nian buruarekin, baina ez nian ase. Kolpeak ematen hasi zitzaidan, «Nik isilduko haut!» errepikatzen zian bitartean. Etxera iritsi ginenean, malda batetik behera erori nintzela kontatu zioan amari.”

Porroa bukatu zaio. Xiringa ondora botatzen du. “Hiltzea merezi zian.” Eskuak blai eginda dauzka, dardarka. Zakurra zaunkaka hasi zaio.

“Ironikoa zirudik, baina buruan jarri zidan eskopeta bera erabili diat hiltzeko. Armairu baten goiko aldean zeukaan gordeta, giltzapean. Non zegoen inork ez zekie-la uste zian, baina nik aspalditik nekian, mozkortuta zegoen batean erakutsi baitzidaan. Jakina, edanegia zegoan orain ezer gogoratzeko. Kaxaren giltza non gordetzen zuen ere esan zidaan. Lepotik zintzilik denbora guztian, lo egiteko izan ezik. Orduan mesanotxean.”

“Horregatik joan natzaiok bart logelara. Lotan zegoan. Bertantxe hil behar izango nikean, baina eskopetarena gogorarazi nahi nioan... putasemea lasai zegoan, bere buruaz oso segur, beti bezala. Oraingoan ikusiko duk. Mesanotxeko kajoia ireki diat. Hementxe zegok. Giltza hartu eta egongelarantz joan nauk. Armairuko atea ireki eta kaxa arropa zahar batzuen atzean topatu diat. Giltza sartu eta morroiloak buelta eman duenean, badakik, izugarritzko satisfakzioa sentitu diat. Garaile baten satisfakzioa.”

“Ireki egin diat. Han zegok, o!, nire mendekuaren erreminta. Bere edertasuna miretsi diat. Nire esku artean zekusat, zerbaitek lurra zarata gorrez jotzen duenean. Balen kaxa. Larritu egin nauk eta, urduri, kostatu egin zaidak kaxa ireki eta balak hartzea. Ni gero eta urduria-go. Pausoak. Eskuak dardarka nitian, izerdituta. Kostatu egin zaidak behatz marikoi hauek erantzutea. Barka ezak nire esperientzia eza, baina gurasoak hiltzen ditudan lehen aldia duk”. Kokeren aurpegian irribarrea, bere txantxari erantzun moduan... “Azkenean lortu diat. Bala bat lehenengo, beste bat ondoren. Orain errekamara beteta zegok. Segurua kenduta. Ondo. Nire atzeko ahotsek zer-bait esan zidatek, ez zekiat zer. Buelta eman eta kainoiarekin apuntatu zieat eta biak lurrean seko bukatu arte za-

paldu diat gatua. A zer zarata ederra, balena! Gero eskaileretara begiratu diat, Maddik harrituta begiratzen nauen lekurantz. Bang, bang, eta kito! Bat gutxiago. Eskaileretan behera erori duk bueltaka. Jonena tristea izan duk, besteek baino denbora gehiago behar izan dik hiltzeko. Berarena ere esperientzia falta; ulertzen diat, txo, hiltzen haizen lehen aldia.”

Karkara zoroa, baina laster isiltzen da. Negar batean hasten da, ume baten negarraz. Zakurrak zuzenki begiratzen dio, begi-begietara. “Hik bezala gorrotatzen ninditean, txo. Beraien errua izan duk. Ni halabeharraren erreminta bakarrik izan nauk.” Begirada zuzena, epaitzen duena. Begi-begietara. “Hik nire lekuan gauza bera egingo huen. Gauza bera! Ni ez nauk erruduna.” Koke jaiki egiten da, gorputzaren pisua paretaren kontra sustengatuz. Zakurraren begirada beregan sentitzen du, eta honek urduri jartzen du. Eskuineko eskuan, indarrez, makila. Begirada zuzena, epaikorra, *Epaikorra*. “Hik nire lekuan gauza bera egingo huke!” Kordoka, txokoan kokildurik dagoen animaliarenganantz hasten da ibiltzen. Oinak herrestan daramatza. Behin baino gehiagotan oreka galdu eta erortzeko zorian egon da, hain da traketsa bere bide egitea.

Bat-batean ez dago zakurra, ez daude begi epaikorrek. Gurasoen eta anai-arreben begirada zuzena sentitzen du orain. Ezin du jasan. Makila altxatzen du airera eta, indarrez, mamu horien kontra jaurtikitzen du. Behin eta berriz.

Zakurraren gorpua hor dago, geldirik eta bizirik gabe. Bere odolak inguruko zementua gorritz tindatzen du. Kokek zakurra hil du. Hil egin du. Gurasoak bezala.

Maddi eta Jon bezala. Hil egin ditu denak. Buruan mina, min jasanezina. Giro klaustrofobikoa, kea, beroa. Lurretik argi kable bat jasotzen du. “Ez, ez naiz erruduna, ni ez.” Kablea korapilatzen du. Bonbilaren sokari lotzen dio. “Beraiek izorratu ninduten, eta orain neuk izorratu ditut.” Koke kaxa baten gainera igotzen da. Bere aurrean, kableak zirkulu bat deskribatzen du. Zirkulua lepo inguruan estutzen du. “Ez naiz erruduna.” Kaxari ostiko bat ematen dio. Bonbilatik zintzilik dago orain, mugitu ezinik. Kablea lepo inguruan sentitzen du, gero eta estuago, bizitza zurruputzen dion bitartean. Bere lehen urtebetez, Maddi logelan, ikasten, kalean Jonekin jokatzeko zintuen futbol partiduak, bere ama plantxatzen, dena begien aurrean igarotzen zaio. Eszena horiei heldu nahi die, baina eskuetatik aldegiten diote. Bere agoniaren azken uneotan, dauzkan indar printzak agortzen dizkiote ezpainenek. “Zakurra...” Piskanaka mundua iluntasun beltzeko estaltzen du. Jadanik ez da mugitzen. Bolta gutxiko bonbilaren kulunkadek itzal luzeak proiektatzen dituzte behinola zuriak izanda, tabakoaren keak belztutako pareten gainera.

Ohore galdua

Iraitz Agirre Aranguren
Almen ikastola
Eskoriatza

Hamar bat minutu badaramatzat gela zikin honetan bakarrik. Buruz dakizkit posterretako lemak, kajoi bakoitzean sartutako txuletak non dauden, irakaslearen kaxoian dagoen bonboi kaxan zenbat bonboi falta diren... Betikoa. Ez dakit zergatik harritzen nauen gaur ere hemen nagoela pentsatzeak; azken finean, amak badaki non nagoen. Hautsez betetako leihatera hurbildu naiz. Mutilen futbol taldea entrenatzen ari da eta futbol-zelai aldeetan, kurtsoko neska guztiak, haien ipurdiei begira. Nazkagarria.

Gorkaren aulkian eseri naiz, gertuen dudanean alegia. Ez dakit nola egiten duen, baina ez dut inoiz horrelako kaxoi nazkagarririk ikusi. Eskua kaxoian sartuz gero, erraz aurkituko duzu txikle zaharren bat, edo pipa azalez beteta dagoen paperen bat. Aajjj...! Nire adineko mutil guztiak zikin hutsak dira. Benetan.

Nola egiten duen ez dakit, baina Josune, irakaslea, beti atzeratzen da ni zigortuta nagoenean. Zergatik ez ote da atzeratuko klasea hasten denean? Irakasleok ulertuko dituenik ez da mundura jaio. Berandu etorri arren, berdin kobratzen dute; guk kateatu arren ere, berdin kobratzen

dute, guk piper eginda ere, berdin kobratzen dute. Pentsatzen jarrita, ez da ez lanbide deserrosoa.

Gaur ile-apaindegian txanda hartua neukan; zorixarrez, beste egun batera aldatu beharko dut. Ilea hori jarri behar dut: sustraiak beltzez eta ile puntak horiz. Amak akabatu egingo nau, baina berdin dio. Neure ilea da eta nahi dudana egitea daukat. Amak beti esaten dit, “Eskerrak aita kartzelan dagoen. Horrela ikusiko bazintu, ikaragarritzko egurtua emango lizuke.” Baina aita kartzelan dago eta ez dut uste ni horrela egoteagatik gehiegi larrituko litzakeenik. Gure ama hau...

Ate atzean ahots batzuk entzun ditut. Josune izango da ziurrenik, bakarrik hitz egiteko ohitura baitauka. Atea zabaldu eta Josune ikusi dut lehenengo. Gero, gizon bizardun bat. Josune beti bezala dago, ile gorriska txirikorda batean bilduta, artilezko jertse polit bat eta soineko luze urdina soinean. Ezin ahaztu beti eramaten dituen mendiko bota horiek. Gizonak, berriz, erosoago dirudi. Laukidun alkan-dora eta batere ongi ematen ez dioten praka marroiak.

– Arratsalde on, Haizea.

– Arratsalde on, bai –erantzun diot. Baina berak badakien bezala, hau ez da nik arratsalde on baterako dudana plana.

– Hau Eugenio da, psikologia irakaslea –aurkeztu dit Josunek irribarre zabal batekin.

Psikologoa? Irakasle hau ez dago sano! Behin edo behin esan didate ez nagoela guztiz sano, baina hau zuzenegi esatea da. Egia da noiz behinka irakasleren bati zerbait gogorra esan diodala, baina ez dut uste horrelako zigorra merezi dudanik.

– Kaixo Haizea –esan dit Eugenio delakoak– Josunek deitu dit, aspaldiko lagunak baikara eta arazoak dituzula esan dit.

– Arazoak? Aizu, ni ez nago zoratuta!

– Psikologook ez ditugu zoroak bakarrik tratatzen.

– Ez, baina bai guztiz sano ez daudenak –tipo honek zer uste du? Hamabost urte ditut eta badakit zer den psikologo bat. Gainera, umeei egiten zaien moduan hitz egiten ari zait. Berak behar du psikologoa, ez nik.

– Haizea, mesedez. Eugenio asmo onenarekin etorri da. Laguntzen utz iezaiozu.

– Zuk ere zoratuta nagoela uste al duzu, Josune?

– Haizea! –haserretzen ari dela dirudi Josunek– Arazoak dituzu eta horiek konpondu egin behar ditugu.

– Nik ez daukat arazorik.

– A ez? –orain Eugenio horrek– Beno, agian ez, baina irakasle bati listua botatzea oso larria da. Eta ikaskide bati telefonoz mehatxu egitea, berdin. Eta badaude zure espedientean oso arruntak ez diren zenbait ekintza.

Ongi. Esan duen guztia egia da, baina detailetxo bat falta zaio. Zergatia. Gauza da M^a Luisak, listua bota nion irakasleak, ikaragarritzko gorrotoa didala aitarenagatik. Listua bota nion egunean, aita iraindu egin zuen eta baita ni ere. Laister aita bezalakoa izango nintzela esan zidan, droga trafikatzailerik bat. Hau esan eta listua bota nion, egin nezakeen bakarra zen. Eta ikaskidearena, gaizki ulertu bat izan da. Kontua da Nerearen aita ertzaina dela eta mundu honetan, ertzainen hitza sakratua da, gezurra

bada ere. Ni mutil batekin irteten ari nintzen, Ikerrekin, eta Nereari mutil hau gustatzen zitzaion. Beraz, gelako mahaian paper bat utzi zidan. “Utz ezazu Iker, emagaldu nazkagarri horrek. Nirea da eta beraz, ez baduzu uzten, akabatu egingo zaitut, badakisu, nire aita erzaina da”. Nor zen segituan jakin nuen, “badakisu” hori, horrela idatzita, Nereak bakarrik idatz zezakeelako. Eta “erzaina”, berdin. Inozoa da neska. Beraz, deitu egin nion. Hori da guztia.

– Biok bakarrik utziko zaituztet, ados? –esan du Josunek irtetearekin batera.

Minutu pare bat isilik pasa dugu, Eugeniok eta biok. Tipoak intsumisioari buruzko kartela irakurtzeari ekin dio. Hori izan da ukitu duen lehen gaia.

– Zer iruditzen zaizu intsumiso izatea?

– Niri? –Zer arraroa; ez nekien psikologoek intsumisioari buruz hitz egiten zutenik– Ongi. Suposatzen dut bakoitzak nahi duena egitea daukala bere buruarekin. Ez badu tiro egiten ikasi nahi, ongi iruditzen zait.

– Bai, baina, zu mutila bazina, intsumiso egingo zinateke?

– Aizu, hau al da zure lana?

– Galdera bat besterik ez zen. Eta homosexualitateari buruz?

– Eta zuk Aita Santuari buruz?

– Gizon txepel bat dela. Sinistunentzat idolo bat izango da, baina niretzat, zu eta ni bezalako bat –erantzun dit nire erantzuteko moduari garrantzirik eman gabe.

Amonari hori eginez gero, edo aitari, ikaragarritzko egurtua jasoko nukeen.

– Aizu, mesedez, ez konparatu ni Aita Santuarekin.

– Ez zara ba sinistuna izango? –asmatu du psikologoak, gelakideon umetako argazkiak ikusten dituen bitartean.

– Ez, ez.

– Hau zu zara ez da? –galdetu dit nire argazkia atzamar artean hartuz. Bai, ezin beste bat izan. Ondoko gizon hau aita duzu, ez da? Eta albokoa ama, ziurrenik.

– Benetan jakintsua zara gero. Itsu batek ere jakingo lukeen gauza asmatu duzu. Zorionak –azkarra izan behar du gizonak hori asmatzeko.

Paseotxo luze bat eman du gelan zehar psikologo jaunak eta hormetako paper bakoitzeko lemez galdetu dit. “Sinisten al duzu estralurtarretan?” “Eta mamuetan?”... Ordu erdi egon da horrelako galderak eginez. Aspertzen hasia nago. Tipoak ere igarri du nire interesa nola dagoen eta ordua dela esan dit.

– Haizea, eta biharko aitaren deskribapen bat ekarriko bazenit? Askok laburtuko genuke bisitaldia.

– Bihar ere zurekin egon behar al dut? –nik harrituta.

– Bai.

– Ez duzu oso pozik esaten, saio laburragoa nahi baduzu, aspertu zaren seinale.

– Oker zaude oraingoan. Ez naiz batere aspertu; are gehiago, oso gustura egon naiz.

– Sentitzen dut, ezin dezaket gauza bera esan. Agur.

Gizonaren azken hitza entzun gabe irten naiz. Behean lagunak zain izango ditut, gaur zer gertatu den galdetzeko. Gaur ere asmatu dut. Betiko lauak daude: Amaia, Eneritz, Itziar eta Naia. Azaldu bezain pronto, Naia hasi zait galdezka.

– Ezetz sinistu? Psikologo batekin egon behar dut egunero, orain zoratuta omen nago. Eneritz, emaidazu zigarro bat –eskatu diot bat ateratzen ikusita– Oraingoz intsumisioari, homosexualitateari eta estralurtarrei buruz zer pentsatzen dudan galdegiten ibili zait. Ikaragarritzko harrikada dauka.

Zigarroa piztu eta kea irentsi dut. Behar nuen. Ez naiz oso erretzailea, baina behin edo behin ondo sartzen zait zigarrotxo bat edo beste. Psikologoarekin izan dudan hizketaldia hitzez-hitz azaldu behar izan diet. Kontakatilu zahar batzuk besterik ez dira. Denak aberats samarrak. Eneritz urtero joaten da EEBBetara ingelesa ikastera. Amaia kosta aldera joaten da, hirurogei milioiko txaletera. Naia urtero kanpora joaten da gurasoekin; egingo nuke Europa erdia ezagutzen duela. Itziar berriz, nigan-dik gerturaxeago dago diru kontuetan, baina ni baino hobeto. Udalekuetara joaten da urtero eta duela urte pare batetik hona, motorra erosteko dirua gordetzen ari da. Eta ni; aita kartzelan duen neska. Hil bukaerarako justu ibiltzen den horietakoa. Horrelakoa da bizitza.

Etxera iritsi eta amaren betiko galdera. “Non ibili zara?” Gertatutakoa kontatu diot eta ikastetxera deituko duela zin egin dit. Psikologoarena ere kobratu egingo omen digute, hala dio behintzat. Baina azkenean ez du deituko, ondoegi ezagutzen dut ama.

Aste bete inguru daramat Eugenio delakoarekin. Egunero, arratsaldeko lau eta erdietatik bost eta erdietara. Berdin sentitzen naiz, baina hobetzen ari naizela dio Eugenio honek. Bera da aditua, ez ni, hala diote behintzat. Egunero bezala, bera hasi da hizketan.

– Orain aste bete zure aita nolakoa zen idazteko eskatu nizun eta ez zenuen egin. Beraz, hitzez egin beharko dugu. Nolakoa zen zure aita?

– Geldi e? Aita bizi da, beraz ez ezazu hilda balego bezala hitz egin.

– Barkatu. Etxean nolakoa zen?

– Aita guztiak bezalakoa. Ez zen askotan etxean egoten, beti bere tailer zahar horretan. Goizean bakarrik ikusten nuen, klasera etorri aurretik. Astebururen batean ere etortzen zen, baina egiten zuenerako... Errieta egin eta amari kolpe pare bat eman. Gogoan dudana zera da, arratsaldero, norbaitek dei egiten zuen etxera aitagatik galdezka. Beti gizon bera zen eta egunero, lantokiko telefonoa eskatzen zidan. Orain, pentsatzen jarrita, drogadiktoren bat izango zen, edo gameluren bat.

– Noizbait jo al zintuen?

– Bai, batzuetan bai. Etxean egoten zenean, astean behin edo, zaplaztekoren bat irabazten nuen.

– Jotzen bazintuen, zergatik defendatzen duzu orain, kartzelan dagoela?

– Nire aita da. Egia esateko ez dut gehiegi maite, baina nire ohorea dago jokoan. Aitagatik zerbait txarra esaten badute, ni bera bezalakoa izango naizela diote, eta ez dut atsegin. Zenbat eta gutxiago hitz egin, hobeto.

– Horrela uste al duzu?

– Ez da nik uste dudana, egia baizik.

Aitaren gainean ikaragarritzko galdera pila egiten jardun du Eugeniok. Egia esaten diot; tipo jatorra da, arraroa baina jatorra. Gainera gezurra esanez ez dut deus irabazten; beraz, nahi beste hitz egiten dut.

Taxian goaz ama, amona eta ni. Gaur emango dute jakitera aitaren epaia eta ikusi egin behar dugula dio amak. Atzo Eugenio eta ni amonari buruz hitz egiten egon ginen. Amaren aldeko amona, harremana dudan amona bakarra, besteak ez baikaitu ikusi ere egin nahi; ez aita, ez ama eta ez ni. Amona Engraxik, gurekin datorrenak, ikaragarritzko jenio txarra dauka eta zerbait txarra esanez gero, alpargatarekin joko zaitu, ez zalantzarik eduki. Behin, etxera berandu iristeagatik, alpargata osoa begian sartu zidan eta ospitalera joan behar izan genuen. Harrezkero, ipurdian jotzen nau. Amak berriz, ez nau sekula jo. Iritsi gara.

Pentsatu baino lehen hasi da audientzia. Aita ekarri dute, baina ez digute ukitzen utzi. Ez zait gehiegi axola. Orain hilabete egin zioten epaiketan, hogeit bat urterako zigorra ezarri zioten baina, amak dioenez, aurkako abokatua ez zegoen pozik eta errekurritu egingo zuen. Ez dut ulertzen zer den errekurritzea, baina gauza da abokatua ez zegoela pozik.

Epaileak abokatuei gerturatzeko eskatu die epaiketa hasi aurretik eta ados jarri omen dira. Aitaren aurkaria hasi da aurrena hitz egiten. Niri buruz hitz egin du eta aita txarra dela adierazi. Arrazoi du. Karpeta urdin batek txosten bat atera du eta berriro hizketan hasi. Zenbat hitz egiten duen honek!

“Agian ez du berorrek jakingo, epaile jauna, baina Jose Kortazarren alaba, Haizea Kortazar, psikologoekin dabil. Psikologo horrekin hizketan egon ondoren, txosten bat eratu dut non, psikologoak emandako kasete zinta batean, Haizea Kortazar andereñoak tratu txarrak jasan zituela agertzen den...”

Zinta bat? Noiztik daude grabatuta nire hizketaldiak? Ama begira dut, negarrez hastear. Aitak ere buelta eman eta begirada tristez begiratzen dit. Jaiki eta “Nik ez dut ezer egin” garrasi egiteko gogoia sartu zait, baina beste gauza bat egin dut. Zerbait oso larria. Ni ere negarrez hasi naiz.

Nola egin dit hori zerri horrek? Ez dut aita gehiegi maite, ados. Baina lehengo epaiarekin, bera irten orduko nik hogeita hamabost urte izango nituzkeen eta aitak ez nindukeen joko. Nola egin dit hori? Amak gorrotatuko nau, baita aitak ere. Ez da posible.

– Ikastetxera deitu behar nuen, ikastetxera deitu behar nuen... –errepikatzen du behin eta berriz amak. Zer egin behar dut nik orain?

Eugenio madarikatu horrengana joan eta ukabilkada bat emango diot, badakit bera baino indartsuagoa naizela. Ez, ez da libratuko kabroi hori, ez horixe. Nire izatea zikindu du, etxean behintzat. Orain amak jo egingo nau eta errudun sentituko naiz betiko.

Laguntza emango omen zidan, eta begira zer egin didan. Nik listua bota nion M^a Luisari, eta Nerea mehatxatu, eta damutzen naizen beste gauza asko egin ditud, baina gehien damutzen naizena, gizon horri nire bizitza kontatu izana. Ondo sentitzen nintzen berarekin, baina

beste guztiak bezalakoa da, paper berde bat ikusi bezain pronto laguntza beste bati eskaintzen diona. Psikologia irakaslea... Ja! Nazkagarria!

Gau hotza eta lainoa

Iratxe Esnaola Aldanondo
San Tomas lizeoa
Donostia

Londres. 1840.

Gau hotza eta lainoa. Pamela handi bat ia ezin zen nabari laino artean. Ez zen jende hotsik aditzen, soilik bikote baten azken laztanak eta xuxurlak kale bazterretatik igarotzean. Behe lainoak dena estaltzen zuen, jada argitasun izpirik sentitzeko aukerarik utzi gabe. Gauda zen nagusi eta berarekin batera gaueko ibiltari bakartiak.

Farola batek eskain zezakeen argitasun eskasaren erdian, pameladun emakumea, behelaino eta zigarroak isurirako kearen atzean ezkututzen saiatzen zen. Ezin, hala ere, halako emakumea ohargabeen igaro... Begi zorrotz eta pozointsuek, atzetik jarraitzen baitzizuten inongo behelainoaren gainetik ere. Harat eta honat mugitzen zen, baina zapaltzen zuen edozer lasaitasunez estaliaz. Momentu batez karruaje baten zaldi irrintziak bihotza izutu zion baina, inork nabaritu aurretik, norabaiterako bideari ekin zion. Taberna baten egurrezko kartela airearekin kulkankan zebilen, untzi bat itsaso andrearen magalean bezala. Pamela ere arin zebilen emakumearen ileekin dantzan. Barrura sartu zen. Zerbait hartu eta, minutu batzuk beranduago, irten egin zen. Aurrera jarraitu zuen kale-

bazterrik bazter, atzetik txakur txiki bat zetorkiola ohartu zen arte. Txakurra eskuetan hartu eta Hangman zubira heldu zen. Bere azpian ur gardena igaro arren, laster odol tantek, isuri bihurtuz, ibai guztia odol putzu amaiezin izatera eraldatu zuten. Buelta eman eta pamelaren azpian irribarre ttipi bat margotu zen, ondoren barre ero bihurtuz. Txakurra, aldiz, ibai ertzean, urak nora eramango zain, hilik.

Emakumea zubitik aldentu eta berriro ere kale estuetako bideak zeharkatzen hasi zen. Amaitu berri zuen zigarrokina lurrera bota eta takoi altuarekin zapaldu zuen. Momentu hartan txistu hotz garratz bat entzun zen isiltasunaren gaintik. Oinatzak entzuten ziren kale bazterrean. Han ez zegoen farolarik, baina ilargi anderea dena argitzeko prest zegoen. Argitasunaren azpian gizon altu bat agertu zen. Itxura dotorekoa eta gorputz atletikoz hornitua. Emakumearen eta gizonaren begiek elkar agurtu zuten, jabearen agindurik gabe.

– Zertan dabil zu bezalako emakume dotore bat inguru hauetan ordu hauetan? –gizonak.

– Eta zer gertatzen zaie ni bezalako emakumeei? –besteak.

– Ordu hauetan bakarrik ibiltzeko ahul samarra zarela iruditzen zait.

– Gauari ez diot beldurrik eta bera da eguneko atalik ederrena.

– A bai? Nik zu bezalako emakumeak ahultzat hartu izan ditut beti.

Biak elkarri begira gelditu ziren aurrera jarraitzen zuten bitartean. Itxura gaiztoa zuten biek; begirada sakona,

irribarre maltzurra... Ezin esan nor zen bestea baino misteriotsuago. Horrela zebiltzala, tren geltoki zahar batera heldu ziren. Bere garaian jende inportante eta gorenek erabiltzen zuten, baina orain eskaleren baten edo besteren aterpe besterik ez zen. Trenbidea erabat utzia zegoen, sastraka eta arantza tristeaz apaindurik. Erloju zahar baten orratzek lanean ziharduten oraindik, nahiz eta leku hartan denbora iragan gabe iragaten zela iruditu. Eserleku ilara bat zain zegoen haurren kantuek edo helduen elkarrizketek noiz alaituko, baina oraingoan bi gau ibiltariren solasaldiarekin konformatu beharko zuen.

Momentu hartan, biak batera, eserleku hotz haietako batean eseri ziren. Bat-batean gizonak antzinako laban bat atera eta geltokiko erloju zaharrari jo zion. Ondoren emakumeari begiratu, bere jaurtiketaz harro, barretxo bat bota eta, gerrialde beltzarana erakutsiaz, sakelean gorde zuen. Emakumearen aurpegian, edonor harritzeko eran, beste irribarre ezti bat agertu zen zapata azpi hartatik, hanka eta belaunetan laztan eginaz, pistola txiki bat atera zuenean. Beso indartsua atzeraino eramane eta erlojuaren orratzetan itsatsi zuen bala. Oraingoan berak eskaini zion gizonari begiratu eta barre isekatsua. Elkarri begira gelditu eta, azkenik, elkar besarkatu zuten. Gizonaren besoek gogor inguratzen zuten emakumearen sorbalda. Ondoren musu basatiekin jarraitu zuten, elkarren toki ezkutuenak bilatzen zituztelarik... Gizonak emakumearen blusari gogorki tira egin eta kolpetik kendu zion. Laztanetan ari baziren ere, beraien aurpegietan ez zegoen ez maitasun bila zebiltzan keinurik, ez eta larru jotzearen bila zebiltzanik ere. Aurreko elkarrizketa eta ekintzek bezala, lehia zirudien honek ere...

Amaitu zutenean, solasean hasi ziren berriro:

– Non ikasi duzu pistola txiki hori erabiltzen? –gizonak.

– Bizitzan gauza asko ikasi daitezke, baita hiltzen ere.

– Hiltzen? Eta zertarako nahi du zu bezalako emakume batek heriotza baten errudun izan? –sarkasmoz.

– Ez da jakiten bizitzak zer ekarriko digun gauez, berak dena estaltzen digunean, hurrengo eguna ezkutatuaz –emakumeak bizkor.

– Heriotzaz, berriz, zer pentsatzen duzu? –gizonak.

– Heriotza... Heriotza bakea da niretzat –besteak.

– Bakea? Eta bakea atsegin izango duzu, ez da? –gizonak barre algaraka, maltzurki begiratuaz.

Pamela handi haren itzalpean burua makurtu zuen pentsakor, eta orduan:

– Ez. Bakea baino gehiago bakea sortzea. Zer iruditzen? Ez al duzu orain barrerik egin behar?

– Zer esan nahi izan duzu horrekin? –gizona larri.

– Ezer ez. Ja, ja, ja, ja, ja, ja...

Gizona erabat harriturik zegoen emakumearen pentsamendu maltzurrekin. Ez zuen uste horrelako emakume dotore bat halako ideia maltzurrez hornitua egon zitekeenik. Gizonak tren geltokiko bazter guztietara begiratzen zuen, irtenbide motzena bilatu nahian. Orduari begiratzen zion. Emakumeak, aldiz, beste zigarro bat piztu zuen. Gizona gerrikoa lotzen ari zen bi-

tartean, emakumea poltsatik ateratako produktu batzuekin apaintzen ari zen.

– Zer, presaka edo? –emakumeak.

– Presaka? Ez... ez ez... zer ba?

– Urduri ikusten zaitut.

– Ni urduri? Ez, ez. Inola ere ez. Zergatik egon beharko nuke urduri?

– Alde batera eta bestera begira ikusten zaitut eta... –emakumeak.

– Bai. Agian irtenbideren baten bila nabilelako.

– Ba... niri hala ere erabat kikilduta zaudela iruditzen zait –emakumeak.

– Kikilduta! Kikilduta! –oihukatu zuen bere gorputzeko giharre malgu haiek erabat gogortzen ziren bitartean.

– Beno... Kikilduta ez bazaude, erabat histeriko, ez? –emakumeak maltzurki.

Gizona guztiz gorritu zen. Emakume haren azkartasunak eta lasaitasunak bere onetik ateratzen zuten. Bera normalean gizon lasaia eta pazientzia handikoa izaten zen, baina gau hotz hartan ezin zuen gehiago egoera hartan iraun. Bere burutik milaka ideia igaroten ziren, bere tenperatura igotzen zihoan bitartean. Bat-batean zutik jarri eta honela esan zion:

– Emakume zital hori!!!

Lepotik heldu eta pamela lurrera bota zion, belarrondoko bat emanda. Ile beltzaran luze garbia agertu zen or-

duan baina, beste kolpe bat emanaz, atzera bidali zion. Gizona bere onenetan zegoen, zartateko bat bestearen atzetik jotzen baitzion. Halako batean emakumea lurrera bota eta belauniko jarriarazi zuen bortizki, eta esan:

– Orain zergatik ez duzu barrerik egiten? –gizonak. A ja, ja, ja, ja, ja! Zer diozu orain?

Emakumea kolpeak jasotzen ari zen eta bazirudien bereak egin zuela. Halako batean, pistola txikia hanka azpitik atera eta, irribarrez, sabelean tinkatu zion gizonari bala zorrotz bat. Odola gizonaren jantzietan garbitu eta, pamela buruan jartzea ahaztu gabe, lehen eguzki printzekin batera, presaka alde egin zuen.

1840. Londres

Gau hotza eta lainoa. Pamela handi bat ia ezin zen nabari laino artean. Ez zen jende hotsik aditzen, soilik bikote baten azken laztanak eta xuxurlak kale bazterretatik igarotzean. Behe lainoak dena estaltzen zuen, jada...

Noraezean

Maite Urrutia Urteaga
Xabier Munibe ikastola
Azkoitia

Jauzi batez esnatu nintzen eta argia piztu nuen segituan. Lanpara ondoan nuen gurasoen argazkia estutu nuen bihotzaren kontra, hotzikara batek bizkarmuinean barrena asintzen ninduen bitartean. Gau hartakoa ametsetan berriro errepikatu zen. Ohe azpian nengoen ni. Geldirik. Beldurrak ez zidan ia arnasarik hartzen ere uzten. Beste behin ere mozkorturik iritsi zen aita etxera eta amari deiadarka ari zitziaion. Zaplasteko bortitz bat eman zion orduan. Ez zen berari aurre egiteko gai. Ikaraz jositako begi dardartiz begiratu zidan, eta nigarrez hasi zen aitari bakean uzteko eskatuz. Hura ordea, bere onetik irtenda zegoen, ez zen bere ekinzen jabe, eta besoetatik gogor helduz mahai ertzaren kontra bota zuen. Erortzean, berriro begiratu zidan ama gaixoak. Bat-batean, odol putzu bat zabaldu zen lurrean.

Horregatik nengoen han, horma hotz haien artean, ni bezalako hainbat haur bakartirekin batera. Nahasturik, lur jota. Samina zen nigan nagusi. Bakardadea, tristura. Bihotza su ahul batek goxatzen zidan, baina iluntasunak betetzen ingurua. Iraganaren atzaparretan nengoen preso, lehoien harrapakinen moduan. Nire begi argi eta distiratsuak itzalita zeuden. Ezpain lodi eta haragitsuek ez zuten irribarrerik marrazten.

Ingurugiro beltz hartan hamahiru urte bete nituen. Gelakideek abestuz esnatu ninduten eta eskuturreko bana oparitu zidaten. Alai ikusi nahi ninduten. Gainontzeko haur denek ere zoriondu ninduten eta nik ezin izan nien keinu batez ere eskertu. Burua makurtzen nuen; gurasoe-kin ospatu nuen azken urriaren 12a nuen gogoan. Ez nuen sekula ahaztuko txokolatezko pastel haren gainean zeuden hamabi kandelak itzali nituen unea.

Goiz osoa leihotik begira pasa nuen. Eguraldia nire sentipenen isla zen: haize hotza, zerua laino grisez estalia eta eguzkiaren arrastorik ere ez.

Ez zen hilabete ere pasa, zuzendariak bere bulegora, albiste on bat eman behar zidala eta, deitu zidanean. Konk, konk, atea jo eta barrura sartu nintzen. Hiru begi pare finkatu ziren nigan. Ezin izan nien eutsi eta lurrari so gelditu nintzen. Oinetako zaharrak, diru eskasiaren adierazle zen alfonbra baten gainean nituen. Etxeberria jaunak, bikotearen ondoan kokaturiko egurrezko jarlekuan esertzeko agindu zidan.

Astebete pasa orduko nintzen “nire” familia berriarekin, “nire” etxe berrian. Benetan higuingarria zen niretzat. Senar-emazte haiek nire gurasoen lekua hartu nahi zuten, alabatzat nahi ninduten... EZ! Nik banituen neure ama eta aita. Eta beraiek ziren nire bihotzaren jabe, nahiz eta...

Egunak joan, egunak etorri, egoera gero eta korapilatsuagoa egiten zitzaidan. Hesi bat eraikia nuen nire inguruan, baina gero eta hurbilago nituen. Maitekiro tratatzen ninduten, goxotasunez. Edozertan laguntzeko prest zeuden beti eta behar nuen guztia eskaintzen zidaten. Giro hark guztiz beldurturik ninduen.

Udaberriko kaleetan barrena abiatzearekin batera, ezusteko dei bat jaso nuen. Hariaren beste aldetik zertoren ahots sakona entzutean, katuak mihia jan zidan. Amona zen! Baziren hiru urte zaharren egoitzan bizi zela. Jadanik ez zen gauza bakarrik moldatzeko eta gure etxea oso txikia zenez, bertara joan nahi izan zuen. Han gustura zegoela zioen, lagun ugari zituela.

Nahiko sarri ikusten nuen eta oso ongi konpontzen ginen elkarrekin, konfidantza handia genuen. Hala ere, zorigaitzeko gertaeratik ez genuen solasean egoteko aukerarik izan.

Ni ikusteko irrika biziz zegoela esan zidan, eta bisi-tan joateko lasaiago hitz egin genezan.

Bazkaldu orduko agertu nintzen han. Eguraldi ederra zegoen eta atarian aurkitu nuen amona, banku txiki batean eserita. Urrats arinez abiatu nintzen berarengana eta gogoz besarkatu nuen negar-malko lodiak masailetan behera zihoazkigun heinean. Sekulako poza hartu nuen nire aurpegiaren isla bere begi nekatuetan ikustean.

Denbora luzez aritu ginen hizketan. Banuen gainezka egiteko zorian zegoen edalontzia hustu beharra. Amonak, besoetan hartu ninduen bikotearekiko ikara denak uxatu zizkidan. Beraiekin fidatzeko aholkua eman zidan. Kezka edo arazorik izanez gero, haiei adierazteko, gainditzen lagunduko zidatela eta. Aldi berean, sortzen zitzaizkidan pozen berri ere emateko jakinarazi zidan. Honela, harremanak garatuz, elkarbizitza zoriontsu batez gozatu ahal izango nuela.

Hurrengo goizean txoritxoek kantu alaiak esnatu ninduten. Zerua urdin-urdin zegoen eta eguzki izpiak lotsati

samar sartzen ziren logelan. Belar arteetan loreak ageri ziren eta poliki-poliki zelaiak ostadar koloreko bihurtzen ari ziren. Zuhaitzak argitasun bila ateratako hostoez jantzirik zeuden, mendi maldetan arkume jaioberriak beren amaren inguruan saltoka zebiltzan... Izadian bizitza zegoela nabari zen. Bizitza.

Denbora gehiagorik galdu gabe, hegoak zabaldu eta ihesari eman nion.

POESIA. A maila

BBBko 3. kurtsoa, UBI,
LHko 2. gradua eta
IEEko 2. zikloa

Heriotzak ez zekiena

Jorge Gil Munarriz
Garaialde lizeoa
Urretxu

Heriotzak ez zekien bizirik zegoenik,
bere biktimaren elurturiko begien gatibu zenik
bere ahoak isurtzen zuen tabako usainean dantzatzen
[zuenik,
bere malkoen esku hotzetan kulunkatzen zenik.

Gauak bere mantu beltzez hiria estali zuen,
kaleak busti, isiltasunaz hedatu eta denboran galdu zituen;
haren zainetatik atsekabea barreiatzen zen soilik.
Baina heriotzak ez zekien
gau hartan kaleetan zehar galtzeko beharrik ez zuela
[izango,
biktima bat, biktima, etxean zuela,
egunkari txoko negarti hartan sorturiko
gizon txiki, beldurti hura zela, eta
ohean luzatua zegoela, eskuak buruan, malkoak begietan.

Heriotzak berak, hozkirri bat somatu zuen
bere soinaren azpian jolasten
logelara sartu zenean,
airearen zamari bizkar gainean heldu zionean,
argia itzali zutenean, gaua ilunago bihurtu zenean,
zeruak gela horretan ito zuenean.

Lurrak bere sabelera eraman zuen,
katakume bat bezala negar eginez,
bere biktimaren eskua plazerraren iturrira hurbildu
[zuenean,
bere begi pitzatuen itsasoan untzikaldu zenean.

Heriotzak telefonoa eskegi zuenean,
biktimaren orduko ahots sendoa
ekarri zuen burura.

Urrutian jaiotako ahots minduaz
bere gorputz zimurtua sentiarazi zuenean.
Soilik, bakardadea den putzu hartatik
irteteko sokatxoa bota
ziezaion eskatu zion.

Orain han zegoen, putzuan itota.

Heriotzak ez zekien infernua hain txikia izango zenik,
bere harresiak urdinak zirenik,
bere zorua hezea zenik,
bere garrasiak logela hartako isiltasunean hilko zirenik,
bere iluntasunean koloreak beltz bihurtzen zirenik
nahiz eta ezpainen marrubi zaporea nonahi usain
[zezakeen.

Edalontzi hartan isiltasuna bilatu nahi izan zuen,
amaieraren iluntasuna, belztasunaren mingostasuna
biziaren hondarretan galduriko bakardadea,
bere bularren amildegitik bere burua bota zuen gizon
[hura bezala,
ohe-gainean zegoena, bidaiatzen oraindik,
urdintasunaren geltokian bere maletak utziaz,
peajerako dirurik ez edukirik,
kobazulo hartan ainguraturiko oroimenek bultzaturik.

Erreka gorriska horrek bere barrena galdu zuen,
lepoa berotuz, bere bularrak lamikatuz, bere sabelean
[itota.

Edalontzia esku artean sostengatu zuen,
bere begirada, beira zikin hartatik labanduz,
begiak lurrean etzanaz, bere arima odol tarte
hartan bilatzeko asmoz zebilen bitartean,
bere gorputz txuria itsaso koloreatu haren aurrean
konfesatzen zuen heinean,
alua zotinka,
bularrak negarrez,
ahoa aurpegian zehar korrika,
begiak minduta bazituen ere.

Bortizki, edalontzia paretaren kontra jaurtiki zuen,
bere gorpupean, iturri zatitxo haiek,
bizitzaren parabola zikin eta barregarri
bat balira bezala,
lurrean behatu zituen, hilik, gelaren oinpean,
egoera begiztatzen, gorputzak miresten,
distantziak neurtzen, negarrak kantutzen.

Bere gorpu lodia biktimaren
tabako usainaz janzten zuen bitartean,
ispilu aurrean ikusten zuen bere burua,
errealitatearekin jolasten zebilen,
munduak oin-puntetan ukitzen,
egiaren hegazkinek, laino tartean,
HILTZAILE marrazten zuten bitartean,
amodioaren aingeruek,
ilunabarreko ahots itzalietatik
tirokatzen zuten bitartean.

Heriotzak, bere gorputz dorpea, biktimaren aurrean
[biluztua zuen,
ugaztetera hurbildu zuen, ilea lamikatu zion,
defentsarik gabe geratu zen
egiaren hegazkinen aurrean,
bere buruaren zamak bularra zapaldu zion,
airea ukatu zion,
hitzik gabe,
zentzuaren mailuak, odolez,
arrazoiak ez emateko baimena
kopetan idatzi ziolako,
baina heriotzak ezin zuen irakurri,
egia zer zen ez zekielako.

Heriotzak ez zekiena,
bere maitasunaren biktimarik goxoena izan nintzela,
hegazkinek bere izena
laino tartean marrazten zutela,
eguzkia beren atzean lotsati biluzten zenean,
amodioaren aingeruek
bere gorputzaren gainean, bala beroz,
bere izena grabatzen zutela,
bi munduen arteko zubia,
ametsez josia niola,
gauero belarrira, “eskerrikasko”
xuxurlatzen niola,
bere izena tintaren belztasunean galdurik,
egunkariaren lerro motz ximur hartan ikusi nuenetik,
mundutik erauzi ninduelako,
bere gorpua tiroka nezakeelako,
bere zeruan galtzen uzten zidalako,
bere belarrian gauero kosk egin nezakeelako
bere titiak, oroipenak kulunkatzeko utzi zizkidalako.

Heriotzak ez zekiena,
bere maitasunarengatik hil garenok,
bere magalean amets egitea baino gehiago maite dugunik,
bere sekretuak arakatzea ez dagoela,
bera ez dela armiarma sarez josiriko etxarte bat,
batasunez, logure goxoz eta mirariz beteriko
amets odol-eztitsu bat baizik.

Zu maitatzeko eta maitatua sentiarazi ninduzulako,
ESKERRIKASKO.

**Poetaren bidea,
amaierarik gabeko kalea...**

Monika Estévez Fernández
R.M. Zuazola institutua
Oñati

Sarrera

*Gaur deskubritu haut, Poesia,
arkeologoek altxor zaharkituak bezala
eta hire hitzetan galdu naun
kristalezko itsaso batean barna...
Gaur deskubritu haut, Poesia,
hire soken amaraunean bildu natzain
hasperen goibelen itolarriz
eta ene arimaren erdian haizeak
ene hiru poemak, ene hitzak eraman dizkin
ezerezaren ezpainen ildotik
ahantzitako irakurle baten altzora,
zaharkitutako mosaikoaren paradisura!*

I. Itxi itzan begiak eta ikusiko dun...

Itxi itzan begiak eta hire gorpu biluzia gozatu
senti ezan inuzentziaren haizea hire gorputzean jolasten
gozamenaren adreilesian murgiltzen...
Uki itzan hire bularrak, ez hadi ezkutatu
ez hadi beldurtu, inork ez hau begiratzen

kontura hadi barneko sua piztean
beti iraunen duela haizean...
Ez, ez dun nahikoa, inolaz,
begiak herstea,
jarrai ezan pentsatzen,
imaginazioarekin jolasten,
ilaia laztantzen
eta bere mihia hanka tartean sentitzean
egion keinu niminoena
eta hirekin hondoratuko dun desira
lujuriaren errekastoetan.

Bera da hire odol presatua bizkortzen duena
eta urruneko hondartzan eztanda egiten duten bi olatuak
[berriz,
hire hanka tartean kolpatzen duten bi olatu.
Baina eguzkia itzaltzean, desioaren laberintoaren irteera
[bilatzean
ezerezean urtuko ditun musu eta laztanen xarma desiratsuak,
hegazti berdeek laztandutako errealitatearen portua
[ageriko dun,
non sentitutako desioa, berotasuna,
gatibu dauden izarren esperantzazko kantua besterik
[izango ez baititun...

Eta gauaren iluntasunean, izara zurien birjinitatean bildurik,
sekretu itzalien leizean,
jarrai ezan begiak itxita eta ikusiko dun
zein erraz transforma daitekeen errealitatea
imajinazioaren distortsioaren menpean,
zein erraz hondora hazakedan
poema honen hegape malenkoniatsuan
eta horrela begiak itxirik, Rossane,
ahaztu itzan horrenbesteko gauez
maindireen negarren artean, hire bakardadearen aienean
logela abandonatu honetan
gauaren emagaldua izan hintzela.
Begiak itxirik, bai, Rossane,
goza ezan ahantzitako inuzentziaz,
dekadentziak suntsituriko katilu hiletan
ezbeharraren tangoak jasadako naufragioaren
azken birjinitatearen aztarnaz!

El proceso no es fácil: se trata de reconstruir
una vida que nunca han tenido, es como hacerles
cerrar los ojos para huir de esa realidad que tienen ...

(“Muy Interesante” aldizkaria)

What if you closed your eyes and you slept?
And What if in your sleep, you dreamed? And
 What if, in your dream, you went
 to heaven and there plucked a rare
 and beautiful flower? And What if,
when you awoke, you had the flower
 in your hand?

Samuel Taylor

II. Malekoi zaharrea

Malekoi zaharrea
gaua arroken artean galduriko
azken balada besterik ez da,
izarrek beren kolorea erakustea zilegi dute
eta bizitzak gaurkoan
maiteminduentzat bakarrik abandonatu ditu malutak.
Begiak itxirik nire ondoan somatu nahi zaitut
maitasunaren esperantza bizi baten irudi
eta haizearen tamarindoaren nahigabea
zeure irrifarraren goxotasunean galdu natzaizu
ahantzitako haragiaren ibai eta usainea.

Neure burua
mundu sintetiko malenkoniatsutik
urrun somatu dut
zeure ezpainen karriketan,
zeure izenaren intifada urrunen pergamuetan...
Hemen, malekoi zaharrear, begiak itxi ditut
zeru hutsari so eginez, isilean.
Eta amodioa paperezko hizki bihurtzen dudan lez
itsasotik irteten ikusi zaitut
koralezko diamanteen artetik
uhin bits zuriaren hipnotismoa baizinan.

Hemen, Malekoi zaharrear, elkarrekin urperatu gara
maitasunaren katakunbetan
eta hemen ene ametsak egia bihurtzen diren tokian
lore bat hostotzen den arrokkara eramane nauzu
leunki, goxoki, emeki
eta ene eskuen artean lorea bildurik
melodia urrun baten sinfonia bailitzan
maitasunaren zetazko anpuluaren artean lokartu natzaizu
errealitatetik horren urrun dagoen ametsean...

Hemen, Malekoi zaharrear,
ametsak amets izaten diraute
eta ene begiak zabaltzean
horizontearen mugakaiztasanean
galdurik ikusi zaitut,
olatuen oihartzun isilari segika,
eta hemen, ene eskuen artean,
horizonte horretatik urrun lore bat dakusat
maitasunaren ezpainen ildotik
ahantzitako maitale baten altzora bueltatu dena.

*Hemen Malekoi zaharrear
liburu baten atzean, agian taberna baten erdian,
edo maitale baten altzora iritsitako lore baten anpuluaren
[artearen
parkeko jazarlekuan, balkoi ertzean, nonbait,
guztiak jausten gara, bai,
maitasanaren aldapa luzean!*

III. Mendeen leihotik

Urteen arkupetan babestutako altxorra
lurra da mintzo zaizuna iraganeko mendeen ahotsez,
zu zara etenik gabe, urtez urte, mendez mende,
lehen ezpaletik ondorengo ezpaletara
ahoz aho iraganiko soinua.

Lizardi, Lauaxeta, Orixe, zoriontzen zaituztet, bai,
baina ez zaituztet maite,
bertutetsu jaiok izan zineten, olerkari guztien olerkari,
zeuon hitzak hil ondoren ere aho itxietan kabitzen dira
inolaz desagertzen ez den haizearen moduan diraute
inon amaitzen ez den ibaiaren tanta zarete.
Baina ni itzal eta odolezko pertsona huts bat besterik ez naiz
neure buruaren lehia naiz ni neu
sistole gabeko bihotza, ahorik gabeko ahozurtza
gorroto bakartiaren errorik gabeko intzirina.
Nire izatea, nire hitzek nahiz menpeko nahiz makurturik
ez dizuete, ez, merezitako gorespena eskaintzen.

Isiltasunak dagio ene urratsen erritmoari,
izkiriaturako ene poemen soinuari
eta ene hitzak ezerezean difuminatuak izan dira
ahantzi dutelako zeuok lortutako arrakastaren oraina,
hurbil dituzte ondino zeuon atzoa
eta urrun, oso urrun letorkieke agian merezitako geroa,
oihartzunik gabeko ezkila isilaren antzera, zuen idazkiak
[ez bezala
ene poemak ezerezaren grafitiak dira
zeuon arrakastaren islaren menpean.

Jose Mari, Esteban, Nikolas

nola maitatuko zaituztet bada, zeuok izan zineten
presiorik gabeko hitzak aireari lapurtu zenizkiotenak,
haiekin jolas eginez esposatu zineten beraiekin
eta itzalaren aurretik abiadan iraunez beldurrik gabe
argitasunaren izpietaraino iritsi zineten
geroaren ospearen kilometroak irabaziz antxintxiketan
[urteetan barrena.

Mendi garaienak igo dituzue, arnasa sakonki hartuz
literaturaren paisaia irentsi duzue,
ezagutu, ulertu eta barneratu;
baina igaro dira urteak, denbora, minutuak
eta hemen ni neu; poeta petral honek
harriduraz agurtzen zaituzte, baina sufrikariorik gabe
hainbat urtetan bizi izan dituzuenak
ez dituelako jada inork biziko.

Badakit ez dudala ene hitzekin kuadrorik pintatuko
denbora gehiegi galtzen dut amapolekin jolasten
eta bitartean nire hitzak koloreak nahasten
dituzteneko mihiseak zaituzte, amapolaren anpulu.
Ene erresuman zuen isiltasuna, zuen gorespena
eguzkiaren infinitoraino hurbiltzen den gailurra dut.

Lizardi, Lauaxeta, Orixe,
ene hitzetan ez duzue aurkituko
lurrin klasikoaren arrastorik, ez eta agian bederatzi
[puntukaririk
ene graffitietan, laberinto amaigabe honetan
milaka sentimenduz betetako inurritegian
errealitatearen munstroa aurkituko duzue
hitzen opakotasunean betiko galdurik.
Eta badakit, bai, hitza ez dela zeuon erresuman hil
poesiak dirauen bitartean poeta petralak bizi izanen garela
nahiz elur markak erabat galdu
nahiz kristal-elurra urtu
naiz ene imajinazioa agortu
beti egonen da norbait
hitzak izarretan zintzilikaturik
begiak itxirik, ametsetan,
hitzekin bizi eta hilko dena.

Urteen arkupetan babestutako altxorra
poeta bat mintzo zaizu orainaren ahantziaren omenez
eta agian lehen ezpaletik, ondorengo ezpaletara
denborak pago biluztuen kapusaia janzten duen bitartean
Orixe, Lauaxeta eta Lizardiren antzera
zure karriketari isuriak diren izerdien barrikadetan
ahoz aho iraganiko soinuen taupadetan errefuxiatuko
[natzaizu
zurekin hesitu nahian poesiaren zelaiak!

Bukaera: Poetaren bidea, amaierarik gabeko kalea

Poetaren bidea amaierarik ez duen kale arteza da
bertan hizkiak hareetan hondoratzen dira
eta askotan ilusioak literaturaren trokarteetan galdu,
poetaren bidea errealitate bat da
ikono ttipi bat literaturaren mosaikoan
eta poesiaren kale horretan, etxez etxe espaloitik aurrera
ezin da gelditu, ezin da atzera egin
eta itzultzen direnak bueltatzea nahi dutenean berriro
poesiak jada alde egingen du irakurle baten altxora betiko.

Poetaren bidea begiak itxirik imajinazioarekin jolastea da
emagaldu baten larruazalean sentitu
eta bere ezbeharraren tangoak jasandako naufragioan
azken birjinitatearen oroitzapenean murgildu,
mendeen leihotik ere abiatu daiteke

Lizardi, Lauaxeta eta Orixerenganaino
eta haiek bezala poesiaren karriketan
isuritako izerdien barrikadetan errefuxiatu,
maitasunaren aldapa luzearen bihurguneetan gal daiteke
batzuetan Malekoi zaharrean, besteetan lore baten
[anpuluaren artean

*Poetaren bidea amaierarik ez duen kalea da
bertan ez da deus ikusten kale artezako jomuga ez bada
eta han, non gizon zahar batek arrabitaz doinu
[malenkoniatsua jotzen duen
poetaren bidea imajinazioak alokatzen dizkigun ametsetan
zafirozko telegrama bat besterik ez da irakurle
[bakoitzaren bihotzean!*

Eternitatearen memorian

Miren Salaberria Eguzkiza
Pasaia-Lezo lizeoa
Pasai Donibane

Bake iraunkorren bizitza
Heriotza iraunkorren bizitza da.

Charles Bukowski

I

Denbora larregi igaro da enetzat
ilun paraleloki ordenatuak dauden karraketan ilun
ilun estolda zuloetarantz doazen erretenetan ilun
eta urratzen dut egi minez
eguzkiaren printzek lurrean utzi aztarna
biluztuz argiaren mozorroa; gauaren mintzairak
gordetzen duelakoan lira bat: atmosferan galtzen den
nota hauskorretako melodia,
ameskeria eta errealitatearen arteko arreo musikaduna.

II

Bide zabalegiak ostentzen dira
itsasoz haraindiko erresuma ezezagunetan
abestuz, melodia exotiko baten azken notak
engainua darien ezpain sentsualekin
eta nabaritzen dut badela esentzia suminkor bat
mortal ororen bihotz uzkurretako kale kantoietan
ametsen magalean etzateko guraz, maiteminki inuzente.

“Amets abstraktuetan bizi naiz
geometriarik gabeko lerro iheskorretan
irudi finkatubako nahasietan
kolore bizen kontrastea barneratuz.

Murgiltzen naiz lantzean behin
humanitateak xurgatzen gaituen errealitatera
eta etsitzen naiz utopiaren gonapean
ametsek hegoak dituztelako luze
baina bihurguneak motz.

Utopiaren doinuak haizeak barreiatzen dituelako
begi negartien ametsak oro zapalduz
irristatzen naizelako izana eta nahi izanaren besoartetik
Arren, utz iezadazu azken segundootan
ohantze erraustu honetako erregina izaten...”

Aurpegi kiskalian
Ezpainen zaurian
Musu erraustu batek egin nahi izan du ihes.

V. Maiakovski

III

Gomuten kuluxkan,
tabernako ke grisen espiral taigabeen
galdutako zure adats horailaren oroimena
eta mahai ertzean, orrazi erraustuaren hondarrak
ene gogoia xurgatzen, tatuatuak amodio platonikoaren
sinbolismo merkeak sorbalda bilutsetan.

Oroitzen, nola blaitzen zituzten izarrek zure erraiak
gaua lotsarazten zuten magnetismo arriskutsuaz
eta nola hurbiltzen nintzaizun uzkur, herabe,
zure presentzia urrezatuaren gazi gozoak dastatu nahiz
“femme fatal” baten esamolde lizunekin.

Inoiz, nirekin geratuko bazina,
larrosa bat loratuko litzateke ene begietan
eta zure berdetasun infinituan, lore bat
–beste bat gehiago anonimatoan–
izango nintzateke zure amorante guztiekin
denboraren magalean landatuta.

Oroitu egingo nuke, negar berreskuragaitzaren anpuluak
zure indiferentzian isuri
baina une haien gomuta nirea litzateke betiko, maitia,
eta inork ezinen lidake ebatsi
zure esentziak ene begiradan utzi lilura eta
hargatik sentitzen dudan pasio sofritua.

IV

Eta errekastoren alde batean
mutiko etsitua zegoen
pelota lurrera erori zitzaiolako
minetan gantzutua.

Eta ortze infinituan barreiatu-
laino batzuk zeuden
so eginez espazio mugagabe hutsari
seko erotuta bukaeraren bukaerako mugaren muga bilatzen.

Eta errekastoko mutilaren masailean
malko bat zegoen
minaren pausaje labur nekezean abailduz
indartsuenen artetik baztertua zergatik izan zen azaltzen
[zuena.

Eta han, urrutian, paisaiaren iluntasun grisean
soldadu gaztea zegoen
ulertzen ez zuen gerrara joateko irmo, sorbaldak tente
bakardade jendetsuaren bihotzean,
amatxoren gerizpea bilatu nahiz tristetuta.

Eta etxetxoaren barrukaldean
Maria zegoen
ametsen erresuman burua,
printze urdin batekin ametsetan;
ohe deseroso batean gorputza,
ezpataz odoleztatuz erraiak miseria baten truke.

Eta ohe horretan bertan
Felipe zegoen
kristau dotrinak arbuiatuz ilunabarreko meza ostean
Mariarekin lizunkeriatan emazte lodiaz aspertuta.

Eta imajina haiei begira
ni neu nengoen
bizipen zertzelatu haiek bizitzaren aje errepikakorrak
[bailiran
denboraren bularrean tatuatzen direlako
erabat nahastua bizitzaren aurrean bilutsik.

V

Zeruak mugarik gabeko espazio hutsa hartzen duela
eta lurraren sabelean hazi mortalak ereiten direla
eternitatearen sorbaldetan karminaz izkribatzeko.

Eguna mozorrotu daitekeela gauaren algarak bortxatuta
Iluna aspaldi oheratu zelako kotoizko urmahelen

[nenufareetako atsedenean;

Denboraren memorian erraustuko gara
ostenduz amodio platonikoen malurak oroimin bizietan
bizituz ilun karrika izenbako narriatuetan ilun
urratuz haizearen bizkar ezdeusak imajinazioaren ilusioaz
bistatuz itsaso eternalean gure isla nor garenentz jakiteke.

Amaraun anonimoetan

Jon Benito Aranberri
Lizardi institutua
Zarautz

... e quando il vento fischia io ti cercherò
Cercherò Te! quando la musica andrà
cercherò Te! quando si combaterà
ci sarai? Sì! e con te io canterò
ci sarai? Sì!

Introduction I

Oroitzapenak. (*edo handik geratzen denaren zati bat*
[bederen])

Introduction II

Gaur ikusi ditudan olatu bakarrak
nire ohekoak dira
eta olatuak lehertu ostean
ez diogu musurik bidali elkarri
gaur distantziak maitasuna garai dezake
eta maitasunak zain egon beharko du distantzia errenditu arte
bitartean nik bidalitako musuek
beste pauso bat asfaltatuko dute
zu eta nire artean

Trame I

Preso dauden telefonoetan bilatzera jo dut
berreskuratu beharreko nire ekialdeko kaioak
eta amnesiatik amnistiaturik aurkitu zintudan
eskema zaharretan
zure negarren berri ekuazioetan agertzeko
Euriari ezin zure malkoak berreskuratu
eta irudiak azken botiletan hustu behar
ez zegoen beste biderik
kariziazko malda hura baino
Hemen postaria da iraultzaile
ni armadako gudari koldarra
hau ez da desamoreen erreinua besterik
eta tristezia garaitu beharreko etsaia
Oroitzapenak aliatu zaizkit
baina
ene amorea zure gutunetara mugatzen da
postariak ordea ez dakarte katalogoetan nire amodioaren
[berririk
ondorioz zalantzari 20110 unitate biderkatu behar
erantzun zoriontsu bat bilatzearren

Baina beti tristezia

beti itxaropena

baina beti zalantzak errealitatea zapaltzeko

Azken 87 lerroei itxaroten

zentsurari muzin egin

eta urriko arratsek kolpa nazaten

salatu gintuzten izarrei atalaitik tiro egin genien

Zapaldu genituen lore haiek gaur elurrak zanpatzen ditu

eta jada ez da Coca Cola light edaten duen

printzipe azulik

ni baino bizkorrago telefono listinetan

zeure datu pertsonalak aurkituko lituzkeenik

Oroitu orain

Oroitu orain

oroitu...

Trame II

Maitasun arrats guduzeleko

zauritu balantzeak:

0,8 dekalitro sagardo

garagar zaporea

otsoak, maitasun platonikoetan lamiak

estazio huts galduak

Negar-tiroak

Nork imajina ditzake

karrika hutsak

palazioetako zurubiak

kristal islak

zure ezpainak zanpatu gabe?

kezko gutunek nikotina eta alkoholezko

bideak irakinarazteko

Agurrik ez, betiko gero arte besterik.

Trame III

Berpizkunde komikoetan
noizbait nik ere besarkatu nituen
damuzko eskailerak
negar egarriak asetzeko
nire arterietan
Desamorezko hiztegietan
Babiloniar astronautek
estazioko agurren
inguruko teoriarik erabil ez dezaten
Geure izotzezko balek errealitatezko jomugak erabiliko
[dituzte

Zer da sua?

Nork erre ditu psikologoen azken mantal polikromatuak?

Nork bahitu ditu terapian zeuden mendi kresaltsuak?

Zertarako kendu dute Kursaal maiteminduen erresumatik?

– Zinemetatik dinosaurioen filmak

baztertzearren

*“Egunen batean aldatuko zara
guztiz seguru nengoen.”*

– Metadona cocktail bat, mesedez!

Lasai,

oraindik Atenak gau bat sor dezake eta!

Terme I

Erlojuarekin tupust egiten

berandu

atzoko ordu bera

eta atzoko hodei beltzek tindatzen dituzte gaurko karririk

banda sonoro frustratu baten soinupean

batzuetan “mea culpa”k arrazoia

zeure inzialak bustitzen nauen kotxe bakoitzaren matrikulan

aterkia etxean ahaztu (*hostia!*)

Korrika egin behar dut

Korrika

1– Busti ez nadin

2– Berandu hel ez nadin

Denboraren orratzak ni baino azkarrago dabilta

Korrika

Korrika bizkor eta so egin

Karriken ertzetan aulkiak

Amoros bikoak elkarren mihiei listua noiz agortuko

eskola-umeak liburuak besapean

euritari ez diot zeure berririk eskatu

eta berandu ailegatzeko beldurrez hankak azkar

[mugitzeari ekin

Gutuna

Zalantza

STOP

Terme II

Etorkizuna eta honen zati den destinoaren esku utzi gaur
[telephone kabina batean aiduru

Terme III

7:27

Ametsari hondarrez makinaria izorratu zitzaion (*beti 690.*
karizian egoten aspertuta)

konponbiderik ez eta zalantza (*geu lez*) probabilitateen
magnitude berri
aduanen men egin eta

betikotz urrunduko gaituen igogailu erikorrean barneratu.

Herdoilari helbidea bilatu

nire erresuma ez beste (*ailleurs*)

ikusi gura nauen printzesa

ikusi gura

Nork asmatuko esmaltea dakusadan Galileo berri bat?

Eta distantziari galdetu.

Where is it? Who is it?

Bartzelonako portua, Colon.

Honek ez daki Jamaikako emagalduez beste

Telephone

Zure hitzen elkarrizketaz ene oinak lotu.

Mini-katea ON

PLAY

Sid eta lagunak.

*“I don't believe illusions 'cos
too much is real. So stop your cheap comment
'Cos we know what we feel”*

koadernoak zabaldu eta

zuri deskribatu nahi dizkizudan azken morfemak

bilatu eta

James Dean banintz ahoskatu nituen.

7:30

Terme IV

Jada agortu zaizkio orriak

pazientziaren kalendari

(Bakoitzak nahi bezala amai dezake...)

Gauaren ilunduran

Ekaitz Goikoetxea Asurabarrena
Txindoki institutua
Beasain

Betierekotasunaren teinkadan
odol punpuila
dario gaur
atzoko iguripenari;
aizto mindaria da herioa
bizitzaren erraietan,
lohadarraren odolbidean
unatzen den
goiztiriko azken arnasa...

... iragan sufrituaren oraina
geroaren orbaina...

Iragana eta etorkizuna
bat bera da nire gomuten
izurduetan,
orainaren herio bide karminetan
abailduriko
zuntz zarrastatua
oroiminez zipristindutako
zizpuru urratuan...

... iragan sufrituaren oraina
geroaren orbaina...

... herioaren hatsak
zedarritutako aztarrenak bailiran,
bakardadearen ainubeek
geroaren argi erlantza
urrikaltzen dute
ene bihotz hondoa
gauaren minean ildokatuz,
ilunabar ilunetan ainguraturik
balbearen begiradapean
beti...

... iragan sufrituaren oraina,
geroaren orbaina...

... zoritxarreko zoriona eta
zorioneko zoritxarra
elkarri musuka darabilzkit
hilduraren sehaskan
bizi nahiaren
nahi biziaren
gogoz,
etenik gabeko ferekan
dama beltzaren xedeak
kulunkatuz...

... iragan sufrituaren oraina,
geroaren orbaina...

... Keru xaramelatuan
isilaren hegats hotzean errotuaz
ezten urratuen harizpi zirpilak estekaturik
hur zait urruna,
barrunbe hutsaren itxiduran
dirauen jasapen astuna
itzal beltzaren erraietan kuzkur
bizi-mugaren gogamen mingarretan
atseden hartuaz...

... iragan sufrituaren oraina
geroaren orbaina...

... Iragana orraztuz
ozpin zait garratza
erlantz berrien esperantza
joanaren gomuta hozkilean
arginabar hitsen
oskorri arraien
garo gardenetan,
biharraren irriki iztilak
izartegi odolduaren
ernamuietan
idortzen baitira...

... iragan sufrituaren oraina
geroaren orbaina...

Eternitatearen etenean
hitz hil isilen
arnas itoen
betiko, aspaldiko
monotonia gogaikarrian,
bizitzaren hilobitik
heriotzaren ohakora
limurtzen zaizkit
bihotz iraungiaren
azken bizi printzak
egunsentirik gabeko
gau narean...

.... orainaren geroa,
nirekin ehorztera doa...

Gatibuari kantua

Egoitz Tolosa Eizagirre
La Salle ikastetxea
Donostia

I

Gorbeiaiko egunsenti gorriek,
behialako alaitasuna galduta,
laino beltz ilunetan
azaltzen dituzten aurpegiak,
zuri ez beste inori
erakusteko
euren edertasuna.

Orain,
galduak dira
zeruko arranoen firurika dotoreak,
galduak
loreek maitasunez janzten zituzten
belardien koloreak,
galduak
errekastoak mendiaren magalak
leunki laztanduz
sortzen zituen arnasestuak.

Orain,
udaberriak,
zure gabeziak kontsumituta,
udazkenaren soineko arrea jantzi du,

Udaberriak

zure izena oihukatzen duten mendiak
elurrez estali ditu.

Baina,

zure bizkar lasaian
lokarturik dagoen itxaropena
haizearen besoetan iristen da hona,
zure egarriz dauden gure
milaka eztarriok freskatzera.

II

Batek daki

elurrez ernari dauden pinu adarrak ulertzeko
zergatik ez dugun neguz janzten gure adimena

Batek daki

jelaz paralizaturiko erkametza begiztatzeko
zergatik ez ditugun ereiten urtarrileko eguzkiaren
[izpiak.

Batek daki

zuriz erosta jotzen duen haizea entzuteko
zergatik ez dugun dantzatzen orbelaren tangoa.

Batek daki

kateez loturiko gure lurtasuna maitatzeko
zergatik ez dugun besarkatzen naufragoaren kezka.

III

Horregatik, piskanaka,
Leteoko uretan piskanaka eta isiltasunean
mugitzen da, ibaiertz berrien bila,
txalupa.

Horregatik, xuxurlaka,
doinuen hiztegian xuxurlaka eta kexurik
ari da, aire berrien bila,
txirula.

Horregatik, tantoka,
arimaren putzuetan tantoka eta mardul
erortzen da, sakontasun berrien bila,
malkoa.

Horregatik, keinuka,
ekaitzaren etxean, keinuka eta ostadarretan
margotzen dugu, espazio berrien bila,
kolorea.

Horregatik, totalka,
poemaren zaurian totalka eta sendagai
laztantz dugu, ulerkuntza berriaren bila,
hitza.

Gatibu

garelako

udaberriz, neguz

isiltasunez, doinuz

hutsaltasunez, Jainkoz

baltsez, sonataz, sinfoniaz

sirtakiz, balletez, aureskuz

arrotz, euskaldun

eta

arrotz izaten ikasten dugun heinean ere

euskaldun.

Gatibu

garelako

zuriz, beltzez

argiz, itzalez

ametsez, logikaz

gatibu

denboratasunaren mugetan

gizon eta emakume betiereko

izan nahiaren

premiatz eta kantuz.

POESIA. B maila

BBBko 1. eta 2. kurtsoa,
LHko 1. gradua eta
IEEko 1. zikloa

Amaren heriotza

Olatz De Miguel Arnaiz
Udarregi ikastola
Usurbil

Ama hil zenetik
egunsentiko lehen izpiak
ez dira niretzat lehen bezain distiratsuak.

Ilun dago guztia,
nire arima bezala.
Jaiki eta leihora hurbildu naiz.

Udazkena iritsi da,
hostoak erortzen hasiak dira.

Urte bete,
urte bete ama hil zenetik!

Zeru gardenak ilun eta amaigabea dirudi.
Zeruertzera begira geratzen naiz,
liluraturik.

Ama joan da!

Pentsamendu bakarria buruan,
bat-batean nire begiradak
eguzkiarekin egiten duenean topo.
Eguzkia,
egunaren gidari,
gauaren etsai.
Berak ematen dio kolore bakarria nire bizitzari,
nire bihotzari.

Mendiak,
harresi beltzak
eguzkiaren oztopo;
bizia eta kolorea,
alaitasana eta adorea
sartzen uzten ez duten horma sendoak.

Mundua,
munduak biraka dirau;
bizitza,
bizitza aurrera doa;
baina ni, ez.

Bihotza,
arima,
biak bat eginik ama hil zenetik
bere oroimen goxoarekin geratu nahi bailiren.

Erreka,
ilun eta tristea,
alaitasun gabea,
zelai artean doan sugea;
garai batean bizia eta alaitasunaren aitzindari;
orain,
jada,
ez du niretzat esanahirik.

Alaitasunak ihes egin du nire bihotzetik.

Zuhaitzak
zerua harrapatu nahirik
hostogabeturik,
tristeturik.
Tartean bide estu bat,
nire bihotza bezala,
nire bizitza bezala,
non aurkitzen da harrapaturik.

Hori al da jarraitu behar dudan bidea?

Ez,

goibel eta tristeegia,

inora eramaten ez nauena,

baina nirea.

Aurreko paisaia

itxi eta iluna;

bukaezineko garaia

bihotzaren isuna;

nire pentsamenduan beti

amaren gozotasuna;

bere oroimen alaiak

bideratuko al du nire etorkizuna.

Ilunbeko neska txikia eta Hegoak

Nerea Makazaga Eraña
Arrasateko institutua
Arrasate

Ilunbeko neska txikia

Begiak ixten ditudanean,
neska txiki bat ikusten dut,
aurpegi zurbilak bereganatuta,
malko gorrien zaporea dastazera behartuta.

Belaunek dardar egiten diote,
neska txikia erortzear da.
Eta nik ezin dut bere lanturuaren hotsik entzun,
ezin dut ilunbearen itzaletatik enparatu.

Neska txiki hau gauero ikusten dut,
gauero,
begiak ixten ditudan bakoitzean.

Maiz, bere anpulu-malkoek nire begietan amaitzen dute,
ez dira gorriak,
baina hotzak eta garratzak izaten jarraitzen dute.

Eta nik *oihu* egiten dut,
badakit neska txikiak nire *oihartzuna* entzunen duela,
eta irriño leun baten zain gelditzen naiz.

Baina ez dago erantzunik,
eta *garrasi* egiten jarraitzen dut,
nire begiak malkoz *itotzen* diren arte.

Bitartean, ilunbetako neskatxak bertan iraunen du,
inork gogoratzen ez duen erreinu horretan.

Baina egunen batean,
ez oso urrun,
etorkizunak hautsiko dizkio
goibeltasunaren kateak,
eta a

s

k

e

izango da

eguzkiaren errainuek dantza egiten duten lurraldearen
zoriontasunaz gozitzen.

Eta ni,

hor izanen naiz

berarekin,

begiak itxita

gauero...

Hegoak

Lumazko hegoekin

gauero amesten ditudan erreinuak

bisitatuko ditut,

larpopulazioaren atzaparretatik ihesi,

etorkizunaren gidaziopean.

Nehoiz zeharkatzeke zeuden bideak

gain-hegatzuko ditut

txorien melodia ziztukatuz.

Ekaitzak belzutako zeruak

igaroko ditut

txorien melodia ziztukatuz.

Irtenbiderik ez duen labirintoa *ere*

zeharkatuko dut

txorien melodia ziztukatuz.

Azken batean,

ilusioa nahikoa baita

bideak aurrera jarrai dezan.

Beltz

Urki Bilbao Barruetabeña
Ondarroako institutua
Ondarroa

Doinua: “Leiho ertzetik entzun dezaket”

I

Txoko batean etzanda zaude
jadanik zahar eta nagi
bertso hauekin zu agurtzea
izango nuke gurari
malkoak ere begietatik
irteten zaizkit emari
azken pausoetan ari
Herio, zure gidari
barne dardara eta samina
nola adierazi kantari
hamabost urte hauetan lagun
izan dudan txakurrari.

II

Ene txakurra orain bertsotan
egin nahi nizuke oles
nire oin bien ondoan zaude
gaur, gaitzak jota tamalez
bertso hauexek idatzi ahal
banitza neure odolez
dardarti zaude azalez
bihotza minetan toles
ikusten zaitut begirada hits
ta gorpuzkera ahulez
zuk hainbestetan miazkatu ohi
zenituen hezurak lez.

III

Gure etxea zu gabe berdin
ez dela egongo jakizu
ia infernu bilakatu da
lehen zena paradisu
nahiz Dama Beltza hurreratu ta
ondotik bazoazen zu
barnean hainbeste izu
sortzen didalarik pisu
gau eta egun entzuten zaitut,
Beltz, negar malkotan kexu
ilargiari uluz dabilen
otso beltza dirudizu.

IV

Beltz, zu sufritzen zauden bezala
ni ere berdintsu nago
nahiz eta zure bizitza ez den
nirea bezain oparo
zure buztana horren jaitsita
egotea da arraro
iraun ezazu gehiago
muga ez zazu igaro
“Beste txakur bat izango duzu”
esan dit aitak lehenago
zu ordezkatu zaitzakeenik
mundu honetan ez dago

V

Isatsarekin niri aurpegia
laztanten zenidanean
jolas egin nahi zendula laster
jartzen nintzen jakinean.
Orain badakit ez zauzkadala
betiko aldamenean
galderak sortu heinean,
naiz erantzun ezinean
Norekin joango naiz pasiatzen
lagunik ez dudanean?
Nork babestuko nau gau beltzetan
bakarrik nagoenean?

VI

Jaioz geroztik gu elkarrekin
gintuzten hazi ta hezi
bai zaunkak eta baita kexuak
noiznahi banatzen ikasi.

Zure ondoan pasatu ditut
hainbat une gozo-gazi
ezin zu hala ikusi
etsipen negarrez kasi.

Ez dut ulertzen zergatik zoazen
gaur niregandik ihesi
ni bizi naizen artean, esan
ezin al zara zu bizi?

VII

Hamabost urtek bizitasuna
utzi diote atzean
une goxorik pasa genuen
lagun handien antzean
eta azkenak eman nahiean
oraintxe dabil trantzean
gogoratu bakoitzean
tristura dut bihotzean
begiak itxi ditu sartzean
lo goxozko baratzean
bi malko zuri agertu dira
beraren mutur beltzean.

Dakitenek jakingo balute

Xabier Paia Ruiz
Ander deuna ikastola
Sopela

Jendea kontrako zentzuan datorrela
kausitzen dut gehienetan

Thomas Bernhard

Ba al dakizue zer den maitasuna?

Ez da harritzekoa;

Hura ez baita kale kantoitik pasiatzen ikusten.

Odolak irakitearen eragile a**D**oretsua,

arazo metatzaile sutsua,

Hura ez baita gizart**E**aren magaletan **S**endotu.

Ma**I**tasuna gure bih**O**tzaren taupadak arintzen dituen

[sugarra d**A**.

Ba al dakizue zer den justizia?

Ez da harritzekoa;

Hura ez baita telebistako iragarkietan agertzen.

Auzite**G**ien arrazoi eta sortzailea,

askatasun hiltzail**E** malenkoniatsua,

Hura ez baita arra**Z**oiaren eta egiaren arteko lokarria.

Justizia besteentzat espero dug**U**n sagar ustela da,

gu**R**e eskuetan bildu**R**ik urduritasuna baino gehiago

[emango ligukeen**A**.

Ba al dakizue zer den begirunea?

Ez da harritzekoa;

Hura ez baita izarloka baten moduan noizbehinka baino

[ikusten.

Zentzudunen adiskide**A**,

Edukazio**aR**en betea**R**azle gogorra,

Hura ez baita in**O**iz gure sudurpe**T**an dantzan ikusi.

Begirunea gu**Z**tion gandik jaso nahi dugun sari da,

gugan gutxitan ikus daiteken nortasun label**A**.

Ba al dakizue zer den tolerantzia?

Ez da harritzekoa;

Hura ez baita ikasgeletako ikasgai erraz bat.

Bahituen aska**P**ena,

Eginkizun zalantzarri**eN** estakurua,

Hura ez baita eskuak igurz**T**ean **S**ortzen den su tant**A**.

Tolerantzia, haiz**E** bolada batean **Z**iztu bizian hegan

[d**I**hoan

aztar**N**a ikustezina d**A**.

Ba al dakizue zer den askatasuna?

Ez da harritzekoa.

Hura ez baita ametsen lurraldea

Banatzen duen adreiles**I**az bestalde suspert**Z**en.

Gauerdiko kanpa**I** hotsa,

Uso zurie**N** kabia,

Hura ez baita erorit**A**koen haranean herdoiltzen.

Askatasuna **H**ildakoak zerura heltzen direnean

beraien ar**I**ma gorputzetik banatzean lortzen den

[pisugabetasuna d**A**.

Ba al dakizue zer den bakea?

Ez da harritzekoa;

Hura ez baita parkeetako bankuetan lotan egoten.

Paper zuri baten isla**A**,

Zeharo arrotza da gure bizitzaren **M**onotonian,

Hura ez baita z**E**rupeko lurraldeetan bizi.

Bakea denok nahi dugun zerbai**T** da,

gure nahiak jarraituz **S**ekula lortuko ez dugun**A**.

Ba al dakizue zer den adiskidetasuna?

Ez da harritzekoa;

Hura ez baita....

URRZUNOTARRAK

1986-1998

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Agirre Aranguren	Iraitz	Ohore galdua	1998	115	Prosa
Agirre Arriolabengoa	Manex	Aitona	1997	155	Prosa
Agirre Elgarresta	Martin	Idazmakina bakarti baten azken narrazioa	1986	11	Prosa
Agirre Larrea	Antziñe	Irrati baten gora-beherak	1986	55	Prosa
Agirre Lazkanoiturburu	Mikel	Zergatik?	1989	143	Poesia
Aizpiolea Martikorena	Maialen	Azken orbela	1997	145	Prosa
Aldabaldetrekue Etxeberria	Gotzon	Itzultzerik gabeko bidaia	1993	97	Prosa
Altuna Angiozar	Nekane	Niregandik urrun	1987	95	Poesia
Altuna Angiozar	Nekane	Baldin argia ikustera iristen banaiz	1988	117	Poesia
Altuna Jauregi	Karmele	Praisku mutil zaharra	1986	99	Poesia
Altuna Jauregi	Nuria	Bizitza horrela delako	1987	11	Prosa
Alvarez Gerriko	Ion	Betidanik, betirako	1990	155	Poesia
Alzate Azpiroz	Jon	Zozketagai xelebrea	1992	103	Prosa
Alzugarai Sacristán	Aitziber	Zergatik?	1988	167	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Gogoratzen haiz	1995	195	Poesia
Amondarain Ipiña	Nagore	Malekoitik so	1997	185	Poesia
Amozarrain Mendizabal	Idurre	Pentsamenduak	1995	201	Poesia
Anzizar Lizarraga	Nerea	Blues bat gauaren iluntasunean	1997	35	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Amaigabeko itukin latzak	1992	17	Prosa
Apaolaza Goena	Amaia	Zaharra berri... orain eta beti	1993	59	Prosa
Apaolaza Larrea	Uxue	Azken bost minutuak	1996	77	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Iñigo	Sahatsaren azken negarra	1987	19	Prosa
Aranburu Aseginolaza	Maria	Bi hitz nire pentsamenduen maizterrari	1990	113	Poesia
Aranburu Zeziaga	Xabier	Hiriaren ostadarra	1989	113	Poesia
Aranguren Juaristi	Olatz	Aztiaren eskuetan...	1996	125	Poesia
Aranguren Mujika	Josune	Ni ez naiz Amaia	1997	65	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Aranguren Oiharzabal	Ainhoa	Gauaren atsedeen isila	1989	171	Poesia
Arratibel Galartza	Enara	Begi diztiratsiak	1995	49	Prosa
Arregi Elosua	Ainhoa	Konfidantzaren ordaina	1988	41	Prosa
Arrese Iturbe	Olaia	Maitemintzearen gaztigua	1993	175	Poesia
Arrizabalaga Linaza	Mirari	Zereko zera zertzeko	1986	105	Poesia
Arruebarrena Lizarralde	Miren Gurutze	Iluntasuna	1994	179	Poesia
Arruti Errazkin	Idoia	Ametsen bakardadean	1998	63	Prosa
Arruza Elgezabal	Amaia	Naturaren legea	1988	49	Prosa
Artetxe Arrien	Ainara	Isilpean bego Anttonen itxura	1988	89	Prosa
Artola Iriondo	Mikel	Nagusia eta hirurok	1992	87	Prosa
Artolazabal Amilleta	Amaia	Beltza ez delako hain beltz eta zuria ilunago	1996	195	Poesia
Artolazabal Amilleta	Amaia	Iluntasunean lorea zimeltzen den lez	1997	221	Poesia
Artolazabal Amilleta	Amaia	Denborak ez du astirik	1997	237	Poesia
Asurabarrena Zipitria	Lierni	Aitonaren heriotza	1996	137	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Iñaki	Merezi al du paradisuak?	1987	101	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Igor	0 14	1991	155	Poesia
Aurrekoetxea Arkotxa	Leire	Zure zain	1996	153	Poesia
Auzmendi Agirre	Agurtzane	Omnia vincit amor - maitasunak dena garaitzen du	1990	161	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Jaiotza bat	1996	171	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Garaiak	1996	187	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Desgaraiko olerki zentzugabe solteak	1996	213	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Zer dakarkit erreka urak zure negar malkoak ez badira?	1997	163	Poesia
Ayllon Corral	Mikel	Zure xerka	1995	187	Poesia
Azkarate Egaña	Belen	Amona, egia ote?	1990	19	Prosa
Azkue Ibarbia	Xabier	Azken hitzak	1987	107	Poesia
Aztiria Etxeberría	Nekane	Lamintxo	1986	17	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Baroja Arrue	Miguel M. ^a	Apokalipsis 1913	1994	25	Prosa
Basterra Fernandez	Ainhoa	Bihotzeko kontraesanak	1986	26	Prosa
Bastida Loinaz	Ana Isabel	Igande gau batetako eztabaida imaginarioa	1987	29	Prosa
Beloki Lizarralde	Leire	Itsasoaren menpean	1994	185	Poesia
Beloki Lizarralde	Leire	Amodioaren desterruan	1995	211	Poesia
Bengoa Santxo	Mikeldi	Zu eta ni (hiria medio)	1988	135	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Etorkizunaren lurraldean	1997	193	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Atzera begira	1997	199	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Zure gorputzaren abenidetan galduriko azken intifada	1997	205	Poesia
Benito Aranberri	Jon	Amaraun anonimoetan	1998	177	Poesia
Beobide Azpeitia	Begoña	Abestiaren argia	1989	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Amodioaren itsasoa	1990	145	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Auñamenditik zure leihora	1990	151	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Amodioaren sehaskan	1992	161	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Poesiaren magalean	1992	167	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Iraunen dute	1993	169	Poesia
Berasaluze Ostolaza	Garikoitz	Kimeraren harresietan	1994	137	Poesia
Betzuen Arana	Kepa	Seiak eta hamar	1995	113	Prosa
Bilbao Barruetabeña	Leire	Herioaz maitemintzean	1995	165	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Leire	Denboraren denbora	1996	117	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Leire	Farolpeko itxoitea	1996	161	Poesia
Bilbao Barruetabeña	Urki	Beltz	1998	217	Poesia
Bitorika Albizu	Arkaitz	Bat-batean baturik	1994	167	Poesia
Bizkarguenaga Jugo	Amaia	Itsastar baten gogoetak	1996	145	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Jazza dut maitale	1991	109	Prosa
Cano Jauregi	Harkaitz	Denboraren hautsontzian	1992	127	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Cano Jauregi	Harkaitz	Amodioa, gorriz jantziriko emagaldu hori	1993	125	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Erresuma ahituak	1993	133	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Jitolore	1993	45	Prosa
Cano Jauregi	Harkaitz	Kaosaren abantailan	1993	143	Poesia
Cano Jauregi	Harkaitz	Urak ekartzen duena	1993	183	Poesia
Collado Legorburu	Sergio	Leihotik begira	1994	115	Prosa
Churruca Fernandez	Xabier	Boga-boga sareetan	1988	81	Prosa
De los Mozos Olaizola	Izaskun	Heriotza	1988	155	Poesia
De los Mozos Olaizola	Izaskun	Semeak beti seme	1990	131	Poesia
De Miguel Arnaiz	Olatz	Amaren heriotza	1998	205	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Gau euritsu batean ezagutu nuen	1993	87	Prosa
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Esan al dizut inoiz...	1994	173	Poesia
Egiguren Azkune	Ekhiñe	Orkidea beltza	1995	131	Poesia
Egiguren Imaz	Izaskun	Aitorpenak ilunabarrean	1988	11	Prosa
Eguren Etxabeguren	Iñaki	Hallelujah! Hallelujah!	1991	117	Poesia
Elduaien Uranga	Estitxu	Bizitzan hamazazpi urte	1993	113	Prosa
Esnal Badiola	Aitor	Eguna	1988	123	Poesia
Esnaola Aldanondo	Iratxe	Gau hotza eta lainoa	1998	127	Prosa
Esnaola Goienetxea	Mateo	Ezkortasun boladetako gogoetak	1986	111	Poesia
Estankona Bilbao	Igor	Kondairak dioenez	1992	95	Prosa
Estévez Fernández	Mónica	The beautiful life of the drugs; very-very beautiful life...	1996	181	Poesia
Estévez Fernández	Mónica	Lehenaldia ahazten, oraina bizitzen	1995	223	Poesia
Estévez Fernández	Mónica	Desioan galdu arte	1997	177	Poesia
Estévez Fernández	Monika	Poetaren bidea, amaierarik gabeko kalea...	1998	153	Poesia
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Udazkeneko arrats euritsu bat	1994	63	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Au revoir, maitea	1995	29	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Azken trenaren zain estazioan	1995	19	Prosa
Estiballes Ormaetxea	Arkaitz	Bekatuaren isurkia	1995	57	Prosa
Etxebarri Coello	Aritz	Burruka	1988	149	Poesia
Etxeberria Yoldi	Naiara	Badajoztik edonora	1994	81	Prosa
Etxezarraga Ziarrusta	Irantzu	Arbasoen ahotan	1991	19	Prosa
Ezeiza Ramos	Ainhoa	Idazle proiektu baten aburuak	1989	25	Prosa
Ezkiaga Iparragirre	Amaia	Heriotz Andereak zuria du laket	1990	39	Prosa
Ferreiro Villaluenga	Daniel	Zakurra	1998	105	Prosa
Franko Sudupe	Jaione	Zerutar inperioaren zedean	1988	97	Prosa
Galarraga Aiestaran	Patxi	Oihartzun eta tenk	1989	121	Poesia
Galarraga Aiestaran	Patxi	Taiga eta Zorrilla	1989	127	Poesia
Galarraga Aiestaran	Patxi	Une hartan... eta orain	1990	137	Poesia
Galdos Arrondo	Olaia	Agurraren lezioa	1994	17	Prosa
Galparsoro Sarriegi	Ainhoa	Pailazoak irrifarra galdu du!	1992	61	Prosa
Ganzarain Etxaniz	Xabier	Ziutate postmoderno historiagabea	1992	55	Prosa
Garcia Aretxabaleta	Alexander	Fraileen arteko kontuak	1996	93	Prosa
Garcia Berasategi	M. Jesus	In memoriam	1992	141	Poesia
Garcia de Cortazar	Miren	Hutsune eta itxaropen	1987	35	Prosa
Garcia de Kortazar Agirrezabal	Jon Ander	Azken etapa	1992	69	Prosa
Garmendia Etxabe	Jaione	Markel	1986	31	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Bakarrik	1996	87	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Sei puntako izarra	1998	33	Prosa
Garmendia Irizar	Maddi	Txantxangorriaren kantua	1998	53	Prosa
Garmendia Munduate	Larraitz	Amodioaren garapena	1992	155	Poesia
Gil Munarriz	Jorge	Izarren izenean	1997	123	Prosa
Gil Munarriz	Jorge	Heriotzak ez zekiena	1998	143	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Goenaga Jauregi	Jon	Gertaera arraroak	1991	89	Prosa
Goia Imaz	Garazi	Amodioaren pasioa	1996	49	Prosa
Goikoetxea Asurabarrena	Ekaitz	Gauaren ilunduran	1998	187	Poesia
Goikoetxea Gezuraga	Josu	Frenopatiko triste eta eroa	1991	123	Poesia
Goikoetxea Gezuraga	Josu	Azken fotogramak	1992	121	Poesia
Goitia Pastor	Leire	Galdutako bihotzaren bila	1989	79	Prosa
Gómez Alonso	June	Gaueko kronika bat	1997	131	Prosa
González García	Kristina	Errugabea	1998	77	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Leticia	1997	111	Prosa
Gorostizu Mujika	Ainara	Londresko bluesik ederrena	1998	69	Prosa
Gorrotxategi Azkune	Miren	Herio	1997	229	Poesia
Gurrutxaga Uranga	Amagoia	Bi eguneko egunkaria	1986	71	Prosa
Ibargutxi Gisasola	Lierni	Holyhead en gertatu zena	1991	99	Prosa
Imaz Ganzarain	Itziar	Bizitzaren egia	1991	69	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Fenixaren pabeiloia	1986	61	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Montparnasse-ko usoak dira igaro	1989	31	Prosa
Imaz Irastorza	Mikel	Zentzu eta funts	1989	135	Poesia
Intxausti Ormazabal	Garbiñe	Heriotzaren magalean banengo	1989	177	Poesia
Iribarren Aristizabal	Ibon	Romeo eta Julio	1992	41	Prosa
Iribarren Aristizabal	Ibon	Erretratua	1993	27	Prosa
Iribarren Aristizabal	Ibon	Okerreko gaua aukeratu nuen maitemintzeko	1993	149	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Behin betiko	1993	193	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Bizi baihaiz	1993	207	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Metalezko zuhaitzak belaze berdeetan	1994	145	Poesia
Iruretagoiena Agirrezabalaga	Iñigo	Amodioaren frentean hildako azken soldaduari	1995	145	Poesia
Iturriaga Zugaza-Artaza	Unai	Gaua eta zu	1992	135	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Iza Totorika	Ibon	Zaparrada lehorra	1991	51	Prosa
Jauregi Larrañaga	Aitor	Ahotik ere ihes egiten dun	1989	167	Poesia
Jauregizuria Lopez	Maidier	Zu ez zaudenean	1990	57	Prosa
Kano Ormazabal	Nagore	Emagalduek deitzen gaituzten horiei	1990	75	Prosa
Kastañares Etxezarreta	Asier	Itsasoak daki	1989	151	Poesia
Landabidea Urresti	Xabier	Sua	1997	215	Poesia
Larrabide Elexpuru	Leire	Opari misterioitsua	1995	103	Prosa
Larrañaga Ormazabal	Ane	Alaba galdua	1996	39	Prosa
Larrañaga Ormazabal	Ane	Laura	1997	23	Prosa
Larrañaga Zabaleta	Oihana	Zugatik	1995	87	Prosa
Larrarte Otegi	Miren	Panpina bat besterik ez	1989	41	Prosa
Lazkano Orbegozo	Aitzpea	Eguzkiak begiratu eta irri	1989	11	Prosa
Leiaristi Guenaga	Amaia	Ihes betea zilegi balitz	1988	27	Prosa
Leturia Iurrita	Iñaki	Genesi	1987	45	Prosa
Lizaso Urrutia	Maidier	Zu eta ni zigarroa medio	1991	59	Prosa
Loidi Garitano	Ane	Infernu berotik	1987	115	Poesia
Longarte Arriola	Maria	Fiat voluntas tua	1992	25	Prosa
Llona Ormaetxe	Idoia	Gizonak egin eta apurtu zuena	1987	53	Prosa
Madina Ugartemendia	Mikel	Ezetzta	1990	173	Poesia
Makazaga Eraña	Nerea	Ilunbeko neska txikia eta Hegoak	1998	211	Poesia
Malagón Zaldua	Ana	Beleak kontaktzen	1994	87	Prosa
Malagón Zaldua	Ana	Beti mugan, zerbait ulertu nahian	1996	19	Prosa
Malagón Zaldua	Ana	Maitasunaren beste definizioa	1995	37	Prosa
Manterola Arostegi	Nere	Bizitzeko arrazoia	1991	77	Prosa
Mendia Usabiaga	Saioa	Denboraren ganbara	1994	97	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Akatsa	1988	61	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Mendieta Lasarte	Arantxa	Autobeldurtze prozesua	1989	63	Prosa
Mendieta Lasarte	Arantxa	Azken gogoetak	1990	29	Prosa
Mendiolha Agirre	Aitzol	Oficialdegui-k orhoitt ükhenen dü Santi Unzueta "vasco"-a	1991	37	Prosa
Mitxelena Albisu	Inge	Kutxa zahar baten istorioa	1986	77	Prosa
Mitxelena Albisu	Inge	Ander	1988	21	Prosa
Muguruza Sarasua	Saioa	Udazkeneko bakardadea	1991	147	Poesia
Muñoa Arrigain	Karmele	Ametsondoa eta gero	1994	123	Poesia
Muruaga Lejona	Ainhoa	Superbizipenaren burruka ikaragarria	1990	101	Prosa
Negeruela Izagirre	Ainhoa	Maitasun poesia	1992	147	Poesia
Oiarbide Aldasoro	Asier	Amodio gorrotagarria	1988	111	Poesia
Oiarbide Aldasoro	Asier	Premio santu hura	1988	129	Poesia
Olabarri Aldape	Iñigo	Orbaindu gabeko zauriak	1988	161	Poesia
Olaizola Gabirondo	Jurgi	Gaztelua	1996	103	Prosa
Olarra Allika	Gotzone	Poema sozialen artean amodiozkoren bat	1986	123	Poesia
Olaskoaga Bereziartua	Naiara	Ume baten bizia nire eskuetan	1994	109	Prosa
Olaskoaga Bereziartua	Naiara	Zoriona, maitasuna	1996	55	Prosa
Olazabal Elorza	Arantzazu	Garaia	1986	133	Poesia
Ormaetxea Irleta	Amaia	Familia baten beharra	1987	59	Prosa
Ormaetxea Irleta	Amaia	Iraganarekin topo egitean	1989	93	Prosa
Ormaetxea Irleta	Amaia	Maitasun gorrotatua	1989	183	Poesia
Ornoz Antxordoki	Belen	Plisti plasta	1990	167	Poesia
Otaduy Zubizarreta	Juan Pedro	Iraganetik datorren ekaitza	1994	37	Prosa
Padrón Plazaola	Araiz	Denborak ez du dena sendatzen	1991	131	Poesia
Padrón Plazaola	J. Luis	Ilargi gabeko kalea	1987	121	Poesia
Padrón Plazaola	Araiz	Pago zaharraren azken arnasa	1993	155	Poesia
Paia Ruiz	Xabier	Tontoarena	1997	245	Poesia

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Paia Ruiz	Xabier	Dakitenek jakingo balute	1998	227	Poesia
Peruarena Ansa	Mikel	20 eta 12	1995	173	Poesia
Pikaza Irigoien	Nora	Zentzugabeko paktua	1986	91	Prosa
Redondo Pares	Laura	Gau hartan... iluntasunean	1989	85	Prosa
Rios Bernaola	Itziar	Amets gaiztoa	1987	71	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Hogei hilotz	1996	65	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Ilunabarreko kantu malenkoniatsua	1997	85	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Aneren kaiera	1998	19	Prosa
Salaberria Eguzkiza	Miren	Eternitatearen memorian	1998	167	Poesia
Salinas Elosegi	Aitziber	Ibai baten esamesak	1992	113	Prosa
Salinas Elosegi	Aitziber	Mercedesdunaren seme ez zena	1993	107	Prosa
Sansinenea Aizpurua	Ainhoa	Heriotzaren oihua	1990	91	Prosa
Santiago Arizaga	Mikel	Hosto bat bailitzan	1989	17	Prosa
Sarobe Txopeitia	Leire	Beharrezkoa	1990	65	Prosa
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Galeperrak espazioan	1991	137	Poesia
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Horizontea	1991	143	Poesia
Sarriegi Galparsoro	Aitor	Ardi galduaren malkoak Urepeleko artzainari	1993	161	Poesia
Sudupe Rodriguez	Maider	Azken agurra	1995	65	Prosa
Tolosa Eizagirre	Egoitz	Gatibuari kantua	1998	195	Poesia
Torres Renedo	Xabier	Nahitaez	1991	29	Prosa
Ugarte Zubizarreta	Larraitz	Teilen auzipean	1994	153	Poesia
Urbizu Uribe	Nagore	Itsaso amaigabe hartan	1987	79	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	5B: bizitza beltz bat beltzen bizitza	1988	71	Prosa
Urbizu Uribe	Nagore	Argi bi	1988	143	Poesia
Urbizu Uribe	Nagore	Jostailu berria	1990	47	Prosa
Uribesalgo Urizar	Larraitz	Askatasunaren negarra	1993	67	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Urkia Garmendia	Larraitz	Errege etzana	1992	77	Prosa
Urkizu Mendiola	Jone	Addis Kiptum	1994	73	Prosa
Urkizu Mendiola	Jone	Ihesi	1995	95	Prosa
Urrestilla Urizabal	Jon	Ostiral gau bat	1992	31	Prosa
Urrutia Urteaga	Maite	Noraezean	1998	135	Prosa
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Zerutik maiteari	1992	173	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Behin heldu hintzen	1993	199	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Amodio poema bat -gehiago-	1994	131	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Argazki horizatuak	1994	159	Poesia
Urrutikoetxea Vacas	Urtzi	Abazuzien pien	1995	157	Poesia
Urzelai Izagirre	Gorka	Bizitzaren gurpilean	1990	119	Poesia
Villena Camarero	Unai	Bakardadearen itzaletan	1996	219	Poesia
Villena Camarero	Unai	Naturaren muga herdoilduak	1997	169	Poesia
Villena Camarero	Unai	Odola	1998	45	Prosa
Vives Urbietta	Alaitz	Aretoaren izkin batean	1993	17	Prosa
Yurrebaso Pikaza	Iker	Ai! Bixente, Bixente	1995	121	Prosa
Yurrebaso Pikaza	Iker	Benta ilunetan da nire gogo	1996	29	Prosa
Zabala Basterretxea	Miren	Oroitzen al duzu?	1997	73	Prosa
Zabala Ormazabal	Idoia	Anbare grisa	1998	85	Prosa
Zabaleta Umerez	Ester	Zaldi hegaduna	1986	43	Prosa
Zabaljauregi Markuerkiaga	Matxalen	Horixe bakarrik	1996	203	Poesia
Zabaljauregi Markuerkiaga	Matxalen	Bi bide	1997	97	Prosa
Zabalo Enparantza	Katrin Naroa	Bi egun New Yorken	1989	71	Prosa
Zorita Arratibel	Yolanda	Goizeko euri artean	1990	83	Prosa
Zuazo Corral	Nagore	Hizkuntzari zerraldorik ez	1993	35	Prosa
Zubeldia Aierbe	Estitxu	Bizi	1989	103	Prosa

ABIZENAK	IZENA	IZENBURUA	URTEA	ORR	ARLOA
Zubiate Garay-Yurrebaso	Aritz	Bariku bat	1993	77	Prosa
Zubiate Garay-Yurrebaso	Aritz	Not time for love	1994	55	Prosa
Zubillaga Zurutuza	Arrate	Alaitzen jakinmina	1989	51	Prosa
Zubiri Esnaola	Harkaitz	Begira nazazu	1995	73	Prosa
Zuloaga Martinez	Nerea	Xirularen azken notak / Ez naiz itzuliko	1987	131	Poesia
Zuloaga Martinez	Nerea	Zu zara nire bizitzaren arrazoi bakarra	1987	87	Prosa
Zumarraga Azkarate	Eriz	Gazte pentsamenduak	1987	137	Poesia
Zumarraga Azkarate	Eriz	Ezezagun maite	1990	125	Poesia



P O E S I A

JORGE GIL

MONIKA ESTÉVEZ

MIREN SALABERRIA

JON BENITO

EKAITZ GOIKOETXEA

EGOITZ TOLOSA

OLATZ DE MIGUEL

NEREA MAKAZAGA

URKI BILBAO

XABIER PAIA

... Egingo nuke Urruzuno literatur lehiaketan neskek maioria zabala osatzen dutela, baina hori horrela izan dela frogatu ahal izateko lan guztien egilea non den jakin beharko genuke. Bitartean, gauza bakarra dakigu, ugariago direla neskak sarrituen artean, epaimahaian alderantziz gertatzen bada ere.

Adituen esanetan gauza bera gertatzen da irakurleen artean, emakumeok gizonezkoek baino literatura gehiago irakurtzen dugula. Hala ere, gure literaturaren alorrean emakume idazleak minoria eskasa gara eta, gainera, proportzioak oso piskanaka egin du gora azken belaunaldietan ...

... Urruzuno sarien neskak maioria badira eta, gainera, askotan, irabazle, batek pentsa dezake kontua konponbidean dagoela, datorren mendea hasi bezain laster parekatu egingo direla liburuak argitaratzen dituzten gizon eta emakumeak. Gazteei esker, noski, helduok ez baitugu erremediorik.



EK15020303
Irakaskuntza Ertainetako Urruzuno Literatur Lehiaketa 1998



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATEA
ETA IKERKETA SAILA

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Salneurria: 800 Ptas